

EDORTA JIMENEZ

Koioterren arrastoa

SS narratiba
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2006 Edorta Jimenez

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2006ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

2002

YOSEMITE PARK - KALIFORNIA (iraila)

Sekuoia tantaiak

Larunbata da Nevadako Renon. Atsedean egiteko eguna. Beste lagun bat eta biok Nevada eta Kalifornia artean den Yosemite Parkera bisita egiten abiatu gara.

Bidean, XIX. mendean urre gorriak eragin zuen sukarraldian hazitako Bodie herrian gelditu gara. Bertan behera lagata, iraganaren itzal hutsa da Bodie, herriak sortu, hazi eta desagertu ere egiten direla adibiderik behar bada, berau da adibide ederra.

Western ospetsu haietakoen ereduakoa den Bodie atzean utzirik, berriro bidean gara eta, horra cowboy legendarioen paisaiak; mendi goiak, laku eder zoragarriak, sastrakazko mortuak eta bakardadea. Pantaila handian ezagutu genituen legendak bizirik dira hemen. Hona etorri ziren Euskal Herriko artzainak legendaon parte dira.

Etxean harturik naukan Joek diost horietako bat. Alegia, hemen artzain ibiltzen zirenek txekea eskatzen bazuten, kontuz!

- Ordaindu egiten jakean, bai, baina gero mendiko edozein zokondotan ezkutaturik itxaron, jo eta bertan seko uzten juen artzaina. Haren txekea hartu, eta gorpua zulora. Zenbat ez ote dagoen mendioetan halantxe lurperatura-zioetan Joe Euskal Herriko semeak.

Legenda huts modura hartu ahal dira horrelakoak. Hona iragan mendeko hirurogeiko hamarkadan etorri zen Joeren ahotik entzunda sinetsi egiten dira, ostera. Hollywoodek ere sinetsi zituen. Baskoena. *Thunder in the Sun* filma, 1959. urtean errodatua. Mundakako Rex zineman ikusi genuen. Ezin sinetsirik. Zuri batzuk indioen kontra borrokan, harriak jaurtitzeko xisterak erabiltzen, irrintzien bidez komunikatzen, flamenco dantzari eta frantses izenekin. Euskaldunak Far West-era bidean, orduan hain ume izanda ulertu ez bagenuen ere. Ustez 1847an gertaturikoetan oinarritua zen filma. Ez zen erabat asmatua izango, ez. Center-en ezagutu dudana Pedro Oiarza-

balek giltzarri bat eman zidan, hona iristean izan genituen lehenengo berbaldietako batean.

- Indioekin kontaktuan sartu ziren lehenetari-ko europarrak euskaldunak izan zituan. Euskaldunek eta indioek amankomunean zeukatena, ingelesez ez jakitea zuan, besteak beste. Horrekin esan nahi diat ez zutela batak bestea etsai ikusten.

Kontaktu horiek Kalifornia aldean abiaturik mendietan ausartzen zirenek egin bide zituzten. Orain, Yosemiteko bidean, goiz hura dut gogotan, hona iritsi eta egun batzuetara. Pedrok, aho zabalik utziko ninduela jakitun, faksimile bat erakutsi zidanekoa.

Euskarazko lehenengo astekaria: *California-ko Eskual Herria*, horixe erakutsi zidan. Ez nion halako jaramon berezirik egin. Kalifornian dena da posible.

Kalifornia! Joeren etxetik begiratuta Sierra Nevadako mendiak hantxe ikusten dira eta, berak goizero esaten dit berdin.

- Beste aldean, Kalifornia.

Joek hola esaten didan guztietan euskaldun sortzez baserritarrek hemen geratzeko izan

duten motiboaz egiten dut gogoeta. Hona lurralde amestua, non belardiak kasik infinituak diren, non mendiek ez dioten Bizkaian bezala elkarri traba egiten, non zerua beti garbi eta haizea beti lehorra den. Lurralde amestua, Bodie hori bezalako mirariak ernalarazi dituena. Urrea libre!

- Arrantxoa erostea pentsatu najoan, baina, ba'kik, ganaduekin beti esklabu; ardietan ibili ostean herrira bajatu nintzuan.

Horra non zegoen urrea. Kanean lanean. Reno hazten ari zen urteetan izan zen Joe hona etorri zenekoa. Bizkaia, itotzeraino txikia, Bizkaia, itotzeraino estua, Bizkaia, itotzeraino hezea, Bizkaia, itotzeraino berdea, Bizkaia, hantxe utzita. Ez Bodie utzi zuten bezalaxe, baina kasik. Bodie! Noiz hil zen? Posta bulegoa beste herri batera eroan zutenean, 1932an, ala suhiltzaileen etxe-ko brontzezko kanpaia ostu zutenean, 1941ean?

Turistari larregizkoak zaizkio halako galderak. Hala da ze, hori gero eta urrunago eta galderak ahaztuxeago, horretatik Yosemiteko bidetan ezinbestez datorkit behin eta berriro sorterrria gogora. Eta halako batean giltzetako bat antzeman dut. Hona etorri zirenek bertan geratze-

ko izan zuten motiboen misterioa askatzeko giltza. Mendi gain baten ostean ametsetakoa dirudien lakua agertu zaigu begien aurrean. Negarrak bihotzeko begietara egin dit. Hau edertasunaren betea.

Baina Euskal Herria, oi Euskal Herria, hemen-dik zein urrun. Ziur naiz beste lagunari ere hara zaiola gogoia joaten baina, zer arraio, hemengo inguruen edertasuna ezin dugu horrekin hondatu. Mintza gaitezen beste gairen batez.

Horrela, sorterriaz hitz egiteko gogoari muzin eginez, parkearen sarrerara iritsi gara. Eta aurre-ra goaz. Emozioetan barrena, paisaia zehar goazen aldi berean. Astiro. Denbora eta espazioa geldi dira hemen, Kaliforniako alderdi miragarri honetan. Parkearen luzea egiteko ordu eta erdi behar dugu. Bilbo eta Iruñea arteko bidea egiteko adina. Hemen diren 4x4 autoek beren esangura eta zeregina dute. Lagunak eta biok gure herria, ala sorterria, ala aberria, zer den ez dakigun horrexen neurriak aipatu behar ditugu, ezinbestez. Eta neurriak aipatzeak horixe eztabaidatzera eroango gintuzkete. Alegia, sorterria, herria, aberria, zer den gurea. Zorionez, gaua gai-

nera etorri zaigu eta, motelera, ondo lo egitera. Mariposa izeneko herrian.

Biharamunean laguna eta biok hemengo edozein banku-bulego atrakatzeko giroan itzartu gara, esan nahi baita filmetako paisaia deritzogula Mariposa izeneko herri honetakoari. Izena nondik datorkion ere jakingarria da.

Gazteleraz hitz egiten zuten *spanish* haiek hona iritsi zirenean tximeletak, mariposak, multzo handietan zebiltzan-eta, hortixe izena. Haatik, gazteleraz mintzatzen ziren haien ostean ingelesez-eta jarduten zutenak etorri ziren, zuriak!, eta Ameriketako Estatu Batuen XIX. mendeko historian hainbatetan jazo zena jazo zen. Lehenengo, 1846-1848 urteetan, Mexikar-Amerikar gerra izan zen. Horrekin aldi berean izan zen Kaliforniako Urre Sukarraldia, 90.000 pertsona hara mugiarazi zituen. Bodie, esate baterako, halaxe sortu zen, 1861ean.

Urrea eta gerra, biak gogoan hartzekoak dira, edonon. Mariposa honetan baina, batez ere gerra dakarte gogora. 1846-1848ko haren ostean, 1851n, Kalifornia -hogeita bost egunez Kaliforniako Errepublika izanikoa- Estatu Batuetako

31. estatua bilakatu zen. Eta halaxe, gerra giroan, zuriak indioei ekin zieten 1850. urteaz geroztik. Galtzaile indioak izan zirela zertan esan ez dago. Zuriak batailoia izena, Mariposa Batailoia. Eta horrexegatik Mariposa. Ze paradoxa, gerrara etorri eta, izena Mariposa.

Honelako azalpenak, paradoxarik inon erakusten ez dutenak, harriduraz irakurri ditut, Mariposa herriari buruzko turismo orri horietakotan. Eta gogoeta egin dut, indioekin egindako gerrez hain harro baldin badira, indioen euren lekua zein ote den hemen.

Autoan sarturik, sekuaia tantaiak diren aldera iritsi gara. Inoiz basoak esangura metafisikorik izan badu, horren aztarna da hemengo hau. Hemen ere bihotzak negar egiten du. Hemengo pinuek, hain handi haziak eurak, ez dute Bizkai-ko izurri-basoaren ezta antzik ere. Ehunka urte dituzten zuhaitzok denboraren beste neurri bat ematen digute. Ez pentsa, haatik, amerikarren natura zaletasunak salbatu dituenik.

Parkeari buruzko edotarikoa saltzen dituen etxolara egin dugu, eta hortxe erosi berari buruzko liburuxka. Itzulerako atsedentaltietako batean ikusi dudanez, hemengo basoak soiltzeari ekin ziotelarik, behetik hasita beti gorantz egin ez jardun zuten. Hurbilena ebaten errazena, ebagi eta ebagi mendietan gora egin zuten, milaka urte zahar ziren sekueiak eraisten. Bat bera ere tente ez uzteko moduan eraitsi ere. Halako batean AEBetako Kongresuak Yosemite babeste-ko legea ebatzi zuen arte. Ebazpen horren eragile Galen Clark izan zen.

Diotenez, Galen Clark, 1814an jaioa bera, 1853an biriketarik oso gaixorik paratu zen. Medikuek sei hilabeteko bizialdia eman ziotelarik, gizonak basoetara egin zuen, arnasa bila. «Hobetu ala hil, mendietara jo nuen, aukeran lehena gertatuko zitzaidalakoan». Halaxe izan zen. Galen Clark 1910ean hil zen.

Bizia bigarrenez eman zion lekua, Yosemite, halaxe topatu zuen Galen Clarkek. Hala bada, gizonak hemengo aberastasunak babestea bere biziko kausa egin zuen. Argazkietan bizar luzedun ageri da, Grizzli -Hartza- izeneko tantaiaren

aurrean, eskuin eskuaz kasik bere besteko luzea den eskopetari eusten. Edo bestela alboz agerida, bizarra askoz ere luzeago, eta urdinago. Historiarako.

Hori dena Parkeko lekurik zoragarrienean irakurri dut. Alegia, El Capitan mendiak eta halako bestek osatzen duten haraneko errekaetan. Non badirudien edozein momentutan iraganeko indioak agertuko direla. Hori bai, iraganekoa ematen duen leku honetatik ehun metro atzerago turistentzako atonduriko lekuak dira, beren zarata-tasa eta guzti. Horiei gor eta itsu, soraio uharteko sastraketan, soina hemengo uretan sartzeko gogoia egin zait. Ur sakratuak. Ur sekretuak.

Ezin izan diot errekan sartzeko gogoari eutsi. Bainujantzi eta guzti sartu naiz, jakina, baina behin barruan kendu egin dut. Leku honek badu indarrik eta, ziur biluzirik hobeto egingo didana. Ura aiztoaren ahoa bezain hotz dagoen arren, lurarren odolaren beroa dakarkio nire gogoari. Uharte bateko sastraken artean etzunda lehortu naiz. Gero paseatzeari eta gida-liburua irakurtzeari ekin diot. El Capitan itzelaren oinetan ibi-

liz. Honantz etortzean errepideko gune batean geldirik mendi horri begira ahotsa duelako sentsazioa izan dut. Mendiak baduela bere mintzo isila, horixe sentitu dut. Errekan bezalaxe. Pa-seatzen bezalaxe. Zelan ez bizi hemengo ura mi-ragarria izan behar delako sentsazioa! Baina noan berriro Parkeko etxolan bizi izan dudanera.

Parkeko denda den etxola muinorik gorenean dago eta, kanpoaldean duen ur xirripa eskertzen da. Hori behintzat doan da. Gero barrura, eta hor dena da dirutan ordaintzekoa.

Halako lekuetan koska etxekoei zer eroan izaten delarik, alabarentzat zer erosi ez dut zalantzarik egin. Badira hor hartzak, trapuzkoak. Bat erosi dut, hark halakoak zein maite dituen gogoan. Liburua ere erosi dut, arestian esan moduan. Bada, kanpoan berriro, erositakoak hobeto begiratzeko astia hartu dut. Hartza *made in China* da.

Igo garen moduan egiten dugu beherantz, alegia, tantaletara ez lar inguratzeko dioten oharrei men eginez. Sustraiak agerian dira-eta, badi-rudi guztiz delikatuak direla. Edo bestela hiru miloi pertsona urtean hona etortzea zama han-

diegia dela, baita hain itzelak diren sekuoientzat ere. Hala eta guztiz, zelan gaintitu argazkiak tantaiaren zolan jarrita kontrapikatuan egiteko gogoari?

Jakina, bidean sekuoia ospetsuenak bisitatu ditugu, eta baita jolas egin ere. Gu baino jolastia-go, katagorriak. Horiek edozeinetan gora aise, gu lurrari atxikirik gabiltza. Batekin ikusi eta besteak makusi, zein ez den besteak bezain eder, zein den itsusi. Halaxe topatu dugu ospetsu hori, zeinaren enborra gurdiak, diligentziak eta halako batean autoak ere igarotzeko besteko zuloa zuen eginik, 1969an apurtu zen. Horren antzekoa da *The California Tunnel Tree* deritzona. Behin eta berriro zeharkatu dugu. Horra jolasa. Gero sekuoien gunean behera joan gara, autoaren bila. El Capitan honen oinetara etortzeko. Zin egin diot nire buruari, zin egin diodanez. Itzuliko naiz, bai.

Autoan, iluntzea alde batean eta eguzkia bestean, Renora gaua baino lehen iristeko asmoa asmo huts dela ohartu gara. Euskal Herria ez aipatzeko kontu handia eginez, espazioaren eta denboraren neurriak dira berriz ere hona

etorri garen lagun bion gaia, Parkea atzekoz aurrera gurutzatu eta gure abiaburura itzultzen garen artean.

Iristen garenerako gaua da Renon. Ederto lo egin behar dugu. Katagorriak sekuoietan gora amestuz nik neuk

OHARRA:

California-ko Eskual Herria, euskarazko lehenengotako astekaria munduan, Jean Pierre Goitinok (Ainhoa, 1860 - Los Angeles, 1920) sortu zuen. Lehenengo alea 1894ko uztailakoa da. Argitalpena finantziazten zutenak, ziur aski, astekarian korrespontsal lana egiten zuten batzuk ziren, hala nola, J.F. Iparragirre (San Frantziskoko hotel baten jabea), J. Iribarren (Ken kondadokoa, artile tratuan jarduten duena), Manuel Ordoki (Los Angelesko Hotel des Pyrénées-en jabea), Bernardo Etxeberri (San Diego kondadoko kapitalista handietako bat)...

California-ko Eskual Herria astekariaren lehen alearen tirada 200 alekoa da. Abenduan 1.720 aleetara iritsiko da, eta ondoko urte amaieran 3.000tan izatea espero duela idazten dio Jean Pierre Goitinok Anton Abbadiari. Aldizkariak 1894-1897 tartea iraun zuen. *California-ko Eskual Herria* aldizkariak denera 900 inguru orrialde ditu, bilduma osoa batuz gero.

Inperioaren jabeak

Jainkoak nahi izan du ni hona, Mariposa izenekora, bigarren ez etor nadin. Oraingoan Yosemite ezagutu nahi duen beste hiru lagun eta laurok etorri gara.

Abiatzean Joe argi esan dit:

- Azkenetako egunak izango dozuez. Laster edurrak jatozak.

Nevada eta Kalifornia aldeok bere sorterrian den Bizkaiko Arbatzegikoak eta hango inguruetakoak bezain ondo ezagutzen ditu eta, jaramon egin behar zaio. Eguraldiaren gorabeherak ez dute sekreturik mendietan artzain, Renon igeltsero, basoetan aizkolari, ibaietan arrantzale eta beste hamaikatxo lekutan beste hainbat zereginetan hemen berrogei urte eman dituen gizonarentzat. Oraingoan, osteran, udako giroa dago Mariposa konderrian.

Gaueko bederatzietan jakuzia eta igerilekua ditugu, biak aire zabalean, biak zerupean, biak gure gozamenerako. Kalifornia.

Hemen jainkoa, esan barik doa, dirua da, horrelaxe ageri baita haren izena -God!- dolarreko billeteetan. *In God we trust*, jainkoa sinesten dugu, halaxe diote jatekoak, edatekoak eta gorputzaren gozamenarakoak diren besteak dirutan pagatzekoak diren dolarrek.

Bada, jainkoaren kuttunak diren dolar eskas batzuk hartuta, hemengo bar batean sartu gara, jakuziak eta gauzez igeri egiteak, biek eragin diguten azal-igurtziari beste igurtzi batzuk gehitzera. Kaliforniako bar honetan sartu izana eskertu egingo lukete horko Europako antropologo, soziologo eta enparauek. Hona hemen Amerika, bere amerikatasun jatorrenean. Jesarri eta ardoa eskatu dugu, Kaliforniakoa. Gaueko bederatzietan kanpoan bainatzeko moduko eguraldia den lekuan ezin da mahats txarrik izan. Jainko eraila den aspaldiko Bako haren odola itxaroten dugun artean, musika talde elektrikoak tresnak doitzen dihardu. Herriko bekatu-zuloan gaude.

Zuzeneko musika hasi denean inguru haue-
tan hirurogeikoak zer izan ziren antzematen hasi
gara. Hogeit hiru bider eginak diren emaku-
meak, hanka bat herrenka daroan gizon beti

gaztea, neska galai gazteagoak, agure gaztetu berriak, denek ekin diote dantzari. *Stand by me* jotzen dihardute. Ronald Reaganen kuttuna eizen eta -iraganean, hemengo presidente ohiak Alzheimer gaitzak jo duela entzun dudanez gero-, edozein faxistak ere musika onaz gozatzeko eskubidea duela ezin ukatu. Hori hasierakoa izan da. Gero, bertan sortu zen rock musika azidoaren eta beste esperimendu batzuen aireak ekarri dituzte. Horien hegaletan jendeak dantza egiten, eta edaten. Ez besterik.

Tarteka-tarteka, musika taldeak atsedean egiten du. Orduan, dantzari gehienak eta zerbitzarietako batzuk ere kanpora doaz. Pentsa liteke, bada, negozioren bat badutela hor kanpoan. Halako batean emakumezko polizia bat ere etorri da, *Fargo* filmeko protagonista baino argaltxoagoa, baina bera eta bat bestela. Barruan diren bezeroetako batzuekin berba pareta egin, irribarre batzuk banandu eta alde egin du. Hemen barruan ez dago negoziarik, ez. Negozioa, zein ereden, kanpoan dago.

Ez pentsa kanpoan dabilen negozioa zein den neke barik igarri dugunik, gero. Kostatu zaigu

hemengo barrukoen hainbeste joan-etorri zertarako diren antzematea. Zigarroa erretzera irte ten dira ataurrera. Galazota dago hemen barruan erretzea.

Mundua ganora gabekoa dela eta, beste botila bat eskatu dugu, eta gero beste bat. Nork galazo behar digu bekatu egitea, Jainkoa aipatzen duten billeteak gureak izanik horiexekin ordaintzen dugunez gero? Erre behintzat ez dugu egi ten, ez gaituzte horregatik atxilotuko. Eta antropologorik zoriontsuenak baino pozago segitzen dugu, sudurra hemengo *indigenen* artean sartuta, ea zer ikusten eta zer ikasten dugun, inperioaren jabeak hemengo hauek direnik sinetsi ezinik.

Paiuteen artean bizitzen

Ameriketako Estatu Batuetan Veterans Day delakoa ospatzen dute azaroaren 11n, Lehen Mundu Gerraren amaierako bake-ituna sinatu zen egunaren urteurrenean, alegia. Gerra hura izan zen sarraskian parte hartutako inor orain bizirik egotea kasik ezinezkoa bada ere. Horretara, egun hori urtero seinalatuz zeingura gerratan izan diren beterano oraindino bizirik direnak omentzen dituzte. Bada, hemen kontatuko dena ez zatekeen gertatuko, egun hura, 2002ko Veterans Day izan beharrean, beste edozein egun izan balitz. Ez bainuen ikusi nuena ikusiko, eta ikusitakoaren ondorioz hiritik alde egin behar nuela erabakiko.

Goiz egin nuen Unibertsitatera. Hara iristeko hirian sartu beharrik ez-eta, ez nuen beste jai egunen aldean nabarmen izan zitekeen ezer antzeman. Banekien jaiegun geneukala, baina ez zela erabatekoa, ate nagusia zabalik egongo zenez gero. Zein egun ospatzen zen, aurreko

egunean norbaitek aipatu eta goizerako ahaztuta neukan. Bost niri jaiegunek. Center-eko liburutegiko giltza neukan eta, hura poza.

Iritsi nintzenean Unibertsitateko eraikin nagusiko irakurgelako mahaietan ikasle japoniar bakanak zeuden. Kanpoko mundu amerikarrari eta beronen egutegiari gor. Nire moduan.

Eskaileretan gora egin nuen, egun batez liburuak eta artxiboak denak niretzat izango zirelako, ez eta bihotzean kriskitinak banitu ere hain pozik.

Center-eko liburutegian neu bakarrik sartuta, aldiz, ez nuen liburu bat baino kontsultatu. Biblia euskaraz.

Haatik, eguerdirainoko tartearen suhartuaren moduan idazten eman nuen. Eva eta marihuanaren historia oso-osorik etorri zitzaidan, eta etorri eran idatzi nik. Kanpotik norbaitek diktatuta bezala.

Historia, labur esanda, hurrengoa da. Edengo Baratzea; gizakion munduko lehenengo eguna, goizeko hamaikak aldera; Evak, oharkabean, historian irentsi izan den marihuanazko lehenengo kea irentsi du; horren nondik norakoa eta ondo-

rioak. Dena, Bibliako Hasiera Liburutik moldatua. OHARRA: ipuin hau *Marihuanazko bufandak* liburuan argitaraturik da.

Hura idatzi ostean ahoa gozatzeko premia sentitu nuen.

Lepoko poltsan liburu batzuk sartuta -euskarazko Biblia ere tartean-, eurokin batera betaurreko ilunak hantxe nituela ziurtatu ostean sonbreirua harturik -Nevadan ez dago horiek gabe kanpoan luzaz ibiltzerik-, campuseko lorategietara joan nintzen. Ea ba ikasleen jatetxea edo bestela kafetegia zabalik zegoen. Ez bata eta ez bestea.

Zuhaitzen gerizpeetan tartetxo batez zer egin pentsatu ostean kale nagusira egin nuen, campusean eguerdiko sargori-ordu hartan inguruan zebilen bakarra nintzela oharturik. Eta hara non, Virginia Street kale nagusian gora, nonbaiten egina zuten gerra-beteranoen desfiletik zertoren ibilgailu bat ikusi nuen. Jeep taxu horietakoa, metrailadore eta guzti. Eta gidari, Vietnamgo gerraosteko beterano eroei buruzko film horietarik ateratakoa zirudien bat.

Goiz hartan idatzitakoak idatzi ondoren abisutzat hartu nuen, bada, ikustea han kalean gora halako ibilgailua, eta halako mozoloa bertan sheriff, betaurreko metalikoak eta camouflage jantziak aldean, amorratuaren poztasuna aho ertze-ko irrian eta harro boteretsuaren itxura gidatze-ko moduan. Bat-batean kendu egin zitzaidan jateko gogoa edo, ez nago ziur, hirian jateko leku-
ren baten bila hara eta hona ibiltzeko gogoa izan zen joan zitzaidana. Oroimeneko artxiboren batetik zein egun zen, informazio hori kontzientzia-
ren argira etorri zitzaidan. Veterans Day.

Autoa harturik bake bila Pyramid Lake aldera egitea erabaki nuen. Jatorriz Renokoa edo inguruetakoa den inor ez da hara agertu izaten. Han, inor topatzekotan, mexikar familiaren bat edo, bestela, nire moduko arrotzen bat.

Leku magikoaren fama du Pyramid lakuak.

Amerikar fede onean heziek diotenez, hango uretan misterioak egiten du igeri; inoiz ontziren bat han desagertu eta, gero, handik denbora batera, Nevadako beste laku handian agertu izan ei da; Lake Tahoe izenekoan.

Nevadako mortuan egin izan diren froga atomikoen eraginez beharbada, pentsatu nuen, la-kuaren ederra bere osoan begien aurrean agertu zitzaidanean.

Egiatan, laku biak ibaiak lotzen ditu. Orain Truckee River izena duen ibaiak; lehenagokoen hizkuntzan Toogit-yoo ibaia zenak; izenak gorabehera beti bat eta bera den ibaiak. Sortu, Lake Tahoe turismo-lekuan sortzen da. *The Goodfather* saileko lehen filmari esker mundu zabalean ezaguna da laku hori, bertakoek harrotasunez gogorarazten duten legez esanda. Isuri oster, Pyramid Lake misteriotsuan isurtzen da orain Truckee River deritzon hori. Lehen Toogit-yoo zeritzona, bat eta bera.

Hala bada, Nevadako laku nagusi biak elkarri ibaiaren bidez loturik direnik, zalantzarik ez; lurpeko beste bideren batez ere lotuak diren, auskalo. Hori horrela den ez den, militarrek badakitelakoan nago. Agintariek aitortu dutenarekin bat, hemengo mortuan 1951 eta 1992 urteen tartean bederatzehun eta hogeita zortzi -928-froga atomiko egin dira. Hainbeste ze, batek daki ez ote diren ontziak laku batean desager-

tzea eta berriz bestean agertzearena sinesteko lain. Onddo atomikoen erauntsi-indarra, ala lurpetan zulaturiko balizko tunel sekretuen miraria? Erantzuna *X File* sailaren zaleren batek, akaso.

Ipuina sinetsi ez sinetsi, hantxe nuen errepi-dea, nik dakidala lakuen arteko lotura ziur bakarra. Gasolina hartzeko lotu, bide batez ura eta jateko zerbait ere erosi eta errepidean sartu nintzen. Nire sport itxuraz dotorean baina izatez merkean. Horixe.

Hiria eta Pyramid Lake lakua, biak elkarrekin lotzen dituen 395 errepidea da. Harexetan gora ipar-mendebalderantz Carson City Nevadako hiribururako direkzioan laurogei bat kilometro eginda eskumatara sartu nintzen, 445 errepidea zioen geziari jaramon eginez. Horixe da, 445 errepidea, Pyramid Lakerakoa.

Hautsik ez da falta Nevadako mortuan. Eta norbaitek horretan hautsik nahikoa ez badu, bihoa 445 errepidera. Nire sport ahula asfaltoa barik harriak zapaltzen eta harea-hautsak harrotzen hasita zegoela, kartela ikusi nuen. «Washoe Pyramid Lake Reservation; debekua hemen baimenik gabe sartzeari», halaxe zioen. Osorik in-

gelesez, jakina. Kartela muinotxo batean zegoen. Ez nion jaramon egin abisuari.

Muinoa saihestuz beherantz eginez gero laster izan nintekeen uraren ertzean. Banekien hori eta gehiago ere. Aurrekotan hara konpainia onean joana nintzen, hots, bertako ohituren jakitun zen lagunarekin; eta eragozpenik ez. Aurrea egin nuen, pentsatuz nire artean, hipotesi berri modura pentsatu ere, lakuan ontziak desagertzearena eta hura dena ez ote zen zurien erreakzio xenofoboak eragindako ipuina. Indioenganako distantziari eusteko norbaitek sorturiko legenda, esan nahi dut. Militarren asmamena ez bazen, izan. Ez zedin han inor jenderik lar ibili. Hipotesi hori ere ezin zen baztertu. Virginia Street kalean gora ikusitako beteranoa etorri zitzaidan gogora. Lake Tahoe aberatsean imajinatu nahi izan nuen, bertakoei Pyramid galdura ez etortzeko agintzen zien tabuaren indarra sinetsirik. Irudimenak ez zidan hainbesterako eman. Veteran hura Renoko aldirietako edozeinetan biziko zen, edo bestela Yosemite Parkerako bidean mortua zeharkatuz gindoazelarik muino galdue-tan goi, oso goi, tarteka-tarteka ikusi nituen etxe

galdu haietakoren batean. Dena ondo hesiturik eta armak beti prest imajinatu ahal nuen. Auskalo. Edonola ere, hara laku bi eta mundu bi, magiak barik historiak bereizita. Eskizofrenia antzeko bat.

Nevada Estatuko laku biek irudikatzen duten gizarte eskizofreniaz gogoetan, nahi gabetan, ni han nenbilen aldi berean Lance Armstrong txirrindularia inguruko mendiotan entrenatzen ari zitekeela etorri zitzaidan.

- Lance Armstrong, minbizia gainditu duen txapelduna! Hantxe zaukak arrantxo! -mendietako bat seinalatuz esan zidan lagun basko amerikanoak; egun batzuk lehenago izan zen, haitzetako irudiak bisitatzetik bueltan gentozela.

Lagunak hura esan zuelarik, artean ez neukan erabat digeriturik haitz haietan eta egun hartan ikusitakoa. Duela hamar milaren bat urteko irudiak. Haitzetako goialdeetan luze eta eder. Europako hainbat lekutan direnen antzekoak. Urrundik begiratu marraztuak diruditen irudioi, gertutik begiratuta antzematen zaie zelan diren

sortuak; harrietan tresna zorrotzen baten bidez zulaturiko puntuez.

- Petroglyphs -esan zuen horiei buruz gure gidariak, berrogei bat urteko emakumezko blondak; emakume berez ederra eta azalpenak ematean ederragoak. Tarteka berari eta tarteka haitzei aho zabalik begiratzuz, irudietako beste batzuk pinturak zirela ohartzuz joan nintzen. Horiei ere izena eman zien -pictographs- nesken estiloko cowboy jantzita zegoen blondak.

Irudiak, zulotxoak osatuak nahiz margotuak, norbaitek haitzak baino goragotik artisten eskuak zuzendurik doitasun harrigarriaz -GPSz!- sortuak balira bezain zehatzak ziren. Batzuk, banaka-banaka hartuta, irudi soilak, minimal kasik; multzoetakoak, osterak, hormairudi itzelak. Historiaz dakigunari desafio eginez. Den-denak mortuaren erdian.

Diodan moduan mortuan ondo gorderiko lekua izanik, haraino iristeko misiorik sekretuenen pareko misterioz erabili gintuzten, autoz aldatuz, han eta hemen geldialdiak eginez eta, batez bestekoan, gutarik inor hara bere kabuz berriz itzultzeko bidea ahaztarazteko moduan

zorabiaraziz. Eta itzuleran ere berdin antzean. Haitzetan ikusitako irudiek nahikoa zorabiatu ez bagintuzte legez. Hain zuzen ere, itzuleran lagun baskoak eman zigun lekuari buruzko txostenean irudi-multzoaren izena ageri da -The Lagomarsino Petroglyph Group-, baina non den ez du zehazten, «near Virginia City -Virginia City-tik gertuan-, Nevada» baitakar datu bakar.

Zorabio hartatik askatzearen izan zen, nik uste, lagun baskoak, Karmelok, itzulerakoan Armstrong aipatzea. Amerika harrigarria!, esateko modu bat izan zelakoan nago.

Eta ez dut ukatuko sentsazio horretan bat egin ez nuenik. Handik egun batzuetara beste lagun basko batek, Josebak, Pyramid Lake ikustera eroan ninduelarik, horretara bai, horretara itzuli egingo nintzela erabaki nuen.

Petroglifoak eta besteak nire kabuz topatzeko ez nintzatekeen ezta ehun urtean ere gai izango, baina lakurako bidea erakutsita dago. Harako bidean, diodan moduan, dena nahasten ari zitzaidan buruan. Veterans Daykoa, haitzeta-ko irudiak, lakuak lehenengoz eragin zidan in-

presioa eta, oi Amerika harrigarria, Lance Armstrong.

Halako kirolarientzat neguan zer hoberik Nevada baino. Ortzia beti argi, egunak luze, hotzik hotzena ere lehorraren lehorrez jasangarri, beti udan egotearen sentsazioa izaten nuen nik neuk ere. Horrexetan dago, nik uste, Nevadako mendien indar misterioetsua. Pedalei minbizia gaindizteraino eragiteko bestekoa den indarra. Agian Joe bezalako baskoek hemen gelditzeko indar nagusi izan duten indarra. Pyramidaren areagotu baino egiten ez dena. Ze, egia da; lakuko uretan sartzean emozio ezberdin batek astintzen du horretara ausartu denaren arima.

Eta zer esan uretan biluzirik egonez gero.

Uretan sartu aurretik halaxe jarri nintzen. Biluzirik. Ertzeko harri handiago batean utzita galtza laburrak, eta euron babespean ura eta jatekoa. Eta espartinak ere bertan. Gauzok non uzten nituen kontu eginda. Ustez behintzat. Pyramid Lake inguruan dena baita harria eta harea, eta uraren azalean ez baita ezer bereizgarririk.

Salbu eta beste ibarretik hurrean ikusten den hura. Uretatik gora sorturik letagin itzel handi modura ageri den hareazko haitza. Lekuari izena eman diona. Piramide naturala.

Historia aurreko munstro galduren baten letagina dirudien haitz hari begira, norbera kosmosko beste lekuren batean legokeen planeta batean sentitzen da. Eta igerian ertzetik hogeimetro baino urrunago eginez gero, ene!, halako ikara-dardara bat nabaritzen da.

Ikara gainditu nahirik, igerian berrogei bat metro egin nuen. Hantxe konprenitu nuen, edo susmatu behintzat, Reno inguruko jendeek lakuari dioten errespetuaren zergatia. Ez ziren bonba atomikoaren frogak, ezta legendek eragindako izua ere. Ezerezaren sentsazioa da gakoa. Edo, zehatzago, sentsazio horren ondoriozko larridura. Kentzen gaitza, arrazoi zehatzik gabekoa denez gero. Baina ni baitan bazen arrazoi bat larridura senti nezan. Taburen bat urratu izanaren erruak sakon-sakonetik dakarren larridura zen nirea.

Tabua. Tabua urratzea. Ia-ia jasanezin egin zitzaidana horixe izan zen, hain ziur. Lehorrera

ihes egiteko gurak zorarazi egin behar ninduela sentitu nuen. Haatik, hain zen irrazionala nire ihes egiteko gura, ze eutsi nahi izan nion, tartetxo batez hantxe geratuz eutsi ere. Piramide atomikoari begira. Horixe begitandu baitzitzaidan piramidea. Atomikoa.

Ez zagok misteriorik, ez! Ezta taburik ere!, esan nuen nire artean behin eta berriro.

Ur ertzerantz begiratu nuen. Hodei moduko bat bazen behearen parean, uher eta gorri, hai-zeak eroanda hegan. Haraino ekarri ninduen errepide berean zebilen autoreen batek harroturiko hareta-hautsa besterik ez zitekeen izan. Zena zela, hodei uger hura zerk sortua zen ohartu nintzenerako burua ia galdurik neukan. Tarte batez ortzia hareazko bihurturik zela begitandu zitzaidan. Haluzinazioetan ote nengoen pentsaturik, lehorrerantz egin nuen. Trakets baina. Urak beherantz tira egiten zidan.

Ahiturik baina berriro ertzeko hareta eta harrak zapaltzen izan nintzenerako, duda egin nuen galtzak eta era berean autoa eta beste denak non utzi nituen. Ezkerretara jo nuen, lakua lekuz mugitu izana posible ez zela pentsa-

turik. Eta nire ondasun apurak non ote ziren igartzeko lehenik autoa topatu behar nuela iritzi-ta. Autoa lehenik, galtzak baino handiagoa zenez gero. Hura lakuko perimetro irregularreko sartu-ne batean utzi bide nuela pentsatzen hantxe biluzirik, zibilizazioaren zama sentitu nuen; inor ez inguruan, eta hala ere nire biluztasuna astun egiten zitzaidan! Askatasuna sentitu beharrean, larridura. Tabua urratzen ari ote nintzen. Beneran.

Lakuaren ur-ertzeko plaia modukoan hareak eta harriek aldats leuna osatzen dute, metro pare batekoa. Haren ostean talaia moduko bat dago eta, bi metroak arrastaka igorik autoa begiztatu nuen. Nire sport zapalak mortuko narrastia ematen zuen, aurreko argi-zuloak begitzar eta gurpilak, lurrari atxikita, zango. Tarteka autoaren begitzarrek -argi-zuloek- dirdira egiten zuten. Eldarnioaren izarniadura?

Washoeen erreserba zegoen aldera begiratu nuen. Inor ez.

Berriro autoaren aldera zuzendu nituen begiak. Hala egitean haren begitzarrak baino txi-

kiagoak ziren beste narrasti-begi antzeko bi ikusi nituen.

Nor ote da?, galdetu nion nire buruari, aztoramen puntu batez.

Ohartu nintzenez, ustezko beste narrasti-begiak norbaiten betaurrekoak ziren, hantxe behearen gainean eguzkiari desafio eginaz utziak.

Haize bafada batek airean altxatu zituen sas-trakazko zirimolak. Sagebrush-ak, salbiak, horiexek baitira mortuko sastrakak. Horiexek eta, tarteka, junipero pinu txikitxoak dira hango landare bakarrak. Bada, bien usainak, pinutxoena eta salbiarena, perfume bakar batean bildurik etorri zitzaizkidan. Gozo eta bero.

Nevadako mortuko usaina, pentsatu nuen. Eta horrek bakearen sentrazioa kutsatu zidan, nonbait, lasaiago egin bainuen autorantz, baina nire biluztasunaren testiguren bat balegokeela susmatuz, eta balizko testigua non zen igarri ezinik. Aztoramen puntua ezin erabat kendu.

Orduan galtzak ikusi nituen.

Pausoa bizkorturik, haien bila egin nuen.

Galtzen parera iritsirik euren azpian utzitako ura bilatu nuen. Luze edan nuen. Ordura arte sentitu gabeko egarria asetuz.

Autoak egon behar zukeen alderantz begiratu nuen. Hantxe zegoen.

Narrasti begitzarrak ziruditen autoko argifoku bien artean eta kapotaren gainean erdi jesarrita legez.

Nire sonbreirua zeukan buruan, eta liburu bat besapean. Libre zuen eskuaz egin zidan kasu. Galtzak jantzi nituen. Aldi berean, arrotza autoaren aurrean hantxe behearen gainean zeuden betaurrekoak hartzera makurtu zen. Hala bada, aurrez aurre izan ginenerako begiak ezkutaturik zituen.

- Sonbreirua hartu diat -esan zidan, ingelesez, galtzak jantzi berritan harriekin oinetan min hartuz pareraino iritsi nintzenean-. Biblia hau ere hartu diat -biblia erakutsi zidan.

- Ulertzen al duk euskaraz? -ingelesez egin nion, ez bainukeen sinetsiko baietz esatea.

- Zein liburu den jakiteko ez duk ezinbestekoa zein hizkuntzatan idatzia den; karaktereak

arabikoak izanez gero behinik behin. Biblia irakurtzen al duk?

- Tarteka baino ez. Goizeon ipuintxo bat idazteko erabili diat. Sonbreirua, faborez.

Gidariaren bandatik, ababorretik, autoan sartzeko keinua egin nuen, ea hala berak ere zirt edo zart egiten zuen. Egin ere, zart egin zuen. Beste atera. Itriborrekora. Nirekin etorri nahi zuela, besterik ezin esan nahi zuen keinuaz. Hango atea zabaldu orduko sonbreirua luzatu zidan.

- If it's hot, you need a hat -«bero badago, sonbreirua behar,» ingelesez *hat* eta *hot* hitzekin jolas eginez esan zidan, eta eskua luzatu-. Austin nauk.

Eskua esku batez estutu nion, eta bestearekin nire ondasunak eman, autoan sartzeko baimena ematen niola adierazteko moduan. Ez zuen halakorik behar. Autoaren atzeko jesarlekuan bere kapelua zegoela ikusi nuen. Ateak giltzaz itxi barik utzi nituen seinale.

Sonbreiruari indioen estiloa edo, taxua edo, hartu nion, hantxe zeukan-eta hegalaren inguru osoan xingola gorria, hezurtxo zuri batez korapi-

loa eginda loturik. Begiak sonbreirutik arrotzaren jantzietara luzatu nituen; country estilokoak ziren baina, ilea hain beltz eta luze zuen, ze india izan behar zuelakoa egin nuen nire artean. Indioen larru kolore ustez berezia, aspaldi ikasita neukan hori ez zaiena bakanei baino igartzen.

- Nora hoa? -galde egin nion, eta autoaren pizgailu automatikoari eragin gero.

- Goazemak erreserbako restauranteran eman berri nizkion gauzen artean jateko zerbait bazela esatekotan izan nintzen-. Nola duk izena?

Esan egin nion. Izena, ez jatekoarena. Okei esan zuen. Bestela bidean ez genion elkarri hitz erdirik ere esan. Bost bat minutuz suge-errepidean aurrera eginda etxetxoak antzeman genituen arte.

- Washoe Pyramid Lake Reservation -esan zuen.

- Baimenik gabe, debekaturik sartzea -esan nion.

- Hemen zarratu gintuztena badira, zera -pentsatu egin zuen, eta artean ulertutzat jo nuen Erreserbakoa zela- ehun eta berrogeita hamar bat urte.

Irri egin zuen.

- Nongoa haiz.

- Baskoa.

- Artzainak bezala. Esadak zerbait baskoei

buruz.

Ez nuen jakin zer esan. Zer esan nezakeen Nevadan baskoei buruz, artzainena eta hori dena ez bada. Kasino handienetako baten jabea, Dick Graves, baskoa dela, adibidez? Batzuek Europako indioak garela diotela esateko ez neukan barrurik. Ezta federik ere. Bestela Nevadaren historian hain inportanteak izan diren Laxalt haiek aipatu ahal nizkiokeen. Edo artzainen horretan sakondu bestela, hango mendietan artzain ibilitako baten etxean bizi nintzenez gero. Isilalditik berak atera ninduen:

- Entzun duk inoiz Migel Leonis izena?

Ezetz esan nion, izena zertara zetorren igarri ezinik.

- Baskoa zuan. Sei oin eta pittin bat altuago zen gizon mandoa! Espiritu Chijulla izeneko indiar alarguntsarekin ezkondu eta, hara, gizona aberastu egin zuan.

Ez zidan besterik esan. Nik ere ez. Migel Leonis izena buruan gordetzeko trikimailuren bat asmatu behar nuen, kosta ahala kosta. Leonis Lehoia, pentsatu nuen, eta horrekin lasaitu.

Noiz, non izan zen Leonis horrena?, galdetu nahi izan nion, eta aukerarik ez.

- Biblia irakurtzen duk? -galdetu zidan, eta erantzunari itxaron gabe erantsi-. Katolikoak zaretu, ezta?

Bo, bazekien gutaz nik ez nekien zerbait, Leonisena alegia, eta zerbait inportanteagoa ere. Gu, katolikoak! Hara joandakoak bai, jakina. Bo. Hori baldin bazekien, esan niezaiokeen beste guztia ere bazekien. Ziur.

- Bai; zera, ez, ni neu ez nauk katolikoa. Biblia, idazteko erabiltzen diat.

Ingelesez gaitz neukan arren, Evaren ipuina azaldu nion. Ahal izan nuen moduan. Kalamuarena sakon aipatu barik, badaezpada.

- Eva dela-eta barre egin nahi izan duk? -esan zidan-. Haluzinazioak hik ere? Allen Ginsberg hark bezala. Ezagutzen duk?

Baiezko keinua egin nion. Orduan errexitatu egin zidan. Hippy, beat, edo halako estilo ba-

tean. Esan nahi dut, William Burroughs poetari filmen batean ikusia nion estiloan.

- Past Reno, Pyramid Lake's / blue Altar, pure water in Nevada sands' / brown wasteland scratched by tires (Reno pasata, Piramide Lakuaren / aldare urdina, ur gardenen Nevadako hareetan basamortu gorria autoen gurpilez atzamarkatua).

Aipamena gogoan gorde nezan edo, oharra egin zidan:

- *Crossing Nation* olerkia, 1968ko ekainaren 19an idatzia. Gutarikorik ez zuen aipatu.

Ez zegoen galdetu beharrik. Poema gogoko zuenentz. Ezetz esango nuke, kito. Nolanahi ere, Erreserbako restaurantearen aurrean geunden eta, autotik jaisteko ordua zen.

Etxola modukoa da restaurantearen eraikina. Zurezkoa, halako beste lau edo bost eraikin sakabanatuen erdian eraikia. Koloretako argiak kanpoan eta argi koloretsuak barruan. Kasu honetan txanpon makinak.

Barraz beste aldean gizona bat zegoen, eta hemengo aldean berriz emakume bat, potoloa, eta beste gizon bat horren alboan. Garagardo banarekin denbora pasan hirurak. Telebistak ematen ziharduen auto-rallya zuten beren mututasunean jolas. Txanpon makinetako batean beste gizona bat ziharduen. Erreserbako biztanleak, Veterans Day ospatzen.

Jokoa libre hemen ere, pentsatu nuen segituan.

- Ezer nahi duk? -galde egin zidan.

Jantokia barrurago zegoen, hotdogak egiteko tresnaren beste aldean.

- Garagardoa eta halako bat -esan nion, saltxitxak erretzeko makinan ziharduten neska biei begira.

- Nik edatekoak ekarriko ditiat; horiek hire kontura. Zera, Migel Leonis hori Calabastas izeneko lekuan bizi izan zuan. Ezagutzen duk lekua? Kalifornian zagok. Hoa egunen batean! -zutitu eta agintzera joan zen.

Calabastas. Izen hura ez zitzaidan ahaztuko. Neu ere zutitu eta saltxitxak agintzera joan nintzen. Hamar segundotan hantxe nituen, jateko

prest. Mahaira itzuli nintzelarik han zegon Austin, garagardoa eta zer zen igarri ezin izan nion halako edaria ekarrita.

- Edatekoa beti jatekoa baino bizkorrago -esan zuen.

- Ez dituk indiarrek -esan nion, neskak seinatuz.

- Leonis ez zuan indiarra; hura bezalako asko izan dituk inguruotan -hotdogak egiteko makinen alderantz begiratu zuen. Nesketako batek keinua egin zion. Eskuaz.

- Hi, Numaga -halaxe esan zion neskak, harakoan izena ondo ulertu ez banuen ere.

Austin zelakoan nengoen. Ohartu zen bera ere.

- Ez zaizkik indiarrek gustatzen? Bai, hemen Numaga esaten zidatek -esan zidan, begietara begira-. Izen paiutea duk -nire galdera igarri zidan-. Hemengo herria duk Paiutea. Historia jakin nahi al duk?

Edari estrainioari xurrutadatxoak jo artean azaldu zidan Numagaren historia.

- Zuen egutegiko 1820. urte aldera agertu zitan inguruotan zuriak. Gutarikoak -halaxe esan

zuen, *gutarikoak*- Pyramid Lake alde honetan libre bizi zituan zenbait mila urtez geroztik -hamar mila urte; petroglifoak eta piktoglifoak (*pictographs*) akordua etorri zitzaizkidan-. Zuriak agertu zirenean ez ei zuan gatazka azpimarragarriarik izan. Migel Leonis esan diat lehen? Ba pentsa! Paiute neska bat, buruzagi baten alaba, Estatu Batuetako armadako ofizial batekin ezkondu zuan. Odolak nahasten hasiak zituan, ikusten? -nire irudiko indiar taxurik ez zuten neskei begiratu zien.

Nire hotdoga amaituta, garagardoari ekin nion, Austinek, edo Numagak, hurrengo zer esango zuen.

- Buruzagiaren alabak liburua idatzi zian; igarriko duk titulua -bere hotdogari amaiera emateko tartea utzita-. *Life Among the Piutes* (Paiuteen artean bizitzen), bai. Hortxe idatzi zian, ba, zuriak agertu zirenean bere aitaitak esan zuela: «Nire anaia zuriak, azkenean ere iritsi dira hain luzaroan itxaron izan ditudan anaia zuriak». Ez duk beste leku askotan ere kontatu ez den ipuina. Ez al zitzaion Mexikoko neska hari ere hala xe gertatu? Zer zen gerlari hura, spanish?

Zur eta lur geratu nintzen. Cortes eta Malintxeri buruz ziharduen. Ez zion horri bestelako garrantzirik eman, nire erantzunaren zain geratu barik ekin baitzion historiari.

- Bakeak ez zuen luzaz iraun. Halako batean zuriak *zilarra* topatu zitean. Mila zortziehun eta berrogeita hemeretziak. Eta akabo gurea. Metal zuriak gizon zurien arima erakutsi ziguan. Zilar zuria gizon zuria arimaren benetako ispilua duk, badakik? -ez nion erantzun-. Gu enbarazua gintuan. Erreserbetara baztertu gintiztean. Hona, adibidez. Baina odolena nahasteaz jakin nahi duk, ezta? Halako batean, mila zortziehun eta hirurogeian, zera, utzidak papera eta idatzi egingo diat, neskato bi bahitu zizkigutean. Meatzariek. Inguruetan indio andana bildu zuan. Mendeku bila. Paiuteak, Shoshoneak, Bannock herriko buruzagiak, Oregon bezain urrun diren bazterretatik ere etorriak. Ezagutzen al ditugure herrien izenak?

Ez nintzen ausartu esaten filmetatik eta komikietatik egiten zitzaizkidala izenok ezagun. Ezta ere kontatzen ziharduen historiari ezagun airea hartzen nionik. Aldean eroan ohi dudana

kaiertxoan utzi nion, orrialde zuri batean Migel Leonis izena hantxe idatzita. Kaiertxoan esku artean, kontatzeari ekin zion, Migel Leonis izenaren behean tarteka idatzi eta batera.

- Paiuteen buruzagi gazteetako batek, izenez Numaga, bakearen alde egin zian hitz. Ezagutu behar duk haren diskurtsoa, filmetan agertua da eta -irri egin zuen, eta zerbait idatzi kaiertxoan-. Badakik gauza bat? Gure aitak Bigarren Mundu Gerrako filmak ikustean beti egiten zian alemanen alde. «Horiek gure moduan, beti galtzaile!», esaten zidaan.

Ateraldiaren inpaktuaren zain bezala geratu zen. Telebistan ematen ziharduten rallyaren hotsa eta txanpon makinarena batera iritsi zitzaizkidan. Azkeneko hori isildu egin zen, da!, eta handik segundo batera kantua bat aditu zen. Begiratu egin nuen. Juke-boxa zegoen, eta zorionez barran zegoen neska kantua bat abiarazi zuen hantxe.

- Ezagutzen duk *Bonanza*? Telesaila, bai -buruzagi bati egin nion-. Horko atal batean aipatu zitean Paiuteen Gerra iritziko zitzaion hari buruz-

ko atal bat. Bonanza arrantxoa inguruotan zagok, badakik, ezta? -kaierean idatzi zuen.

- Bai, ezagutzen diat Bonanza -kaierean idatziari begira esan nion.

Zerbait banekien Bonanza arrantxoaz, baina ez nengoen egonda. Bai oster, haitzeko irudien hartan ez ezik legendako beste leku batzuetan. Hala nola, Bodie izenekoan; meatzarien herrixka bertan behera abandonatuan. Txikitan filmetan ikusitako haiexek bezalakoa da Bodie. Mamuen herria.

- Diskurtso gogoangarria, Numagarena. «Zuriak harea aleen parekoak dituk, ugari baino ugariagoak; ezin konta ahala ale dituk munduan; guk oraingo hauek akabatuta ere, beste batzuk etorriko dituk, eta horiek akabatuta ere, berriro gehiago, eta gehiago; azkenean eurek akabatu-ko gaitiztek gu». Ez zuan hala izan, baina kasik. Carson Cityn bildu zituan zuriak, ehun bat gizon. Harro. Numagaren gidaritzapean sarraski ederra egin genian -bera han egonda bezala esan zuen-. Bostehun bat soldadu ekartzea izan zen *zuri*en erantzuna. Egin ziguten sarraskia, hura bai sarraskia. Hildakoak, gutarikoak, ehun eta hi-

rurogei edo. Irakurri aha izango duk hor nonbaiten hik heuk. Ondorioak? Gutarikoak sakabaturik, zuriek forteak nongura altxatzen, gutarikoak goseak hiltzen, zuriek erreserbak sortzen, gutarikoak bakantzen, zuriek arrantxoak sortzen, gutarikoak hantxe eskean, eurek ekin eta guk eutsi ezin. Eta halaxe, edo erreserbetara, edo bestela morroi, zerbitzari, neskame, puta -hitza ahoan min hartuz bezala askatu zuen-. Eta erreserbetan ere arazo latzak, ze gero trena etorri zuan, eta lurrak lantzeko modu basa hori, eta etxeak eraikitzeke era doilor hori, eta hik ondo ezagutzen duan beste guztia, ze Renon bizi haiz, ezta? Odol nahasteaz beste ezer jakin nahi al duk?

Atea zabaldu zen. Arrastiko argi izpiekin batera gizonezko indio bat sartu zen. Austinek, Numagak, eskuaz keinu leuna egin zion, eta sartu berriak erantzun. Agurea eman zidan.

- Erromantikoa, erabat erromantikoa Allen Ginsberg. Pyramid Lake's / blue Altar, pure water in Nevada sands -berriz ekin zion-. Baina blue koloreko ur aratzak ilun bilakatu dituk, ez haiz

konturatu? Ez duk ugerra ikusi? Altarean isuri den odolaz sortua duk.

Pyramideko uretan odol haren pisua sentitu ote nuen, urraturiko tabua huraxe izan ote zen, alegia, odoletan bainatu izana?

- Hona gure paradoxa; harea alearen balioa dik gutariko bakoitzak, harea alearen balioa dik zuetariko bakoitzak, honetan berdinak gara denok; harea aleak gara; haatik, zuek lakuko ha-reetan diren aleak baino ale gehiago zarete, eta gu eskukada bateko aleak baino ale gutxiago; gure harea aleak guztiak batera zuen begietara jaurtiz gero, segundo batez itsu gera zintezkete, oi zuen mina; zuek guri zuen aleak jaurtiz gero, lurperaturik geratuko gaituk, oi gure samina.

Harea, *sand*, eta samina, *sad*, hitzekin jolas eginez esan zuen eta, ausartu egin nintzen:

- Zertaz bizi zara? -poeta, xamana edo halakoren bat erantzungo zidalakoan.

- Izokina arrantzatzen diat, hara eta hona ibiliz, eta bide batez nire herrietan aditzen ditudan ipuinak gordetzen ditiat.

- Idatzita?

- Ez dugu ohiturarik. Ipuinak maite ditugun guztiok ez gaituk idazle -bere begien geziari jarraituz sartu berria ikusi nuen barrako zoko batean jesarrita; ez zen benetan agurea, goiz aguretua baino-. Ipuinak gogoan gordetzen ditiat, eta etorri ahala kontatu, kontatu behar direnean. Ipuinak idaztea ipuinak ahaztea duk. Idatzi duan guztiaz gogoratzen al haiz?

- Ez -labur eta lotsaturik erantzun nion.

- Evarena behintzat oraindino ondo bizirik daukak. Nik ez diat ipuin hori sekula idatziko eta, beraz, ez zaidak sekula ahaztuko. Hiri ahaztuz gero, eta paperekoa ere galduz gero, nigana etorri, eta berriro kontatuko diat. Heure ipuina. Orain nik gizakia nola etorri zen hona kontatuko diat. Bi modutara, nahi baldin baduk. Baina beste garagardo bat gutxienez beharko duk -kaiera mahaiaren gainean utzi zidan.

Ez nuen hartu. Garagardoaren bila zutitu nintzen. Kanpoan iluntzea beti bezain eder zeterren. Nevadan beste inon etortzen ikusi ezin den moduan. Gizakiok gurea ez den inguru batera tartetxo baterako gonbidatuak izan eta, tarte hori igarota gero, berehala ihes egitera behartu-

ta bageunde legez sentitu nintzen. Berriro eseri nintzenerako hotdogak zerbitzatzun zituen nesketako bat mahaira jesarrita zegoen. Keinua egin nion, ea ezer nahi zuen, eta keinua egin zidan, ez zuela ezer edan nahi.

- Sarah -esan zuen Austineke, Numagak-. *Paiuteen artean bizitzen* idatzi zuenaren izen berbera. Sarah Winnemucca zuan hura, ez zaik aise ahaztuko izena, ez daukak idatzi beharra -keinu egin zidan, kaiera seinalatuz; ezta ukitu ere hura nik-. Ez, ez zaik aise ahaztuko. Hemen ibiltzen bahaiz behintzat. Kasinoetan, restaurantetan, nongura ikusiko duan izena duk Winnemucca. Badakik zurien hitza; «gaur zer suntsitu, bihar hura omendu.» Halaxe asmatu zitean misil haiei Tomahawk izena ematea.

Azalpenak aditzean nire artean egin nuen neskak beste izenen bat ez ote zuen. Kristau kutsuko Sarah ez zen besteren bat, tradizioari lotua. Ez nuen galdetu. Austineke, Numagak, bere historia, edo istorioa, kontatzeari ekin baitzion. Hona.

- Ezagutzen al duk diskurtso hori, norena da lurra, norena airea, norena ura, horiek ez dira

gureak, beraz ezin dira saldu, ezta ere erosi? Diotenez, gu kontinente honetara duela milaka urte iritsi gintuan. Asiatik. Bering itsasartearen igarotua. Baina badakiz nork gidatu gintuen honaino? Koiotek.

- Alaskan ba al da koioterik? -motz ebakion.

- Gure tradizioak halaxe zio; koioteak ekarri zituela gizakiak gure mundura. Agian koiotearekin azken etapa egin zian gizakiak -barre egin zuten biek-, lehenagoko etapetan beste animalia batzuek egin zitean gidarena.

Adarra jotzen zidatela erabaki nuen.

- Ipuin polita.

- Hori duk esateko daukaana? Adituko duk egunen batean koiotearen ipuina, bai!

Sarah-k eskutik oratu zion. Austini. Numagari.

Aztoratuta, bigarren garagardoa ukitu gabe neukala ohartu nintzen. Edalontzia ahora eraman nuen. Edan artean, lagun biak hantxe uzteko ordua iritsi zela erabaki nuen.

- Banoala uste diat. Nirekin etorri behar al duk? -kaiertxo hartuta zutitzeko keinua egin nuen.

- Ondo duk koiotearen ipuina osorik entzun nahi ez izatea baina, ez duk bigarren bertsioa entzun -berriz jesar nendin esan zidan-. Ezagutzen al duk *Book of Mormon* ospetsua? Konta egiozu, Sarah.

Entzutera jesarri nintzen. Garagardoaren erdia hantxe neukala-eta, keinua egin nien; hura nuela aitzakia, alegia.

- Gure lakuaren ingurura gizon zuriak agertu ziren aldi bertsuan -Sarah-ren ahotsa mehea bezain indartsua zen- Joseph Smith izeneko batek ametsak izan zituen. Ametsotan Joseph hark bere jainkoaren mezua aditu ei zuen, eta halaxe jakin, ba, bazirela nonbaiten lurperaturik Ebanjelio berri bateko izkribuak, urrezko tauletan idatzitziak. Antzina-antzinako lengoiaia batean idatzitziak. Bere jainkoak taulok non ziren ere esan ei zion, eta hara joan Joseph Smith. Eta topatu zituela sinetsi. Lau urte eman zituen urtero haiek ikustera joatean, eta halako batean Moroni izeneko aingerua-edo agertu zitzaion, eta esan,

«tauletan direnak Mormon profetaren idatziak dituk; ni haren mezularia nauk; bada, aldatu itzak ingelesera tauletan diren hitzak, neuk esango diat-eta horiek banan-banan zer esan nahi duten». Eta Joseph Smithek ustezko hitz haiek ingelesera ekarri zituen. *Book of Mormon* izenarekin argitaratu zituen hitzok. Begira ezazu egunen batean liburua.

- Zergatik irakurri beharko nuke? -adarra jotzen ari zitzaizkidala begitandu zitzaidan.

- Jakiteko zein den historia sinesgarriagoa; koiotearena ala liburu horretakoa -Austinek, Numagak, esan zuen-. Liburu horren arabera Babelgo Dorrea suntsitu ostean batzuk honaino etorri zituan; Israeldik; juduak. Itsasoz. Jainkoak gidatuta.

- Kristo jaio baino seiehun urte lehenago izan zela dio liburuak -Sarah-k ekin zion-. Eta gero dio, ba, hona iritsi ostean zati bitan banandu zirela; lamanitak eta nefitak. Hauek, nefitak, kristoren ondorengo laurungarren urtean erabat desagertu ei ziren, eta lamanitak ostera endekatuz joan arren bizirik segitu. Geu omen gara, indiook -amorrua nabaritu nion- lamanita endeka-

tu haiek. Endekaturik garella, badakizu zertan igartzen zaigun? Larruazalean! Ba al dakizu zergatik dugun larrua ilun? Jainkoaren haserreak zigorturik, halaxe dio liburuak! Egun, hogeita lau milioi pertsonak sinesten dute liburu hori jainkoak diktatua dela eta, beraz, hemengo lehen biztanleak zuriak izan zirela, eta gu arraza endekaturik garella.

- Babelgo Dorrearen ostekoarena eta hori dena derrigorrez da ipuina -esan nion.

- Tamalez, Smith hark berriro lurperatu ei zitian usteko izkribuak, urrezko tauletan idatziak ei zirenak. Nik berriz, herriaren ahotik hartu diat koiotearena.

Ingurura begiratu nuen. Paiute herriaren parte bat hantxe zegoen, Erreserbako restaurantean, Veterans Day egunaz ahazturik. Gizon agurtuari begiratu nion. Alkoholaren marrak azpegietan zituen. Marra berriak sortzeko bidean zen, mahai gainean zituen hiru-lau garagardo botilek iradokitzen zutenez.

Orduan bai. Jaiki eta alde egitekotan izan nintzen. Haatik, Sarah-ri begiratu nion. Irria zebil-

kion ezpainenetan, Austini, Numagari, zerbait esaten zion artean. Eta galdera etorri zitzaidan.

- Zer dela eta etorri haiz lehen niregana? -zutik nengoela bota nion.

Zutitu egin zen bera ere.

- Lakuan bainatzeko potroak dituen zuria nor ote jakin nahi izan diat. Hippy haluzinatu horietakoa ote hintzen edo -duda egin zuen, eta irri gero-. Horixe. Horrexegatik aipatu diat Allen Ginsberg. Ea amua irensten huen.

- Koiotearena gustukoago diat Smithena baino -erantzun nion-. Azken batean animaliak baziren hemen, gizakiak Bering itsasartea igaro baino lehen, ezta? Koiotearena kasik-kasik zientifikoa duk.

- Heuk esan duk -ezker besoa luzatu zidan, hango eskuaz nirea hartzeko, eta besteaz berrakatu; bihotzez-. Baina Smithena eta antzeko beste tauletan idatzitako kontuak sinesten dituztenek agintzen ditek inguruotan! Gu folklorea gaituk. Esan diat lehen. Winnemucca denean ikusiko duk. Zuriekin zubia egin zuen indioari ohore.

Winnemucca bai, baina Migel Leonisen emazte Espiritu Chijulla ez zidan aipatu. Sarah-ri begiratu nion. Beste Winnemucca baten ondorengoa ote zen, edo beste Espiritu Chijulla baten enborrekoa, halaxe geratu nintzen. Zeren eta gurasoek izen kristaua Sarah ipini bazioten, ez ote zen zuri batekin ezkondu zen indiar haren oroiz izan. Eta horrela ezkerro, zein izen indiar ipini beharko zioten, Winnemucca baino. Haren odolean basko baten baino gehiagoren arrastoak izan behar zirela ziurtzat jo nuen. Baskoak Nevadara eta halako besteetara lotu zituen indar bakarra ez zen mortuko argiaren indarra, ezta ere mendien dimentsioa infinitua.

- Winnemucca! -esan nuen.

Neskak nire artean nerabilenaren zantzuren bat antzeman zuelakoan nago. Eskuaz agur egin zidan, herabe. Odola nahasturik zeukanik dudarik ez. Austin, Numaga, odol nahastukoa zenik, ezta ere. Elkarrenganako zituzten keinuetan biak elkarren besoetan izatekoak zirela igartzen zela begitandu zitzaidan baina, zer nekien nik odol nahastuko haiei buruz. Ordura arte Migel Leonis nor izanzen ere jakin barik nengoen eta.

Astiro itzuli nintzen etxera, sport autoaren narrasti begiak pizturik, gaua harrezkero mortuaren gainean abaildua baitzen. Hala ere ortziko sabaian argitasun laru bat zegoen, eta tarteka arrantxo bakanetako argiak ikusten nituen. Nevada den ederra. Austinek, Numagak, beste zenbat izan ote zituen otu zitzaidan, eta harrietako irudiak ikusi zituenentz galdetu behar izan niokeela, eta agian hobe izan zatekeela tarte batez han geratu izan banintz. Irratia piztu nuen. Coloradoetik meza katolikoa ematen ari ziren. Ez nuen dialean besterik bilatu.

Halako batean suzko gurutze handia ikusi nuen. Muino bateko maldan norbaitek gauero pizten zuena zen. Benetako suz egina zelakoan egona nintzena luzaz. Behin kasualitatez hara ingurura ailegatu nintzen arte. Argizko gurutzetzar hark zioetan hirira iristen nindoala. Harexek, eta handik gutxira agertu zitzaidan hiriaren beraren argitasunezko bobedak, eta lehorreratzeko eta aireratzeko behera eta gora eginez hura zehar-

katzen zuten hegazkinen norabideek. Laster nengoan.

McCarran bulebarrean zuzen jo nuen etxerantz. Ez nuen hirian sartu nahi. Veterans Day haren arrastorik ez zela harrezkero izango banekien arren.

Beti bezala, McCarranen etxe artean galduta ibili nintzen. Hiriko muinoko etxeak denak zitzazkidan oso antzekoak, eta baita euren arteko kaleak ere. Beraz, urbanizazioaren goi erpinerraino, muinoraino, igo behar izan nuen, handik errazago topatu ahal izaten nuen-eta etxea.

Une batez muinoan lotu nintzen. Ez luzaz, ez bainuen nahi inork Poliziari dei egin ziezaion, arrotz bat han geldi zegoela eta. Veterans Day! Haatik, pittin batez hiria eta mortuaren mugan egoteko gogoari ezin nion gehiago egin.

- Hemen ezin duk ezer kanpoan utzi, ze gau batzuetan koioteak honaino sartzen dituk, uzten direnak jatera -etxeko jaunak, artzain ibilitakoa bera, halaxe esaten ohi zidala gogoratu zitzaidan.

Hiru hilabete hirian eta ez neukan halako bakarra ere ikusita.

RENO - NEVADA (azaroa)

Thanksgiving

Joek esan bezala goiz batean dena elurrez beterik agertu zen. Metro laurden bateko altueran. Zazpiak ziren.

- Ikusten? -esan zidan, ordu bete lehenago jaikita zegoen gizonak.

Bera hegaztiei *-kuilak*, zioen berak- jaten ematera irten zen, egunero legez, fin-fin txistu eginez. Atzetik joan nintzaion.

Sierra Nevadara begira egon ginen.

- Kaliforniarako bideak moztuta egongo dozak gaur -esan zuen, mendiez beste aldean huraxe baitzegoen.

Ez zuen luze jo halakoen saldotxo hantxe fence-an agertu arte. Jatekoa han eta hemen jaurti zien, ume-poztasun laino batez. Gero barrura egin genuen. Kafea prest zegoen.

- Autoa ezin izango dok mugitu. Eroango haut truck-ean -esan zidan, nik kafea eta galletak irensten nituen artean.

Ezetz esan nion. Nahiago nuela elurraz oinez gozatu.

- Hartuik platanoa -esan zidan, atera nindoa-la.

Hartu egin nuen. Konbentziturik baitzegoen platanoen gaitasun miresgarriekin.

Kalean behera egin nuen. Etxaurreetan ja-beek elurra kentzen ziharduten. Ume-poztasunez horiek ere, jakina. Denetan zegoen USA bandera. Laster zen izatekoa jai nagusia. Thanksgiving. Eskerrak Emateko Eguna.

- Zer egin behar dok Thanksgiving-ean? -egun pare bat lehenago Joek berak galde egin zidan-. Gu semearen etxera goazak, Lake Tahoe-
era.

Ikusiko nuela esan nion, nire artean esanez etxean bakarrik polito egongo nintzela. Nire gogo hori alde batera, eguna hain hurbil zela ohartu nintzenez gero Estatuaren historiaz zer-bait sakonago jakiteko harra pizturik neukan. Aspaldian nengoen Robert Laxalten *Nevada* liburua erosita, baina irakurri gabe, eta ea ba oraingoan.

Gaia izanik Nevada -Bekatuaren Estatua!-, eta liburua bera laburra, ez dakar Thanksgiving-

gaz ezer. Baina gain-gainetik ez bazen ere bane-
kien historia.

XVII. mendeko puritano ingeles erradikalak,
lehenik Herbehereetara erbesteratuak eta azke-
nean Ameriketara joaten behartuak, halako ba-
tean jainkoak bedeinkatu omen zien ontzian
sartu ziren. Mayflower izenekoan. 1620an izan
zen hori eta, horra Country honen zurien histo-
riaren hasierako bat; bestea urte batzuk lehen-
ago jarri beharko genuke, Virginia sortu zutenen
historiara joz. Zergatik ez den beste horretara jo-
tzen, sakonago sartzea litzateke. *Book of Mor-
mon* liburuan Ameriketako lehenengo gizakiei
buruz esaten dena hemen azaltzeak joko lukeen
bezain luze. Horretan -*Book of Mormon* liburuan-
ez da esaten Babelgo Dorrearen ostean zenbat
etorri ziren baina, Mayflower hartakoak zenbatu-
ta daude. Ehun eta bi; zakur dalmaziarrak baino
bat gehiago. Zenbatuta daude, baita ere, lehe-
nengo neguan, 1620koan gosez eta hotzez hil zi-
renak; berrogeita sei; nire urteak orain lau urte.
Halako beste negu bat eta akabo jainkoaren be-
deinkazioa. Haatik, hurrengo urteko udazkeneko
uzta ona izan zen. Eta ospatzea erabaki zuten,

hobe ez. Indioekin batera. Horiei esker gainditu omen zuten-eta negutik bizirik irten zirenek. Indioilarra eman ei zieten. Indioek zuriei. Etxekoak arrotzari jaten eman, hori bihotza. Eta horrexeri esker arrotzek negua gainditu izana.

Oroimeneko lainoen artetik lauso, Mayflower haren irudia etorri zitzaidan, itsasaldian oinarrituriko harako film hura ikusita neukan eta. Haiek bai ekaitzak, ontzi hark gainditu izan behar zituena. Filmean behintzat.

Mayflower haren irudiarekin jolasean nindoa-la, hilerri katolikoaren alboan igarotzean elurra-
ren gainean ageri ziren banderatxoak, goizeko argitasun zilarrezkoan gorria odolezkoago eta zuria galduago. Egunen batean han sartu behar nuela erabakita neukan eta, zein hoberik hura baino. Han egin nezakeen gogoeta han. Puritanoak, katolikoak, mormoiak, nondik nora ailegatu ziren honaino. Great Basin deritzan inguru honetaraino. Laxalten *Nevada* liburuak dioenez gogoratu nahi izan nuen. Eta ezin.

Liburutegira iritsi nintzenean egin nuen lehenengo huraxe begiratzea izan zen. Handik kaiera kopiatu ere egin nuen. Eskuz.

«*Great Basin*: Nevadaia osoa, eta Utah, Oregon, Idaho eta Kaliforniako parte zenbait hartzen dituen eskualde zabala. Izena mapagile eta esploratzaileak John C. Fremont jeneralak eman zion, 1843tik 1853rako hamarkadan egin zituen ibilaldietan. Eskualdearen ezaugarrietako bat barne-drenajea da; ibaiak historiaurreko laku eta harrasketara doaz. Mila milioi urte direla sortua da».

Geologiaren zenbakiak haluzinarazi egiten dituzte. Bilioi bat urte. Barne drainatzearena ulertzeko, berriz, Pyramid Lake den mirariaz gogoratu nintzen; mortuaren erdian lurpetik etorrita hedaturiko itsaso txikia. Eta laku biak, Pyramid eta Tahoe, elkarrekin lotzen dituen ibaia, orain Truckee River deritzona baina lehenago Toogit-yoo izan zena, hori ere gogoratu zitzaidan. Begiak itxi nituen, erdi ametsetan.

Hamaikak aldera telefono deia izan nuen. Nik liburuarekin segitzen nuen, gogoetan, tarteka begiak itxiz, erdi ametsak erdizka kontrolatuz. Lovecraft-ek halaxe egiteko ei zeukan teknikaz irakurri nuenez geroztik sarritan egiten saiatzen naizen ariketan. Ametsak kontrolatzea-

rena. Surrealistek ere praktikatzen zutena, antza. Atsegin egiten zitzaidan, zinez, irakurtzea eta gero amesteko tartetxo bat egitea, irakurritakoak sorrarazten zizkidan irudiak joaten utziz eta era berean bideratzen ahaleginduz. Datuak filmetan ikusitakoak bezalakoak zirenez gero, nire filmak egiteko modu bat zen.

«1846an emigranteen tren-bagoi bat abiatu zen Springfieldetik, Illinois, Kalifornia zuela jomuga. Gurdi bihurturiko tren-bagoi hura Donner Party izenaz igaroko zen historiara. Abiatu zenean 16 arima ziren, baina bidean aurrera egin ahala beste gurdi txikiago batzuk bilduz joan zitzaizkien, azkenean, gizon, emakume eta haur, 90 izatera iritsi arte. Mira eginda joan ziren hasieran. Bidea zein erraz egiten ari ziren mira eginda, lautadetan aise egin baitzuten aurrera. Talde-buruak George eta Jacob Donner ziren. Bidean barna liburu bat erabili zuten: *The Emigrants guide to Oregon and California*. Egileak, Lansford W. Hastings-ek, ohiko bidea baino motzagoa edo laburragoa zen beste bat proposaturik baitzuen liburuan; Fort Bridger delakotik Great Salt Lake delakora, eta horren ostean Ka-

liforniara, Nevada eta Utah zeharkatuz. Egina zeukan Hastings-ek berak bidea; joatean, gurdiz; itzuleran, zaldiz. Xehetasun hori ez zuen liburuan sartu, beretzat gorde baino, azeri halakoak. Donner anaiek, xehetasun horren ez-jakitun, bide laburra egitea erabaki zuten, beste batzuek hala ez egiteko esan zieten arren. Erabaki hark hastapenetako aitzindaritzaren -pionerismoaren- historiako masa-tragediarik latzena ekarri zuen. Liburuak Fort Brigder delarik Great Salt Lakera-ko bideak zazpi egun hartuko zituela esaten bazuen ere, hamahiru hartu zituen. Utah-ko lautada egun batean egingo zutelakoan, sei behar izan zituzten. Labeko beroa eta urik ez hor!».

Ez ziren Great Basin-era iritsiak? Liburutik kopiatzeari utzi nion. Telefonoz beste aldean Isabelek kafe hartzera gonbidatu nahi ninduen. Onartu egin nion.

Bost minuturen buruan kafetegiarena egiten zuen gurditxoaren aurrean ginen, ilaran.

Esan egin nion Isabeli.

- Begira kafeak zerbitzatzen duen neskaren irriari; gaur zimeldurik du -azaldu nion-; hemen Gobernuak irriak goizeko seietan banatzen ditu,

kamioetan. Horretara jendaurreko halako enpleguen bat duten denek janzten dute zeinek bere irria aurpegian. Publiko aurreko langile amerikarrak, denek irria eskegita! Gaur elurragatik ezin izan dituzte banatu, eta horra orain neska hori irririk gabe.

Irailaren 11koaren kariaz egin zuten ekitaldia zetorkidan gogora nahi gabe ere. Urte bete lehenengo Dorre Bikiak zutik ziren lekuaren aurrean, ibaian paraturiko plato-an, han hil zirenen hurkoetako batzuk han izanda bizi irten zirenek beste batzuk telebistako kameran aurrean oroitzapenak aletzen. Tartean, mihitik tiratzeko eta pantailaz beste aldeon gineno azalpenak emateko, esatari profesionala. Honek kamerari begiratzen dion bakoitzean, da!, irria ezpainetara. Ohituen indarra! Lipar batez, kameraren aurrean egon arren triste agertu behar zuela konturatzeko behar zuen tartiaz hain zuzen, hantxe geratzen zitzaion irria. Lerdea edo adurra bezala. Behin eta berriro, galdera bakoitzeko, Pavloven erreflexuz, ergel zoriontsuaren irria kameraren aurrean.

Halaxe esan nion Isabeli nondik zetorkidan irrien eta kamioen teoria. Barre egin zuen.

Beltzarana, erdi iberiarra eta erdi venezuelarra, Isabel erotismoaren alderdirik biziena zen. Egunerokoan ageri den horrexena.

- Zer egin behar duzu thanksgiving egunean? Jokoz kanpo utzi ninduen.

- Ez dakit -erantzun nion-. Etxekoen menpe nago.

Gezurra. Etxekoak hori ospatzera Lake Tahoe-era joatekoak zirela eta, egun horretan bakarrik egin nahi izan nukeen. Kanpoan elurra jostailu bilakaturik zen.

Egona nintzen behin emakume harekin iluntzea ematen. Eta ez zen ezer sortu. Sor zitekeen hurrengo batean, bai. Garagardoa edaten egin genituen barreek-eta halaxe zioetan. Tamalez, gure giroko guztiak joan ohi ziren lekuan amaitu genuen. 'Silver zera' izeneko hartan.

Jakina, haraxe agertu ziren ordukoan ere gure ezagun guztiak. Gure arteko korrontea itsaso zabalean urtu zen. Eta ez, ez ginen gure haragiak bertan batu ahal izango genituzkeen irlara iritsi.

- Lehenengo zitan ez deua ohera joateko esango -Joek abisatu zidan.

Ez dut uste nik neuk ere nahi izan nukeenik. Korrontea desagertu ostean hura berriz sortzen saia nintekeen. Haatik, irlaren bila azken pausoa ematera animatu ahal izango nindukeen zerbait falta izan nuen. Thanksgivingkoa onartzeko halakoxe zerbait falta zitzaidan moduan.

- Alaba nirekin izango dut eta -berriz eskaini zidan Isabelek-, beragatik egin nahi nik, bestela paso egiten dut yanki hauen ohiturez.

Gure zita bakarraz oroitu nintzen. Berak proposatua izan zen. Bigarrena egitea neuri zegokidakeen. Ez nintzen zita jartzen ahalegindu. Beste emakume batek baitzidan ordurako burua harrapatu. Edithek.

Harexek deitu zidan hurrengo. Eguerdi alde-ra izan zen hori. Ordurako beste folio erdi bat neukan Laxalten liburutik idatzita.

«Egungo Nevada eta Utah arteko mugaldea den Pilot Peak inguruko lats eta urbegiak topatu zituztenerako kolapsotik gertu ziren (George eta Jacob Donner anaiek gidaturikoak). Beren onera etortzen egun baliotsuak galdu zituzten. Galera

handia izan zen Hastingsen beste aholku bati jaramon egitea; ehunka miliako zirkuitua egin zuten, alferrik, Humboldt River izenekoaren bila».

Edithen deiari erantzun behar nion arren, nire azterketan azken kuku bat egiten derrigorturik nengoen. Ze, kasik ezinbestez, izenak, Humboldt!, sorterrria ekarri zidan gogora. Izaroko monjeak eta herriko neskak elkar ikusten zutela, horretarako monjea igerian herriraino etorruta, eta halako batean monjea ito egin zela, hori den eta horren labur, Wilhelm Humboldtek idatzi zuen, bai, baina, Great Basin hartan ere egona ote zen? Liburura itzuli nintzen. Ibaiari Humboldt izena Fremont jeneralak eman zion eta, esker-rak! Une batez bidaiari germaniarraren biografia nahasturik ote nuen pentsatu nuen. Nolanahi ere, Izaroko legenda labur-labur idatzi zuen Humboldt hura ez, baina haren anaia Alexander bai, Ameriketara luzaz ibilia zen, eta horra zer dela-eta dagoen hain zabaldurik Humboldt izena leku-izen legez Ameriketara.

Humboldt anaien hariari laga behar nion, telefonoa hartzeko.

Hura hartzera pixka bat berandu etorri arren, Edithek ez zidan luzamenduaz ezer esan. Haatik, zorrotz galdetu zidan beste zera, Thanksgiving gaua ea norekin igaro behar nuen, eta artean ez neukala pentsatuta erantzun nik. Ba, berarekin igarotzeko, bestela ez zidala berriz hitz egingo, halaxe esan zidan.

Lankideak ginen Edith eta biok. Hizkuntza Sailean.

Eta eginda geneukan zita bat.

Etxaurrean autoan sartuta elkarrekin hizketan amaitu zena.

Musurik gabe.

- ¿Crees en Dios? Jainkoaren sinesmenik baduzu? -galde egin zidan.

- No, ez -erantzun nion.

- Yo tampoco, nik ezta ere -berak.

Oker ulertze galanta izan zen dena. Berak bai, sinesten zuen jainkorik badela, baina ez -no!- hark beste zerbait adierazi nahi zuen; fede sendorik ez zuela edo. Presbiteriana itsua baitzen. Artean ez nekien hori, ostera.

Beraz, deia etorri zenean, eta gero telefonoaren hariaren bidez thanksgivingerako gonbida-

pena, neska hark zer ote zuen ni hain indartsu erakartzen ninduen, horixe nuen nire arteko gogoeta. Agian nerabegaroko irudiren bati lotzen nion harena; ilegorria, anorexiaren argaltasuna soin luzean, begiak zuloetan sartuta, harenganako nire grina azpikontzientearen alde galduren batetik zetorren. Isabel latinoaren gorputz mardo, ile beltzarana, begi irtenak, den-dena gaindituz edo saihetsaraziz.

Bazkaltzeko ordua etorri zen arte Nevadaren historiako pasarte harekin lokaturik lotu nintzen. Bost lerrotik gora pasatu ezinik.

«Irailaren azkena zen. Hornigaiak agortzear zirelarik, bi gizon bidali zituzten, bete ezinekoa zirudien misioa betetzera: ehunka miliako bidea zaldi gainean eginez Kaliforniara iristea, han probisioak eskuratzea eta atzera itzultzea.

«Orduan, Humboldt River-eko Gravelly Ford delakoan, hantxe egin zuten leher herrek eta gorrotoek, askok eta askok elkarrenganako luzarotan gordetako ezinikusiek. Ondorioa, hildako bat. James Reed izeneko gizonak gidarietako bat sastatu zuen, besteak emaztea mindu zuelako aitziakiatan. Hiltzailea -James Reed- mortuan sartu

zen, ez armarik ez jatekorik aldean eroan barik. Hamabi urteko alaba Virginiak gaez zakutxo bat janari eman izan ez balio, bertan hil gizona».

Virginia, Edith. Elurra kanpoan uher zegoen bazkaltzera joan nintzenean. Ikasleak jolasean ari ziren, umeturik. Edo halaxe ikusi nik, Virginia hamabi urteko neskaren janariaren kontu huraxe baineukan gogoan. Haren irudia ikusten ari nintzen, western horietako batean sartuta; eta ikusten nuen neskari Edithen aurpegia jartzen nion. Ze orduantxe jabetu nintzen. Edithek hamabi urteko neska ematen zuen. Ezkondua eta diborziatua zen, oster.

Campuseko jatetxean giroa zegoen. Norekin mahaia konpartitu bilatu nuen. Idazle argentinarra ikusi nuen. Brau izenekoa. Neure adinkidea. Mahaira jesartzeko keinua egin zidan.

Lagun Brauren keinuaren bueltan jantokiko mexikarren buru egiten zuen gizona, bera ere mexikarra, hantxe neukan.

- Buenos días, egunon -esan zidan.

- Igualmente, baita zuri ere -erantzun nik.

Ez nekien gizonaren izena. Ez nuen gogoan, zehatzago esanda. Ilaran jarri nintzen. Jatekoak

ontzietan zerbitzatzen ari zen emakume mexikarrak, Rosak, irri zabal batez egin zidan agur. Hizkuntzak lotzen ote gintuen, ala yankien aldean diferenteak izatearen kontzientzia ote zen, tratua ona geneukan mexikarrek eta guk euskaldunok.

- Jalapeños, jalapeñorik? -galde egin zidan nire txanda izan zenean.

Baietz esan nion. Bazekien ez zidala lar jarri behar. Ez neukan eurek duten ohitura piperminekin.

Brau argentinarrarekin jesarri nintzen.

- Zer egin behar duk thanksgiving madarikatu horretan? -galde egin zidan.

- Ez zakiat.

- Erotuta zaudek euren egun horrekin, arraioa. Ez zakiat honezkero zenbat gonbidapen egin didaten.

Nire moduan zebilen.

- Nolakoak diren yankiok! Lehengoan aho-sexua zer den ez zekien emakume batekin liatu ninduan.

Ez zidan argitu elkarrekin larrua jo ondoren emakumeak aho-sexua zer den jakin gabe segitu zuen, ala zer.

- Fellatioa delitua duk hemengo estaturen batean, edo zenbaitetan, ez zakiat zehatzegi-entzunda neukana esan nion.

- Eta nola dakite norik praktikatzen duen?

- Bo -esan nion-, dibortzio kasuetan alde bakoitzak beste aldearen zikinkeriak salatu izaten dituenetz, ba, halaxe; Epaille jauna, senarrak zakila janarazten zidan!

Edithekin gogoratu nintzen. Ezkondu bezain bizkor banandu omen zen. Hamabi urteko neska ematen zuen emakume itxuraz anorexiak joa. Senar ohia frantsesa zen-eta, ziur horixe eskatu ziola. Ahoaz egiteko. Azken hori neure irudipena, bestea han eta hemen entzuna.

- Neure apartamenduan geratuko naizela uste diat -Brau nire moduan zebilen-. Badiat Argentinara itzultzeko gogoia.

Ez zen munduko gizonik animosoena Brau. Bazuen denean halako tristura kutsu bat, hitz egiteko moduan ere igartzen zitzaiona. Nire artean beti egiten nuen, ba, Jeneralen Diktadurak hondarrean utzia zion mingostura zela. Edonola ere, sexuaren menua bere sorterriko erara nahi zuela, hori argi ikusi nuen.

Nik berriz Edith ala Isabel, Isabel ala Edith, zeini baietz esan nenbilen, gogoak benetan eskatzen zidana egun horretan etxean geratzea zen arren. Lanera itzuli nintzen.

Hantxe neukan Laxalten liburua zain.

Orduan zuzendariordea sartu zen. Emakume baskoa. Poz-pozik zetorren, Thanksgivingetan zer egin behar genuen galdezka.

Samaraino nengoen. Eta ironiatsu galdetu nion:

- Zer du egun horrek denontzat hain inportantea izateko?

- Familiarekin egoteko eguna da, hori da dena. Familia bildurik, urtean behin, gurean Eguberritan egiten den bezala, zein ederra.

- Baina begira egun horretan ospatzen dena zer den! -esan nion-. Puritanoen etorrera! Eta indioekin egin zuten festa-afaria. Eta gero begira indioak non dauden.

Puritanoena beraren katolikotasunaren jakitun esan nion; indioena, beraren ustez gu basko-
ok indioen parekoak-edo garelako ustean nengo-
elako.

Oker nengoen

- Ene! -esan zuen-. Eta nori ardura dio horrek? Jaiak du ardura, gaur horrek daukan esan-gurak; jatorriak berdin dio. Familiarekin egoteko eguna da, ez bueltarik eman.

Nirekin haserretzeko puntuan zela igarri nion. Eta ez nuen halakorik nahi. Laxalten liburu hantxe ikusi zidalako, bestela ez dakit nik.

- O, Laxalt! Familia osoa ezagutzen dut -esan zuen, eta horrekin kito geunden.

Liburu hantxe nirekin atxiki nuen, behingoan itzuli beharrean. Gero hangoak hobeto ulertzeko ez ezik Nevada hobeto ezagutzeko ere hobe nuela plana egitea, halaxe erabaki nuen.

Atlas hartu nuen. Hantxe zegoen Amerika. Puritanoak lehorreratu zireneko Plymouth Rock hartatik Kaliforniarainoko zabaleran. Mapa txikiagoa bilatu nuen. Liburuaren hurrengo pasarteak ilustratu ahal izango zidana.

«Indioen jazarpenak saihestuz, Donner haren espediziokoek mortua zeharkatu zuten, Humboldt River eta Truckee River artekoa hain zuzen. Egun Reno hiria den inguruko zelaiak antzeman zituztelarik, ez beharren soka etena zela begitandu zitzairen. Kaliforniara bidalitako gizo-

netako bat hantxe zen, mandoekin eta janariarekin. Urria azkenetan zen. Akiturik, Donner espedizioko kideek atsedean egitea erabaki zuten. Lau egunez, horren ostean bideko azken urratsa emateko. Lau egun, atsedenean erabili beharrean bidean aurrera eginez gero Sierra Nevada igarotzeko aski izan zituzketenak».

Truckee River, mortuko miraria. Great Basineko beste mirari bat. Harearen azpitik isurian gora etorria, horra ibaia. Hiriaren ama, eta aita, Truckee River. Baina Humboldt River non den jakin ez eta, mapan kokatzen ari nintzela, liburu-zainetako bat paretik pasatu zitzaidan, eta egiten ari nintzenari betertzaz erreparatu. Hain egin zitzaion harrigarria egiten ari nintzena ze, esan egin zidan:

- Hori dena Interneten daukak. Nahi duk bilatzea?

Halako bilaketetan maisua zen gizon gazte hura; Dee, jatorriz greziarra.

Eskerrak eman nizkion, baina eskuz nahiago nuela. Okei keinua egin zidan. Orduan telefonoak jo zuen. Deeren ardura zen hura hartzea.

Hariaz beste aldean norbait thanksgiving zorionez ari zitzaiola igarri nuen. Nork, eskegi aurretik esan zuen «bay honey» hark argitu zidan: emazteak.

Hurrengo deia neuretzat izan zen. Joe, bila etorriko zitzaidala esateko. Elurak gora egiten segitzen zuela eta.

Nevada elurteak -leihotik kanpora begiratu nuen, telefonoaren lekutik mahaira bidean berriro-. Donner eta haiena ulertzeko modua hantxe kanpoan neukan. Bat-bateko elur jasa.

«Lau eguneko atsedenaldiaren ostean mendietan gora ekinda, urteko lehenengo elurrek bertan harrapatu zituzten. Izaturik, atzera egin zuten, mendi-laku batera».

Ez zioen Laxaltek mendi laku haren izena; beraz, Deek egindako iradokizuna gogoan, Interneten bilatzeari ekin nion. Denbora galdu alde, Joe bila etorriko zitzaidan orduaren zain. Halaxe topatu nuen Donner Lake izenekoa, eta haren irudia. Ametsetako lekua. Eguraldia udaberrikoa izanez gero. Ez zen Donner eta besteen kasua izan.

«Lakuaren ertzean etxolak eraiki zituzten, sastrakez, sasiz eta bagoietako oihalez. Ekaitzak etorri ziren, bata bestearen atzetik, eta hantxe hil zitzaizkien azken animaliak, mendietako elur bilduetan».

Bulegoko erlojuaren arabera ordu erdi falta zen ixteko. Laster Joe campusaren aurrean izango zen. Laxalten liburutik azken oharrak jasota, Dee lagunari jaramon egin nion. Interneten sartu nintzen. Hurrengo irakurri bainuen, eta horrek jakiteko gosea piztu, barkatu honela esatea.

«Hilabete bi joan ziren. Donner anaien taldeko hamazazpi gizon eta emakumek hantxe igaro zituztenak. Denbora tarte horretan edangarri zen oro edan eta jangarria zen dena jan zuten; kide gazteenak eta zaharrenak hil ahala besteek jan zituzten. Bagoietako arnesak eta zapatak egosita jan zituzten moduan. Hamazazpikoen taldean ere kanibalismora jo zuten».

Historia orrialde batean topatu nuen zerbait argigarria.

Donner anaien karabana abiatu zen urtean, 1846an, zuriak ez ziren asko mendebaldean. Ekialdean, gainera, jatorrizko puritano haien on-

dorengoek ez zuten begi onez ikusten fede-modu berrien ugaltzea. New Age, edo Aro Berria iritzi zitzaion fede-moduen ugalketa, hain zuzen. Puritanoek Herbehereetatik nola, halaxe beste haiek ekialdetik. Euren zorionerako, hantxe zeukaten Abraham aitaren adibidea jarraibide. Sumeria -Sacramento- atzean utzita Israelera -Kaliforniara- abiatu ahal ziren.

Mormoi fede sortu berriko Lavinah Murphy alarguna, adibidez, hazia lur berrietan ereiteko asmoz zihoan, seme-alabekin eta suhi-errainekin. Negozio gizonak, Charles T. Stanton da adibidea, diru-orriak ugariago hazten omen zireneko zuhaitzen bila zihoazen. Denak ere denak gogo sendokoak, barru indartsukoak, lan gogorretan trebatuak. Umeak salbu, jakina. Stantonek Kaliforniara iristeko ahalegina egin, iritsi ere iritsi, eta itzuli egin zen. Laguntzarekin. Baina hori aurrerago izan zen.

Interneten topaturiko informazioan Laxalten liburuan esaten ez diren doilorkeriak ageri ziren. Hilketak, mortuan bertan behera utziz heriotzara kondenatuak, gaitz larriak, desadostasunak, ka-

rabana zenbait adarretan banatzea eta, oroz gain, negu izugarri hura Sierra Nevada.

«Martxoaren 29an, 1847koan, George Donner hil egin zen. Emazteak, Tamzenek, pitin bat eroturik, senarraren gorpua jan zuen. Handik denbora batera Tamzene bera izan zen hil eta beste batek jan zuena; beste hori...».

Ez nuen halako gehiago irakurtzeko gogorik. Bizirik ailegatu zirenez jakin nahi nuen. Bo, dena inprimatzea erabaki nuen. Datu ttipi pare bat orduantxe gogoan gordeta.

Lehenengoa Virginiari buruzkoa zen, hona.

Negua halako egoeran ematen ari zirenen bilatze lana egin zen. Bilatzaileetako bat James Reed zen. Virginiaren aita, taldeko bati heriotza eman ostean alde egin zuen gizona. Bizirik topatu zuen, bai, Virginia alaba. Honek katolikotasunera bihurtu zuen, halaxe omen zion-eta jainkoari promes eginda. Salbatuz gero katoliko bihurtuko zela.

Indioei buruzkoa zen beste datua. Labur, ez zietela eraso larririk egin baina, ezta lagundu ere! Eta bai, oster, noizean behin lapurretaren bat edo beste egin. Indioek.

Fotokopiak eta liburua bildu nituen. Biribildurik neukan historia buruan. Indioekin indioilarrajan zuteneko bigarren negu hartatik berrehun eta hogeitaka urte geroagoko negu haren artean zuriak kontinentea ia osorik menderaturik zeukaten. Menderatze hori zertan izan zen, hantxe neukan Donner Party haren historia adibidetzaiko. Banekien, eta badakit, nire irudia aurreiritziz josia zena, baina zer arraio. Egun bateko kontua izateko ez zegoen txarto, nioen nire artean kanpora bidean.

Campusera irten nintzen. Ikasle gazte batzuk galtza eta gona laburretan ari ziren elur bolekin jolasean. Nevadako hotza. Eutsi egin ahal zaiona, lehorra baita.

Joek autoa non aparkatu ote zuen, campusa zeharkatu nuen. Eta hantxe ikusi nuen jantokiko mexikarren buru egiten zuen gizona, mexikarra ere berau. Agur egin nion. Thanksgiving eguneko iluntzean egin nion moduan. Adeitsu.

- Nora hoa? -galde egin zidan, lehenengoan; eta bigarreanean berdin.

- Etxera -esan nion, lehenengoko hartan.

- Ondo izan! -esan zidan ordukoan.

Agurra ezberdina izan zen Thanksgiving eguneko bezperako iluntzean. Leku berean. Unibertsitateko Manzanita Lake orduan ur ilunekoaren ertzean.

- Ba al daukagun thanksgiving gaua norekin eman? Bestela gurean daukagun lekua -esan zidala dut gogoan.

- Eskerrik asko, baina festa ez al da yankia? -erantzun nion.

- Eta zer dio horrek? Denek ospatzen ditek eta, zergatik ez guk ere ospatu. Honezkero bertokoak gaituk.

Berriz luzatu zidan gonbidapena, eta berriz eman nizkion eskerrak.

Eskua luzatu zidan, eta nik berari baita. Baina hori egun handiaren bezperan izan zen. Donner Partyren historia ezagutu nuen egunaz ari naiz orain. Joe hantxe neukan zain.

Autoan sartu baino ez eta Joeek thanksgivinga emaztearekin, semearekin, honen bigarren emaztea eta alabekin eman behar zutela berretsi zidan. Eta ea nik ez nuen gonbidapenik.

Baietz esan nion.

Astiro zapaldu zion. Elurra berriro jausten hasita zegoen eta, goizean izandako metro erdiko elurtzaren parterik handiena kenduta zegoen arren, bazirudien hurrengo goizean lodiagoa izango genuela geruza zuria.

- Hemendik aurrera gitxitan ibili ahal izango dok hire autoan -esan zidan, truck-aren gaitasunaz harro.

RENO - NEVADA (azaroa)

Billeteak

Hemen billeteak ikusten dira, hemen billeteak dagoz, aquí hay billetes, denok aberasteko beste, esaten zidan Billek, lehenengo euskaraz, eta gero espainolez, mexikarren doinuen antzeko aire batez, baina ez erabat mexikar azentuz. Azentua zelanbait itsatsia zitzaion, kutsaturik zegoen, batez ere emaztea hangoa zuelako; niri harrigarri egiten zitzaidan kutsu hura, euskaraz entzun ostean espainolez egitean bizkaitarren moduan egingo zuelakoan, baina ez, mexikar kutsuz egiten zuen. Bestela billeteena egia zen. Behin haren sozioak bederatzi mila dolar erakutsi zizkigun. Billeteetan, bai.

Aldean zeramatzan billeteak. Bederatzi mila dolarrak. Alkandorako ezker poltsikoan. Oraindi-no gogoan dut ezkerreko poltsikoan zela, zigarro paketea ateratzeko keinuarekin batera billeteak han ote ziren egiaztatzen baitzuen. Eta tabakoa ezkerreko poltsikoan gordetzen zuen.

Asteazkenetik hona egindakoak, esan zигun sozioak Billen osabari eta bioi. Osaba eta biok baikinen han, Latino's izenekoan. Loba Billen zain.

Eta lobak esana zidan:

- Nire sozijoak ez dau edaten, no toma, salvo en Navidades. Orduan bai, orduan botilia hartu eta andreak ospitalera eroan behar izaten dauen arte edaten dau, baina una vez al año no más, ea noiz arte segitzen dauen holan -euskara eta espainola tartekatuz, halaxe esan zidala dut go-goan.

Ez zen egia urtean behin edaten zuena eta hura dena, baina lobak, Billek, ez edatearen kontu hura dena egia izan zedin nahi zuen, sine-tsi beharra zeukan, eta egun hartan han zegoen sozioa, osaba eta bion aurrean, poltsikoa billetez beterik eta bere onean, baina beste behin, hara!, ni neu bakarrik joan eta sozioak egundoko bihamunarekin zegoela aitortu zidan. Gabonak izan gabe.

- Ayer tomé -esan zidan-, bart gauekoa egundokoa izan zen, ez dakit zenbat botila hustu nituen, azkenean taxi batek eroan ninduen etxe-

ra, ez dakit gaur zertara etorri naizen hona, a hacer acto de presencia.

Ezkerreko begian fijatu nintzen, tabakoa gordetzen zuen aldekoan. Kasik erabat itxita zeukan. Motel-motel. Begira begiratu nion, eta gero bista begitik aldendu nuen, bera ere ohartu zen, ziur nago. Eta han beste aldean hiriko kasino nagusiak ikusi nituen, eta ezkerretara begiratuta ere beste kasino bat ikusi nuen, eta tailerraren atzean, Latino's haren gertu-gertuan, bideo-x shopa, etxola moduko bat, dena beltzez pintatua, eta bandera amerikar itzel handia masta luze-luze batean eskegia. Beti egoten ziren bost edo sei auto han. Eta bandera gau eta egun.

Okerrena ez zen edatearena izan; jugué!, esan zidan Billen sozioak. Orduan nik uste nuen negozioa ondo zihoala, bideoshoparen hain gertuan tailerra, hiriko denek ezagutu behar zutela ematen zidan. Eta ziurrenik halaxe zen, hirian denek ezagutu behar zuten bideoshop hura, eta bide batez tailerra, eta negozioa ondo zebilen. Bezerorik behintzat ez zuten falta. Tailerrean. Al-boko bestean ere ez zuten falta nor hara joan, baina tailerrean esan nahi dut. Gau eta egun lan

egiten zuten. Auto matxuratuak Carson City eta halakoetan erosi, ekarri, tailerrean sartu, mailatuak arteztu, pintatu eta berri legez. Oinetakoen puntak zilarrezko dirdiratan ekartzen zituzten mexikarrei saltzeko primerako autoak ziren. Dena metala, dena izarniadura, dena itxura. Dena gezurra, edo beste moduko bateko egia. «Egia latinoen erara», esango nuke.

Behin mexikarren azokara joan ginen Edith eta biok, Edithek espainolez zekielako, eta mexikarrekin karitatea egiten zuelako, eta mexikarrek zerbaitegatik erakarri egiten zutelako, eta nirekin nora joan ez zekielako, eta mexikarren azokara joan ginen beharbada exotiko egiten zitzaiolako hara joatea, edo ni euskalduna izanik ere latinotzat ninduelako elkarrekin gazteleraz hitz egiten genuenez gero, batek daki zergatik. Domekaz izan zen, domeketan jainkoak jai egiten duelako eta protestante fedeko herrialdeetan domekak baino gogaikarriagorik ez dagoelako, ziur.

Orduan zuzenean galdetu zidan, hango dene-tarikoan artean ezer erosteko asmo barik gauzei begira genbiltzala, ea ba zergatik duten hainbes-

te kume mexikarrek. Tantos niños!, espainolez esan zidan. Zuztarrrik bagako galdera iritzi nion, baina erantzun beharrekoa. Eta hobe erantzun izan ez banio, umeak sexuaren bidez egiten direla horrela esatea, nori eta emakume presbiteriano hari, thanksgiving gauean familian norainoko puritanoak eta fededunak ziren erakutsi zidanari, ba hari halakorik esatea ez zitzaidalako gustuko egiten, baina erantzuna eman beharra zegoen, eta ea ba horrela zabaldu egiten nuen guk biok ere geure artean zeozer egiteko bidea. Edo zirrikitu bat behintzat. Guztiz gogoko bainuen Edith hura.

- Latexa gorroto dutelako, edo latexari gorrotoa diotelako, odian el latex -erantzun nion Edith hari.

Lotsatu egin zen, baina egun hartan eta erantzun harekin zirkuitu edo gurpil bat itxi nuen nik, ez nago ziur zirkuitua ala gurpila, baina biribildu egin nuen nire baitan zeozer, hiri haren izaera ulertzeko gakoa edo zena, nik dakit ba zer.

Hirian dena zen gezurra. Eta gezurra ez bazen ere, itxura. Edo egiaren aldaera behintzat.

Pentsamendu horixe biribildu nuen nire baitan. Gezurra eta itxuraren artean ibiltzen, esaterako, auto birkonponduen bila tailerrera etortzen ziren mexikarrak, eta Billen sozioa bera, gogoan izanda horrek zelan esaten zien, con eso sí que vas a levantar culos!, bezeroek ipurdiak altxatzeko moduko autoak maite zituztelakoa, eta neska hartu, eroan, dantza egin eta gero hantxe jotzeko moduko autoak zirelako. Hala da ze, ipurdi bat altxatu eta hantxe jo, latexa erabili barik, jo behin, edo bitan, edo hirutan ere, eta suerte apur batez neska ernaldurik, eta horra gero zergatik dagoen hainbeste mexikano azokan domeketan. Latexari gorroto diotelako. Hala da ze, gezurra zen ipurdiak altxatzearena. Behin edo bitan altxatuko zuten, eta gero ezkondu. Horrexegatik hainbeste ume mexikanoek. Baina zer ostia! Zelan esango nion hori Edithi, diborziatu hain amerikar presbiteriano hari.

Gero, ze erremedio, mexikanoek autoak konpontzen lan egin behar dutela esan ahalko nion Edithi. Latino's bezalako lekuetan, legearenertzean, paperak-eta noiz izango dituzten jakin barik. Ez nion esan. Baina lobaren eta sozioaren

billeteen bidea ikusi aha izan nuen. Mexikanoen billeteak. Mexikano levantaculos haiek Latino'-sen Coronita edaten eta autoak legez kanpo pintatzen, edo legez kanpo ez bazen ere legearen ertzean, eta hantxe ohartu nintzen ni; legearen barruko ertza ere legearen esparruaren barruan dago, hori futboleak legez da, baloia marraz barrura dagoen artean zelaian dago. Latino's legearen ertzean baina legearen barruan zegoen, eta gorroto hartu nien legearen ikuspegi hori dutenei, ertzaren ideia hori!, esan nahi duelako euren burua erdian ikusten dutela, lege esparruaren erdian. Niri egia esateko lehenengo momentutik eman zidan pintatzeko modu hura hemen gurean ezinezkoa izango zela, eta hemen ezinezkoa izango bazen, ba han ezinezkoago, Amerikan maskarillarik barik autoak pintatzen, esan nahi dut, baina halaxe zen, autoak maskarillarik barik pintatzen zituzten. Mexikanoek. Perziana jaitsi, musika topera ipini eta Coronitak edanez, di-da pintatzen zituzten autoak.

Berri-berri uzten zituzten, gero zapata puntetan zilarrezko dirdira zekarten mexikar haiek

neskarekin pasioaldiak egiteko, horrela potrorik bazegoela autoaren bidez erakutsiz besteei.

Baina latexarena da kontua, zelan esan nion Edithi, ba sekretua, mexikarrek hainbeste ume egitearen sekretua ez da besterik latexari dioten enpagua baino; beno guk enpagua esaten dugu, baina hau espainolez izan zen, eta asco esan niola uste dut, asco al latex, esan nion, eta orduan bera isilik geratu zen.

Eta, badiot, nire barruan zerbait biribildu nuen, soka mutur bi lotu izan banitu legez izan zen, eta sentsazioa areagotu egin zitzaidan Billen osabak beste zera esan zidanean. Carson Cityn egoan neska mexikana bat, mutua, hare-nak bai mamadak, esan zidan, bere autoan gindoazela. Eta harekin eta Edithen galderarekin den-denaren sekretua ulertu nuela pentsatu nuen, dena biribil-biribil agertu zitzaidan.

Eskertu egiten nuen osabaren zuzentasuna hitz egiteko orduan, ze kostatuta baina zuzen hitz egiten zuen, eta niri gogora orduantxe irakurtzen nenbilen liburua etorri zitzaidan, hango literaturan tabua diren hitzei buruzko liburua, eta liburuak zioen zelan XX. mendeko idazlerik

ospetsuenak ezin argitaratu izan zuen esaldi hura, the bulls have balls, zezenek potroak dituzte. Horrexegatik eskertu nuen mamada hitzaren zuzentasuna. Carson Cityn ez ei zegoen hark baino hobeto egiten zuenik, eta beti izaten zituen bezeroak zain, eta eurek hala ere harexekin nahi izaten zuten.

Beraz, gorroto izan nuen emakume presbiteriano hari latexa hala aipatu behar izana, baina ez zegoen beste modurik, gure artean ezer egingo bagenuen behintzat. Ez zidan ezertarako bidea eman, ostera, eta hurrengo batean argiago esan zidan:

- Nahi duana, espainolez si lo que quieres, sexua bada, es sexo, zoaz bosgarren kalera.

Eta halaxe jakin nuen hirian prostitutek kale hori zutela beren mende. Baina Billen osabak behintzat egia zioen, eta dena ulertu nuen, biribildu egin nuen, hari-muturrak lotu nituen. Hargatik geratu zen osaba Ameriketara, Carson Cityn eta halakoetan sexu-diruz-pagatua erosten ahal zutelako, eta hori Bilbon ere bazuten, badakit, baina orduan Nevadako zerura begiratu nuen. Hain oskarbi beti. Hain zabal. Hain itsaso! esan-

go nuke. Hango zerua. Eta badiot, muturrak lotu nituen. Han Nevadan, ama urrun zegoen, han norbera putetan joan zitekeen beste inork jakin barik, eta lagunekin, eta gero berriro mendira ardiekin, baina ondo jo ostean. Eta mutuarekin zelako zerak!, ez dut tabu hitz hori errepikatu nahi. Osabaren lehenengoak izan zirelakoan nago.

Gakoa, osaba Ameriketako betiko geratu izanaren giltza, prostituta mutu hura eta hark errepresentatzen zuena zen. Bestea, billeteena, egia bazen ere, ipuin hutsa zen.

Eta egia zen. Billeteak zeuden, eta ipurdiak altxatzen ziren, eta Billen sozioak behin edo behin baino ez zuen edaten, eta emakume presbiteriano harekin ez zegoen zer eginik, eta jainkoak sortu zuen hango zero amaigabea, eta autoei dirdira eragiten zieten mexikarrek latexari gorroto itzela zieten, bai. Hori dena halaxe zen. Baina ipuina zen. Billek, sozioak, mexikanoek, denek sinetsi nahi zuten ipuina. «Hemen denok aberastuko gara» litzateke ipuinaren titulu egokia. Egia benetakoa, osabarena zen. Carson Cityko hura! Ba ote zen haren parekorik Bilbon orain berrogei urte?

RENO - NEVADA (abendua)

Berrogei urte

Duela berrogei urte etorri zen Ameriketara, eta berrogei urte honetan sorterriko euskaran sartu diren hitz berriak berak ingelesetik hartu dituenak dira.

Yardara txori piloa etorri dok, diost, eta horrezkero badakit 'yarda' horko kanpoko lekuren bat dela; etxe-atzea edo, etxaurrea edo.

Beste batzuetan Txori piloa jagok fencean, diost, eta horrezkero badakit 'fence' horko kanpoko zerbaiten izena izan behar duena. Ingelesez. Kontuak atera eta 'fence' hesia dela erabakitzen dut. Batez ere txori pilo hori oholezko hesian ikusi ahal dudalako.

- Kuilak dozak -diost-. Han ez jagok halakorik; antzekoak bai, baina hau berau? Keba.

Hegaztiei hobeto begiratzen diet. Ez naiz aditua baino bekoki goian duten gandor horrek eza-gun-aire bat ematen die.

- Galeperraren antzekoak dozak, baina ez dozak galeperrak.

Orain berrogei urte izan zen gazte baserritarren hitzak dira-eta, errespetatu egiten ditut. Izan behar dute txoriok nik antzematen ez die-dan ezaugarriren bat, gure galeperren aldean ezberdin egiten dituen.

Aspaldi batean gaztea eta berdea izan zena-ri ez zaio etxe inguruan ehizean ibiltzen zenekoa ahaztu. Hegazti horiek 'kuilak' dira. Kito. Gainera, hor inguruan Nevadako mortua dago eta, nondik nora horko hegaztiak garietan ibiltzen diren eperren pareko? Ezin da.

Berrogei urte dira etorri zena, eta denbora tarte honetan Josek -izena Joe aldatu diote hemen- ingelesa nahastu dio euskarari, eta gazteleraz hitz egiten duenetan zuzen-zuzenean euskaratik itzultzen du. Duela berrogei urte herrian denek egiten zuten moduan. Denek, txape-lookerrek, abadeak eta juezak izan ezik.

Etorri ere, horiexengatik etorri zen Jose Ameriketara. Juezak konturen bat eskatu ziolako. Eta aitak igande arratsalde batzuetan ere lanean izanarazten ziolako.

- Domekak behintzat libre euki baneuzan, domeka arratsaldeak behintzat, ni ez nintzan

hona etorriko -diost, Reno hiriaz bestaldeko mendietan arratsaldea sutan urtzen den artean.

Egon ere, askotan hango zerura begira egoten gara. Sierra Nevadako mendi bakoitzak, banaka-banaka hartuta, Bizkaiko beste mendi baten taxua du. Bada bat niri Oiz mendia gogora ekartzen didana. Kaliforniarako bidea erakusten duena da, hegazkinak sartzen direneko beste aldean.

- Mendi horreek danak ezagutzen joadaz nik -diost, abuztuko iluntzeko aroan barbakoia presatzen duen bitartean; gero yardaren behean dituen tomateetako batzuen bila joaten da.

- Egundoko tomateak -diotsot nik, fruitu gorri txikiei laztan eginez.

- Ebagi eta egin olioia -erantzuten dit.

Zerura begiratzen dut. Hemen eguzkiaren ibilbidea fisikoki nabaritzen da. Nire ezkerretara gaua den aldi berean eskuinaldean oraindino argi dago eta, horra miraria. Eta tartean hegazkinen bat haraneko lautadan sartzen bada, miraria biderkatu egiten da. Eguzkiak hegoan hagin-ka egiten dielarik sartzen dira aireportuan.

Joek nire begien bidea igartzen du, eta sarritan esaten dit berdin: Han agertzen direnetik aireportuan gelditzen diren arte, hamar minutu!

Neurtuta du Joek hegazkinen ibilbidearen denbora hori. Eta hirian mugitzen ia dena ere neurtuta du. Lehenengo momentutik ikasi behar izan baitzuen Amerika zer den.

Kontinentea lehenengoz zapaldu zuenean Gabon eguna zen. Etxetik alde egiteko sasoi ederra.

New Yorkera iritsi ziren bera eta herriko beste, orain izena gogora ekarri nahi ez duena.

- Ez zuan ondo portatu, baina parkatu jeutsat -diost, herriko horrekin eduki zuen auzia diruagatik izan zela igartzen zaiolarik.

Eta izan ere halaxe izan zen. Diruagatik, badakit nik hori. Baina hori ezin dut hemen kontatu. Joek berak barkatu egin badio, hobe beste haren izena isildu eta kontua bere horretan uztea.

Gabon egunean ailegatu zirela diot, duela berrogei urte, eta ailegatu baino ez eta hau -Amerika- beste herri bat eta beste ekandu batzuk zirela, hori, behingoan ikasi zuen. Hori zelan izan

zen konta dezan, aldarte onean harrapatu behar da Joe. Lotsa apur bat ere eragiten dio eta. Haatik, abuztuko giroan barbakoia egin, tomateak prestatu, ogia ebagi eta ardoa zerbitzatu ostean -honezkero berak ez du edaten- litekeena da pasadizo hura berriro kontatzea.

En el aeropuerto fue, dio Joek, gaur bai animaturik, euskaraz ez dakien basko bat etorri delako pozik. Esanda nago. Espainolez egitean euskaraz egiten du. Niri berriz euskaraz kontatu izan dit beti pasadizoa.

Imajinatu egin behar da gero New York aireportua 1964ko Gabon egunean. Mundu guztia pozik, edo pozaren itxurak egiten behinik behin. Dena musu, ondo etorri eta besarkada. Dena zorriona. Edo bestela dena presa. Eta hegaldi batek bestera mundu bat korrika. Ameriketara duten zorrion ofizialeko irribarre hori galdu barik. Eta hizkuntza berria. Joeren bizitzako hirugarrena.

Haatik, Joek pasadizoa kontatzen duenean aireportua hutsik zegoela ematen du. Egon ere, bere arima zegoen hutsik legez. Haatik, aireportuak leporaino beterik egon behar zuen. Eta itxura batean Gabon egun hartan aireportuan ez ze-

goen euskaraz hitz egin zezakeen inor. Hitz egin beharrik, horrelakorik izango ez zutelakoan, konektatu behar zuten hurrengo hegaldiaren datuak zekartzaten. Idatzita. Horixe zen dena. Horrexekin zeharkatu beharko zuten kontinentea ekialdetik mendebaldera.

Hegaldien artean estomagoa hutsik ez ziren joango. Zeozer hartzea erabaki zuten. Zer? Aireportuko kafetegian dena zegoen zehatz idatzita. Dena dela eurei ezagun zitzaien berba bakarra, ostera, 'coffee' berba zen. Prezioaren kontuak egin zituzten, ozta-ozta txanpon solte batzuk baitzekartzaten.

- Nahikoa daukagu, ala? -galde egin zion Joek besteari, bien diruak begiratzuz.

- Baietz uste joat -esan zuen besteak, txanponak zenbatu ostean.

Kafe, eskatu zuten. Izan ere ez dena, inondik ere, ingelesezko 'coffee' horren berdin-berdina, baina ulergarria behintzat badena.

Atera zien ba kafea zerbitzariak, eta astiro ekin zioten, erlojuaren orratzei orduak elkarri josten utziz, ea ba hurrengo hegaldira joateko momentua iristen zen. Haatik, eta kafea astiro

edan arren, halako batean kafea edaten amaitu zuten. Eta orduan zerbitzariak ontziak berriro bete zizkien. Ezer esan barik. Edo zerbait esanda. Baina Joek eta lagunak ez zuten ingelesez piperrik ere ulertzen.

- Hau dok hau! Eskatu barik ekarri jeuskuek. Badaukagu dirurik hau pageteko? -esan zuten, arduraturik.

Joeren lagunak diruen kontuak egin zituen.

- Bai -esan zuen.

Beraz, lasai hartzea erabaki zuten. Baina ahal zenik eta lasaien hartuta ere amaitu egin zituzten halako batean kafeak. Eta zerbitzaria berriro etorri zen. Eta hantxe ikusi behar izan zuten zelan betetzen zizkien ontziak. Eta ezin ingelesez ezer esan. Ez dugu nahi edo, eskerrik asko edo. Zeozer behintzat.

Elkarri begiratu, kafea dzanga-dzanga hartu eta alde joan ziren. Euren ustez hirugarrena zen kafe hura pagatzeko dirurik ez zeukatelako.

Bere bizi osoan inoiz lehenago inon zorrik utzi ez eta gero ere inoiz utziko ez zuen gizona -Jose, Joe- pagatu barik alde egiten zuelakoan bizi izan zen denbora batez. Ameriketako kafea behin or-

daindu eta gero nahi adina bider zerbitzatzen dutela ikasi artean. Ordurako mendietan artzain zebilen. Tartean, errudun kontzientzia zorrotz batek zigorturik bizi izan zen, orain pasadizoa kontatzen duenetan barre egiten duen arren.

Pasadizo hark Joserren garunetan kode berri bat instalatu zuen. Hura Amerika zen, eta Amerikan amerikarren legez, amerikarren legera, halaxe jokatu behar zen. Kodea ikasi behar zen, ostera.

Lege onean onartu zuen erronka berria. Mendian denbora bat egin zuen, eta han hiru hartz hil zituen. Otsoak, diost berak, Bizkaiko herrieta-ko tradizioan horixe baita hartzari ematen zion izena. Otsoa.

Menditik herrira etorri zen Jose, ordurako Joe bihurtuta, eta hiri hau kasino ziztrin batzuen lekua izatetik kasino dotoreen hiri bihurrarazten lagundu zuen. Zereginean osasuna galduz. Tartean ezkondu egin zen. Eta horrek erotik lotu zuen hona. Gaur Ameriketako Estatu Batuen bandera ofiziala dauka ate ondoan.

Bandera hori ate ondoan! Kafea pagatu barik uzten zutela uste izan zuen Joserren lehenengo

egun hartatik hona igaro diren berrogei urteotan egungo Joek egin duen bidea markatzen du bandera hori hor izateak. Joek hiri hau eraikitzeko lanetan utzi du osasunaren parte handi bat. Basko amerikanoa da orain.

Eta fencean txori piloa jagok esaten didanean, txori horiek ez direla galeperrak, kuilak baino, horixe datorkit burura. Gero, autoa hartu eta Joeren etxetik joatean, katolikoek kanposantua hortxe behean duela ikusten dut. Eta Joe igandero mezatara joaten dela gogoratzen zait.

2005

Indiarren Idaho

Autobuseko leihatilatik begiraturik Idahoko ingurumena liburuetan definitzen duten bezalako ageri zaigu. Mendietako maldak uhinetan atondurik elkarren segidan doaz eta, horietan labai-nean bezala, horra behealdeetan haranak; haranotan zuhaitz ilarak txiki ikusten dira, baina erreka eta errekastoak hortxe direla salatzen bezain handi; hurrenean mendi gailur gorak, biribilan. Biribil horretako gunetako bat dugu orain bere maldetan gora goazen mendate hau. Honen aldatsa hain pisu egiten zaio autobusari ze, oinez goazela dirudi. Hemen barruan hiru ordu, lau, agian bost daroaguz eta, bat-batean taldea kantuan hasi da. Ezin parajerik ederragotan.

NI MI PUI ALA NEZ PERCE?

Bide ertzeko seinale batek diosku; White Bird Canyon inguruan gara. Han behean, haranean,

zaldizko hainbat, filmetako indioak bezala, ilaran. Izan ere, Ni Mi Pui edo, beste izen batez, Nez Perce indiarrak dira. Egun berezi bat ospatzen ari dira. Hain zuzen ere, XIX. mendean AEBen aurkako gerran izaniko garaitza. Hau ostera, ge-roago jakingo duguna da.

White Birdeko gailurraren ostean ordoki orlegia ageri zaigu. Arratsaldeko bostak dira. Iritsi gara. Lapwai herria da. Nez Perce izeneko erre-serbaren barruan dagoen handiena da. Hiriburu-a, nolabait esan.

Erreserbaren izen ofiziala Nez Perce bada ere, Ni Mi Pui da tribu edo herriaren izen zaharra. Jatorrizko izena da, hemengoan hizkuntzan; beste-a frantsesetik dator-eta, Sudur Zulatuak edo litzateke. Lehenengo izena, Ni Mi Pui alegia, gehiagotan adituko dugu Nez Perce baino.

Nolanahi ere, izenena, beste kontu gehienak bezala, batez bestekoan ezezaguna zaigu talde-kooi. Ez den-denei, hala ere.

Hona gatozen taldean osagarri bi gaude. Batetik, bagara adineko bost bidazti -nolabait esan-, antolatzaile biez gainera; bestetik, Duran-goko Kriskitin dantza taldeko kideak dira, hango

zinegotzi batek lagundurik datozenak. Bada, Kriskitin taldeko batek, Jone izeneko neskak, indiarrekin zaletasuna du-eta, eskuko ekipaia hortxe ekarri du historia ofizialeko Ni Mi Pui eza-gunenaren liburua. Gazteleraz, *Eramos como el ciervo* du izena. Liburuan Chief Joseph (1840-1904) buruzagi ospetsuaren testigantza dago bildurik. Bada, lekuak izena zein ere duen gaur egun, Joseph horren sorterrira iritsi gara. Hiru egunez eta hiru gauzez bertan emango digute aterpe.

MEDIKUNTZAN IZENA DUEN HERRIA

Horra hor parke antzeko zuhaitzi ederra, tantaiekin. Taldekoek autobusetik kalejiran bezala irtetea erabaki dute, alegia, txistuaren doinuaz lagundurik denok ilaran. Horrela, belardian paraturik dagoen mahaiaren inguruan biribil kasik itxia osatu dugu. Harrera egiten digutenek itxi dute zirkulua; gizonezko hiru dira, hirurak morroskoak, hirurak irribarretsu. Mahaiaren gai-

nean adar-multzo itzelak daude. Piztien adakerak.

Lehenik Nez Perce Tribal Turismo delakoaren arduradun Farran Penneyk egin digu berba. Ni Mi Pui hitzaren esangura Lurreko Herria dela esan digu, eta jarraitu du esanez indio nazioen artean Ni Mi Pui honek izena baduela, medikuntzan nabarmentzen baita, eta bisitari asko etorri izaten dela hona, munduko bazterretatik, eta gu geu ere ongi etorriak garela diosku azkenean.

Ondoren harrera-taldeko beste batek hitz egin digu. Virgil Holt da, WildLife edo Basa Bizitzaren arduraduna. Irria ezpainetan, mahaian diren adakerak zein animaliaarenak diren ba ote dakigun galdetu digu, eta guk elkarri begiratu ondoren ezetz erantzun. Adakera handiena hartu du. Bere besoak zabaldurik bezain zabala da adakera. Ehizatu berri den elk batenak direla, halaxe diosku -delako elk hori europar altzea litzateke-. Galderarik? Bai, ea nork ehizatu duen.

Galderak poza eragin dio. Ehiztariak sei ordu eta erdi behar izan dituela, eta 30 kalibreko erri-flea erabili duela eta, hona bere ustez guretzat

ustekabekoa dena!, emakumezko batek ehizatua dela dio.

Altzea emakumezko batek ehizatua dela jakiteak gugan eragin duen harriduraz pozik, tarte bat utzi digu, adakerak eskurik esku pasa diezakiogun elkarri. Argazki kamerek lanari ekin diote. Amaitu denean izokinak arrantzatzeke tresnak erakutsi dizkigu. Hortxe egon dira, lehen-lehenengotik zuhaitz baten parean, baina guk ikusi ez, hain deigarri egin zaizkigun adar multzoak. Salabardoa, guk Mundakan txistea deritzoguna, edo gakoa, gurean gure uretakoak arrantzatzeke erabiltzen direnen berdinak dira izokina arrantzatzeke erabiltzen direnak.

Labur, Virgil Holt hemengo Basa Bizitzaren arduradunak bere herria ehiztaria eta arrantzailea dela esan gura izan digu. Bestela, erakutsi nahi digutena erakutsiko dutela pentsatu dut. Hiru egunen buruan nire iritzi horretan ez dudala huts egin, halaxe esan ahal izango dut. Hurrengo etorri direnek nire iritzian sendotu baino ez naute egin.

Bere erakustaldia amaiturik, Virgil Holt-ek gazteen liderrak aurkeztu dizkigu. Adinez ez dirudite gazteak. Geroago azaldu digunez, adinak ez du ezer esan nahi. Tati da, Brooklingoa.

Tatik diskurtso labur bezain ustekabekoa egin du. Estatu Batuen indarra munduan ez omen dator azken mendeotan zuriak egin dutenaren ondorioz, lehenagotik hemen zegoen aberastasunetik baino. Ulertu diodanez, hemen kausitu zutenari esker eraiki ahal izan dute, eraiki ere, Inperioa zuriak. Inperioaren sustraiak, indiarren garaian sakon! Begira geratu zaigu, irriak aurpegia argitzen diola. Azaldu digun teoria niretzat behintzat zein harrigarri den ohartu den ez den ohartu, hariz aldatu du Tatic. Panderoa ikusi du, eta jotzeko eskatu. Kriskitin taldekoek dantza egin dute. Fandangoa eta arin-arina.

Gure musikak parkean diren beste bakanen begiradak erakarri dituen arren, ez da inor gure inguru-ingurura hurreratu. Amaitu denean txalo egin dute, hala ere, urrundik. Une batez tribuko burua ematen duenarekin lotu naiz, hizketan.

Koiotearengandik ikasi behar izan dutela diost. «Amildegiaeren ertzean egonik jakin egin behar zein pausoa eman. Atzerako ala aurrerako pausoa? Bizirauteko eman behar den pausoa, horixe da egin behar dena».

Koiotea, txikitatik filmetan eta komikietan indioen ohiturei loturik ezagutu dugun animalia. Renon muinoetaraino inguratzen zena. Hori eta gehiago dena. Hemen berton ere sakratutzat aipatua, geroago jakingo dudanez. Interesgarria amildegiaeren ertzean egonik pausoa nora egin eta koiotearen hori dena. Orain ostera beste batzuk dira gure premiak. Bada, non lo egin behar dugun erakutsiko digutenak eta gure premiez arduratuko direnak aurkeztu dizkigute. Farran Penney eta Stacia Green neskak, tribuaren turismo bulegokoak.

Neska-mutilen klubera gidatu gaituzte. Berton egin beharko dugu hiru gau, behearen gainean lo-zakuetan lo. Gela handi bat mahai jokoekin, beste bat ordenagailuekin eta hirugarren bat liburutegi gisa, nork bere lekua nolabaiteko askatasun sentrazioaz hautatu ahal izateko beste dira. Horiez gainera zaindarien bulegoa

eta beste gela bi dira. Eraikinari itsatsita kiroldegia dago. Nahikoa ateetako bat zabaltzea hor sartzeko.

OK! Goiz da. Ibaira joan nahi dugunentz, eta baietz guk. Bero sargoria dago. Lehorra.

Ibaiak Clearwater du izena. Horrek atoaan Creedence Clearwater Revival ekarri dit gogora. Zer dugun imajinarioan, zein den gure backgrounda, horrelakoxe irudi-loturetan antzematzen da. Bestela Clearwater Urederra edo Urgardena da-eta, ibia egon ere halaxe dago; garden. Uraren tenperatura, ostera, ez dago izenean idatzita. Hain hotz dago ze, gutariko inork ezin izango du hamar segundotik gora egin hor barruan. Uretan sartzean hotzak eragiten dizkigun aldarriek eta barre antzuek algara sortzen dute bertan diren Ni Mi Puiengan. Gehienak haurrak dira, baina badira emakumezko gazte bi ere. Salbaia onaren irudia ematen dute, eta ez dut uste nire ustearen eragilea indiarren gainean dudan aurreiritzia denik. Izan ere, horixe da uxatzen saiatu naizena. Aurreiritzi oro. Backgrounda eta imajinarioa hor daude, ostera.

TIPIA, ETXE TTIPI HANDIA

Ez dugu txarto lo egin, behearen gainean lo-zakuetan sartuta. Bada, jaiki, lo-zakuak bildu, gosaria geure artean prestatu eta, oro har, kanpamenduan bageunde moduko zereginetan sartu gara. Bitartean eguzkiak gure ate aurreraino dakar bere argitasuna. Beste inoiz baino kuttunago sentitzen den argitasuna, zinez. Hemen, Idahon, zerutik gertuago gaudelako, beharbada. Halaxe ikusi dut nik neuk, kanpora egin dugunean. Autobusean sartzeko. Atzo abisatu moduan, *tipi* delakoa zelan atontzen den ikustera garamatzate.

Orain dugu aukera atzo iluntzean lehenengoz ikusi genuen Lapwai honen itxuraz hobeto jabetzeko. Lapwai, zurezko etxeek osatzen dute, baina bada porlanezko bat edo beste ere. Hala-koak erakunde edo leku ofizialak dira, adibidez, nahikoa delarik gau eman duguneko gazteen kluba. Hemen ez dagoena amerindiarren bizileku tipikoa -tipia!- da. Eta hain zuzen ere, horietako bat nola atondu erakustera garamatzate.

Paradoxa? Indiarra izateari etekina atera behar zaio, turismoaren aldetik behintzat. Hala ere, hemen geu gara ikuskizuna. Autobusean gurekin datorren Stacia emakumezko gaztearentzat ez ezik aurrerantzean ikusiko dugun beste askorentzat ere.

Autobusak Clearwater ibaiaren ukalondo batego muinoan utzi gaitu. Bakardadea, isiltasuna eta argitasuna, eta laster beroa. Inguruan abuztuak benetan dirudi agorrila. Hala bada, eskertu egiten da hortxe dagoen Visitors Center and Museum delakora bisita egitera.

Salgai diren liburuen artean begira ikusi naularik, Staciak bat gomendatu dit. Liburu mardula da, *Hear me, my chiefs* titulua duena. Hortxe utzi dut. Berriz, turistentzako oroigarrien artean osteratxo bat egin ostean, kanpora joan gara.

Irria ezpainetan, sonbreirua buruan, ilea horren azpitik behera leporaino luze, zain dugu Keven Peters, National Park Services delakoan lan egiten duena. Tipia nola atondu erakutsiko digu. Horretan, ustekabeko handirik ez, azken batean hori ez baitago denok gutxi gorabehera

osetzen dakigun kanpin dendatik urrun. Haatik, Kevenek logika zehatz batekin atondu du tipia. Alegia, delako tipia gizakiaren gorputzari alderatuz. Alderaketak sakonean dakarren filosofiaz landa ere, ez da oroitzeko modu txarra. Ezta ere oharrak idaztea. Hona horietako batzuk.

Lautadetako etxea, harat-honat aldean eroatekoa. Halaxe definitu ahal da tipia. Kanpindenda taxukoa, izan da antzekorik European eta Asian ere azken izotzaldiaren ostetik hona. Nolanahi ere, Ipar Ameriketako indiarrenak dira ospetsuenak, XX. mendeko zinemagintzari esker, besteak beste.

Gainerako denda konikoen aldean tipiak badiu bere bereizgarriak. Asimetrikoa da, hasteko; alde luzeena haizeak jotzen duen aldera begiratu; goialdea, berriz, keari irtenbidea emateko moduan zabaldu ahal da, berdinean esan daitezkeelarik behealdeari buruzkoan; udako beroaldietan tipiaren barrena igo eta barrualdea egurasten utzi ahal da. Beraz, urte osorako bizilekua da tipia.

Tipiari esangura sakona ematen diote hala-koetan bizi direnek. Behearen gaina Lurra da,

gora altxatzen diren oihalak Zeruairen irudia dira eta, azkenik, horiei eusten dieten habetxoak Izpirituaren mundura gidatzen duten Bideak dirateke.

Agian arrazoi praktiko hutsengatik, tipiaren sarrera ekialdera begira jarri behar da. Ekialdera begira jartzen zen, halaber, tipien multzo biribil handietako sarrera, halakoak egiten ziren garaietan behinik behin.

Esku zereginean trebatuek ordubete behar omen dute tipia bera eta barrukoa dena ondo atontzeko, eta minutu batzuk baino ez kendu eta biltzeko. Horren ardura, tipiaren gaineko beste dena legez, emakumeena izaten zen.

Noski, denok nahi dugu tipiaren inguruan argazkiak atera. Horretan jardun ostean, berriz, muinoko maldetako batean dagoen hilerria egin zait deigarri. Hona agertu ziren lehenengo misiolari presbiterianoen hilerria da. Ikusten dudana halako bigarrena da, bertan iluntzean beste baten barruan paseoan ibili bainintzen, Lapwai herrian bertan. Biak ere txukun, zaindurik eta ezertan ere bortxatu gabe daude. Misiolariak etorri ziren, bai, eta harrezkero ezin esan leku hau zero

bihurtu zenik. Adibidea, Staciak gomendatu didan liburua. Visitors Center and Museum barrura itzuli, hura erosi eta aurrerantzean tarteka irakurriz jakingo dudana da hori. *Zeruarena*, alegia. Misiolariek zerua ekarri zutenentz, liburuko pasarte bat laburtuz erantzun ahal da. Hain zuzen ere, Visitors Center eta Museoaren ondoko hilerrian dagoen Henry Spalding eta beronen familiakoen historia laburtuz.

LEHEN INPRENTA

Henry Spalding izan zen Idahon inprenta erabil-tzen lehena. Biblia osoa inprimatu nahi izan omen zuen-eta, nahiz eta azkenean asmoa erabat gauzatu ez, izenari tartea egiten zaio Idaho estatuaren historia liburuetan. Baita Ni Mi Pui herriaren ahozko tradizioan ere.

Henry eta emaztea, Eliza, misiolari bilakatu ziren. Lehenik Walla Walla inguruan ibili ziren misioetan (egungo Washington estatuan). Han Marcus eta Narcissa Whitman bikotearekin bat eginda, Clearwater River ibaiaren inguru honeta-

ra etorri ziren. Marcus eta Narcissa Whitman Cayuse indioen artean geratu zirelarik, Henry eta Eliza Ni Mi Pui herrian sartu ziren. Azaroaren 2an izan zen horien lehenengo eguna hemen. Misio-lariak, indioen laguntzaz, misioa eraiki zuten, egun Bisitarien Zentroa eta Museoa diren lekuan. Hain zuzen ere, misioa eraiki aurretiko denboran indioek eurek eman zieten aterpe, indioek eman zieten jaten, indioek eman zieten behar izan zuten gainerako guztia.

Behin misioa eraikita, eta harekin batera zerratokia eta harea ateratzeko hobia zabaldurik, predikazioari ekin zion. Beste kontu bat da indioei letra larrizko Hitza predikatzen zien aldi berean ematen zien tratua. Zartailua eta urkamen-dia erabili zituen zigor-bidetzat, harako jainko haren izenean erabili ere

Bere *Hear me, my chiefs -Adi niri, ene buruzagiok!*- liburuan L.V. McWhorter idazleak dioenez, Ni Mi Pui haiei ulergaitz zitzaien jainko berri haren mezua. Ahalegindu omen ziren ulertzen, baina ezin. Ni Mi Pui indioen erlijio zaharra itxuraz sinpleagoa baina bere sakonean askeagoa

zen, asegarriagoa. Jainko mendeku-zalerik, zertarako?

Nolanahi ere, garai hartan, Ni Mi Pui enborrekoekin batera, baziren hemen Cayuse izenekoak. Hauek antza estuago hartu zuten jainko berriarena eta haren gurtzaileena. Halako batean Cayuseek Marcus eta Narcissa Whitman hil zituzten. Hori zela-eta, ikaraturik, Henry Spaldingek eta emazte Elizak alde egin zuten. 1847an izan zen ihesaldia. Hil, berriz, 1874an hil zen Henry hura, Ni Mi Puien artera Bibliako jainko suminkorraren berri ekarri nahi izan zuen gizona, historia liburuetan inprenta sartu zuela-eta Ameriketako Estatu Batuei buruzko liburu zurietan gizon handiaren itxuraz ageri dena.

Horraino oraingoz liburuia. Horri buruz esan egilea, Lucullus Virgil McWhorter, 1860an jaio zela, egungo West Virginian, eta 1903an Washington estatura joan zela, Yamika indio-herriarekin bizitzera; 1940an liburu garrantzitsua idatzi zuen; *Yellow Wolf: His Own Story (Otso Horia, bere bizitza berak kontatua)*. Otso Horiak 1877ko Nez Perce Gerra izenekoan parte hartu zuen eta, horra liburuaren garrantziaren funtsa.

Ni Mi Pui herriaren historia ezagutzeko ezinbesteko ei da. Ezinbestekoa den beste liburua, *Hear me, my chiefs*, Lucullus Virgil McWhorterren semeak argitaratu zuen, 1952an, egilea bera 1944an hil baitzen.

Bada, lan handiokin lagundurik nahiz horiek gabe jende hauei buruz hiru egunean ikas daitekeena ez da lar. Honetaz behingoan jabeturik, zentzumenen bidez harrapatu ahal dena irentsi behar dugula erabaki dugu; den-denok, oso oker ez banago. Turistak gara, ostera, eta turismo gida eskaintzen digute.

OTSOAK

Inguruotan aspaldi desagertua den tipia nola atontzen den erakutsi ostean, kasik desagertua den beste zerbait erakutsi nahi izan digute; otsoak. Bada, otsoak berreskuratzeko lekura eroan gaituzte.

Wolf Education and Research Center -Otsoei buruzko Heziketa eta Ikerketa Lekua- delakoak hogeitakreko azalera du. Horietako hogeitahesiz

itxiak dira, otsoak euron habitat naturalean bizi daitezten. Horraino eroan gaituzte. Hunkimenez, isil-isilik joan gara. Alferrik, dena dela, ze iritsi ere iritsi gara bai, otso eritu batzuk zaintzen dituzteneko leku hesitu horren aurrera, eta hortxe egon gara, zain; animaliek ez dute burua erakutsi, ostera. Beroagatik, dio gure gidariak, halako sargoria dago eta. Hala eta guztiz ere interesgarria izan da lekua bisitatzea.

Gure gidariak -gizon zuri tipiko topikoa da bera; ilegorria, oreztaduna- behin eta berriro esan digunez, ez dugu zertan otsoak maite, errespetatu egin baino. Baliozkoak direlako errespetatu, hain zuzen. Haren hitzetan, otsoak gizakiari dion beldurra handiago da gizaki gehienok hari dioguna baino. Dioenez, otsoek ez dute kalte nabarmenik eragiten ganaduen artean eta, garrantzizkoa dena, ez ei diote inoiz gizakiari eraso egiten.

Ehiztarien paradisetakoa den Idahon otsoen alde egitea bekatu larritzat du batek baino gehiagok. Askok. Zuriek, kasik guztiek. Ez dakit horiei muturretan emateko ez ote den animalioek zaintzearena. Pentsa litekeena da horien zaun-

kek iraganeko bizimoduaren oihartzuna dakarkiela. Tipiak bezalaxe. Ze, zer geratzen zaie, iraganetik, hemen? Ingurumena. Ibaiak batez ere.

Atzo Clearwater ezagutu genuen. Urederra litzatekeena. Gaur leku sekretuago batera eroango gaituzte. Salmon River edo Izokinen Ibaia delakora. Sarbidea inork gutxik ezagutzen duen lekura. Gidari Justin Gould dugu eta, zorionekoak gu.

IPUIN KONTALARIA

Zorionekoak gu, Justin Gould ezagutu baitugu. Hori ezagutu baino lehen ezagutu dugu Ana Calkins, begiak esmeralden koloreko dituenena. Hain berde, hain *europar* ze, galde egin behar izan diot ea Ni Mi Pui den. Baietz, eta gurasoetako bat indiarra izateaz gainera berton sortua eta hazia delako dela Ni Mi Pui, halaxe diost. Harrigarriagoa izan da izena Winter -Negua- duen neskatoaren kasua. Ama afrikar-amerikarra eta aita indiarra duela esan dit, lañotasunez, berak behintzat 'afrikar-amerikar' horretan zuzentasun poli-

tikoaren zama ez duela erakutsiz. Oraindik ez da ohartu bere larruazalaren *afrikar* zera zoragarriaz. Koloreaz? Justin Gould ezagutu berriaren tema nagusietakoaren adierazgarri dira neska biak. Tema zein den esan aurretik, oster, Justinek bere herriaren ipuin tradizional batzuk aletu dizkigu, lehen eguneko zuhaitziko gerizpean.

Ez da samurra izan behar ipuinak kasik esaldirik esaldi etenak eginez kontatzea. Haatik, itzulpena ezinbestez behar dugu. Horixe egiten du New Yorken jaioa den eta antolatzaile etorri den Michellek -beste antolatzailea Jasone da-, tarteka. Halako tartetean Justinek gora begiratzten du, pittin bat argoi, begiak betaurreko ilunen azpian eta eskuak belaunetan pausaturik. Hurrengo etorriko den esaldiak ihes egin ez diezaion berre barruari adi dagoela dirudi.

Justinen ipuinetan munduaren sorrera dago, eta animalien nagusigoa, eta euren arteko borroka, eta gizakien etorrera, eta oraingo hondamena. Eta ipuinak amaitzean formula zoragarria beti. «Zazpi dira zuhaitz motak; ikus! Zazpiak dira zein bere lekuan mendian, diodana egia den

bezala». Horren ondoren koiotearena kontatu digu. Hona:

«Behin Sortzaileak munduan ziren izakiei batzarrera deitu zien, garrantzizko berriak eman behar zizkiela-eta. Munduan ziren izakien artean zereginak berriro banatu behar zituen, antza.

«Koiotek, koiote izatez nekaturik, hots, beti gauez ibiltzeaz eta gaiztakeriaz ibiltzeaz gogait eginik, batzar lekura beste inor baino lehenago agertu gura izan zuen. Egun bat lehenago hain zuzen, Sortzaileak banatu behar zituen artean besteek baino lehen berak hautatu ahalko zuelakoan horrela.

«Bada, batzarraren lekura iritsi zen Koiote, eta besteak etor zitezten hantxe itxaron.

«Itxaron eta itxaron, Koioteri logura egin zitzaion. Hala da ze, loak har ez zezan betazalak zabalik izan beharko zituela-eta, zotzez eutsi zien, eta halaxe, begiak zabal-zabalik, batzarrera etortzeko ziren besteak bildu arte itxaron zuen. Haatik, loak berdin-berdin hartu zuen Koiote.

«Bildu ziren beste izaki denak, agertu zen Sortzailea eta, denak begi zabalik izatean denak

adi zeudelakoan, hitz egin zien. Izaki berri bat etortzekoa zela esan ostean, munduan betetzeko ziren zereginak berriro banatu zituen. Koiotek, begiak zabal-zabalik baina lo, ez zuen deus ere esan.

«Itzartu zenean batzarraren lekuan ez zegoen inor. Zer jazo ote zen, zalantzan, batzarra eginda ala artean egin gabe zegoen lotu zen, harik eta azeriak -Lukik!- dena argitu zion arte. Batzarra egin, egin zela, eta izaki denak han izan zirela, eta koiotea begiak zabal-zabalik egon zenez denek itzarturik zegoela pentsatu zutela, eta hitz egin ez zuenez Sortzailek hari esandakoa ontzat eman zuela dudarik izan ez zutela, halaxe esan zion Lukik Koioteri.

«Berari Sortzaileak zein zeregin eman zion galdetu zuen Koiotek, eta koiotea izaten segitzeko zeregina eman ziola argitu zion Lukik. Beste inori eman gabeko zeregin bakarra horixe baitzen; koiotea izatea.

«Bada, Koiotek koiote izaten segitu zuen, hots, gauetz ibiltzen eta gaiztakeriak egiten. Horrela, Koiotek gidatu zuen mundura Sortzailek

agindu zuen izaki berria; gizakia. Munduaren hondamendia!».

Liluraturik, galde egin diot Justin Gouldi ea idatzirik dituen azaldu dizkigun ipuinak.

- Idatziz gero ahaztu egiten da! -erantzun dit.

Hori beste noizbait entzunda nago. Horrek zalantzaren arantza barruraino sartu dit; bidaia-ri buruz ezer idatzi beharko ote nukeen, ala dena niretzat gorde, eta gero tarteka-tarteka gogoratu.

ILEAK BATURIK

Justin Gould gizon isila da. Bada, paradoxikoa ematen duen arren, gogoko du hitz egitea, eta egin egiten du. Zuhurra da, ostera. Soka luzatu behar zaiola esan nahi dut. Ipuinen egunaren ostekoan Clark & Lewis Center delakora lagundu gaituelarik, lekuari buruz duen iritzia galdetzeko modua izan dut. Gogoko duela erantzun dit. Bada, neuk ere gogotsu ekin diot lekua ezagutzeari.

Batetik, eraikin nagusi bat dago, bere areto handi, denda, bulego eta halakoekin; kanpoan, bestetik, Clark & Lewis haien espedizioa hona iritsi zenean kausitu zutena gogorarazi nahi duten eskulturak eta irudiak daude. Horien bidez hemengo fauna eta flora,

Clark & Lewis izan zirenei buruz beste atal idatzia gogoratu, horien izena duen leku honek «kultura bik elkarrekin kontaktua egin zuteneko» unea gogorarazi nahi omen duela eta, helburu horri begiratzeko leku egokian dago. Non eta Snake River izenekoaren ertzean, Lewiston hirian. Ez dakidana da «kultura bik elkar ezagutu zutenekoa» delako ideia oso ideia zuzena den. Ikusgai paratu dituzten eskulturetan eta irudietan eurretan dago argi nire zalantzaren arrazoa. Bata bere etxean zegoen, eta bestea ate joka etorri zen, horraino dena zuzen. Ate joka etorri zen kulturakoak, a zelako armekin etorri ziren, oster. Baina Justin bezalako batek indiarren irudia egokiro azaldurik dagoela baderitzo, nagoen isilik. Haren iritziei errespetu izateko beste motibo bat emango dit-eta autobusean.

Idaho estatuaren historia ezagutu guran nagoela jakinik, bidaiaren arduradun Michellek bart liburutxo bat luzatu zidan, Gazteen Klubeko apaletatik hartua. Hemengo ikastetxeetan erabiltzen den Idahoren historia liburua, galde erantzunen bidez osatua. Bada, horixe irakurtzen nagoelarik Justinen begirada harrapatu dut.

- Liburu eskasa -esan dit.

Arraioa! Ezta telepatiaz ere. Horixe berori pentsatu dut segundo bat lehenago, Napoleon Bonaparteri liburuan *Errege* irizten zaiola irakurtzean. Hutsaren hurrengoa hori, segundo erdi geroago irakurri dudanaren aldean; Ameriketako Estatu Batuek ozeano bien arteko lurraldeak bere mendeko egiteko «kanpoko beste country batzuekin gerran sartu behar izan zutela» dio liburuak. Lurraldeotan antzinate bizi zirenak, ezta aipatu ere. Justini *Her me, my chiefs* liburua erakutsi diot.

- Oso ondo -esan dit.

Idahoren historia, eskolakoa, bere apalategira joango da. Autobusetik jaitsi bezain laster. Birtartean Justinek eta biok elkarrekin hitz egiteko aitzakia izan dugu.

Esan moduan, isila da Justin. Galdetu egin behar zaio. Bera kabuz esan duen bakararra, Joseph ospetsua militar trebea izan zelakoa eta hori dena ipuina dela.

Liburua seinalatu eta aldi berean esan dit, begira ezak hor! Ba, begiratu behar dut, begiratu behar dudanez. Bitartean bera, Michelle eta hirurok hartaz eta hontaz hizketan joan garelarik, Kriskitin taldekoek erregua egin digute Michelleri eta bioi. Autobusean diren -edo garengehienok ezin duguna egin gabe utzi. Honezkerro, ez. Ezin da gorde. Galdera Ni Mi Pui adineko gehienek erakusten duten ilearen luzeraz da.

Oso oker ez banago galdera nor sortu zitzaigun-eta, Salmon River hartan. Hain zuzen ere ikustean Justin uretan zelan sartu zen -praka eta guzti-, eta zelan egon zen han geldi uretan eta gero kanpora irtenda zelan egon zen bere adats ikatz koloreko luzea eskuez orrazten, prakak aldean jantzita sikatzen zitzaizkion artean. Adats ileaz harro? Hori baino sakonagokoa zirudien kontuak.

Bada, gaur, azkenean ere, Zer dela eta ilea hain luze, Justin?, galde egin dio Michellek. Beste

denon izenean galdetu ere. Justinen erantzuna hurrengoa izan da:

- Ez da ile alerik galdu behar, ahal dela. Jaus-ten zaizkigunak bildu egin behar dira, eta zakuto batean sartu. Berdin egin behar da mozten direnekin. Zakutura. Honela, bizialdi honen luzean zakutoa betez joango gara, harik eta hil arte. Hildakoan zakutoa burkoaren zereginean jarriko digute, buruaren atsedentzako. Eta norberaren bizitzako ile denak hor egonez gero, bakea norberaren izpirituak. Bestela, izpirituak ileak non diren ibili beharko du, bila, denak baturik bakea izan arte. Eta bitartean norberaren izpirituak bakerik ez.

Azalpenari «Ameslarien kultura» iritzi izan zaien harako haren kutsua hartu diot, nire ezjakintasunean. Baina Justin Goulden tema, edo obsesioa, aipatu beharko nuela esan dut eta, hona hori zertan den.

Ilearen zergatiaz azalpena egin ondoren Justin isilik geratu da. Tarte baten ostean Michelleri hasi zaio hizketan. Indiarren geroaz, odol garbitasunaz. Hiru mila bat dira Ni Mi Pui herrikoak, horietako ehun eta berrogeita hamar bat izanik

beren jatorrizko hizkuntza menderatzen dutenak. Bada, Ni Mi Pui herria, hilzorian den herria! Antzinako lurrak galdurik, hizkuntzaz arrozturik, odola nahasturik -oi, Winter, afro-amerikar Ni Mi Pui haren larruaren ederra; oi Ana Calkinsen kaukasiar begidun Ni Mi Pui blonda- nork esan ahalko du «hemen bada herri bat», «hemen herri bat izan zen» barik? *Hear me, my chiefs!* liburutik historiaren beste pitin bat hona aldatzeko unea da.

INDIOEN IDAHO ZURIEN IDAHO BIHURTURIK

Harako 1803ko hartan AEBetako presidente Thomas Jeffersonek Atlantiko Ozeanoa eta Ozeano Barea lotzeko ahaleginezko bidaia sustatu zuen. Bidaiaren helburua «herrialde honetan barrera urez egin daitekeen biderik laburrena bilatzea, merkataritzaren hobekuntzarako» zela aldarrikatu zuen. Hala bada, 1804ko maiatzean, 29 lagunek osaturiko taldea bidean abiatu zen, St. Louisen. Denen buru, presidentearen gizon

bi; Meriwether Lewis eta William Clark kapitainak.

Espedizioak Missouri ibaian gora jo zuen, ipar mendebalderantz. Hala abiatuak, 1804-1805eko negua egungo North Dakotako Bismarck aldean eman zuten. Udaberrian berriro bidean, gidaritzako frantses merkatari bat hartu zuten, izenez Charbonneau zena bera. Honen emaztea, izenez Sacajawea, Shoshone tribuko kidea zen-eta, berori izan ei zen espedizioaren arrakastaren gakotako bat. Emakumea, lehenik beste indiar batzuek bahitua, gero saldua eta azkenik frantzesarekin ezkondua bera, sortzez egungo Idahokoa zenez, sorterriraino bidean gidari izan zuten espedizioak.

Sacajawea denen buru, 1805eko abuztuaren 12an Kontinenteko Banaketa Marra igaro zuten, egungo Idaho eta Montana estatuen artean zegoena bera. Halaxe sartu ziren Shoshone, Salish eta Ni Mi Pui herrien eremuetan. Behin horietan, Ipar-Mendebaldeko Igarobide ospetsu bezain ezezaguna bilatzera jo behar zuten. Eskerrak Ni Mi Pui herria bidean agertu zitzaienta, bestela agur Clark & Lewis espedizioari.

1804ko irailaren 22an espediziokoek hiru gazte ikusi zituzten. Gazteok berriz ihes egin zieten, espediziokoek atzetik segitu eta egungo Nez Perce tribuaren herrira iritsi ziren, Clearwater ibaiaren ertzean. Hemen, batzuen iritzia arrotzei heriotza ematea izan zen. Erraz zeukaten hori gauzatzea. Haatik, bizirik joaten utzi zieten, neguari aurre egiten lagundu ondoren. Nez Perceren legendak dioenez, Wetxuwiss izeneko emakume batek egin zuen haien alde, esanez, bada, behin indio batzuek bera bahitua zutela, eta bahitura hartatik gizon zuriek askatu zutela.

Espediziokoak bideari berriz ekin ziotenean harainokoa erabili izan zituztenak baino kanoa hobeetan ekin zioten. Horiek nola taxutu, Ni Mi Pui haiek erakutsi zieten. Eta, kanoak hobeak zirela gorabehera, Ile Nahasiak izeneko buruzagiak Clearwater ibaian behera eginez Snake River delakora lehenik eta gero hortik Columbia ibaira iritsirik, Ozeano Barerako bidea erakutsi zien mapatxoa eman zien. Ibietan gal ez zitezen.

Urte hartako azaroaren azkenetan espedizioa Ozeano Barera iritsi zen. Erdietsia zuten helburua. Negua han eman ondoren, hurrengo udabe-

rrian itzulerako bideari ekin zioten. Bada, berriro igaro zituztelarik Ni Mi Pui herriaren ibaia, mendi eta zelaiak, berriro izan zuten bertakoen laguntza.

CLARK ETA LEWIS

Clarkek eta Lewisek Ni Mi Pui herriaren laguntzaz zabaldu zuten Ipar-Mendebaldeko bidean gora zabaldu zen izurria. 1840az geroztik kolonoak oldeetan etorri zitzaizkien memoria galtzen deneko denboretatik han bizi zirenei. Ohartu zirenerako, Estatu Batuen barruan zeuden euron ibaiak mendiak haranak lakuak basoak oro. 1846an Estatu Batuek eta Britainia Handiak Oregon konderria zati bitan banandu zuten, 49 paraleloa ardatz. Diogun herriaren jabetzakoak AEBen aldean lotu ziren.

Gozoak ziren Ni Mi Pui herriaren ibaiak mendiak haranak lakuak basoak oro. 1855ean aspaldiko jabeek eta jabe berriek ituna sinatu zuten; aspaldiko jabeek aspaldiko ibai mendi haran laku

baso ororen zatirik handiena uzten zitzaien, baina ez dena.

Ituna sinatu baino ez-eta erreserba haren mapa urrezko artaziez mozteko ahalegina hasi zen. 1860an, Elias Davidson Pierce hura Clearwater ibaiaren inguruan urregorria ustiatzen hasi zenekoan hain zuzen, indiarren aldea murrizteko aldarriak aditu ziren.

DAVIDSON PIERCE

Elias Davidson Pierce, urregorriaren sukarrak jota bizi izan zen gizona, miseria kasik gorrian hil zen. Nork esango zukeen, haren iragana gogoan hartuta..

Indiana aldean jaioa, gaztetan gizona Mexiko eta AEBen arteko gerran zerbitzuan egona eizen. Behin gerra amaiturik, Kaliforniara jo zuen, urregorriaren gosez hain segur. Ez zen ase egin, ez baitzuen eskuratu. Orduan ametsen bidean gorago jotzea erabaki zuen. Mendebaldera, Ozeano Barea muga zituzten lurraldeetara. Eta

halaxe iritsi zen Clearwater ibaira. Ni Mi Pui herriaren Erreserbara, alegia.

Elias Davidson Piercek Kalifornian ezaguturiko mea-mendien taxu bertsua hartu zien Clearwater ibaiaren ingurukoei. Urrea zinez usaintzen ahal zuen. Usainaren pausoetan oinak abiarazteko oztopoa, Erreserbaren barruan mea-ustiaketak debekaturik izatea. Ez indioek ez AEBetako ordezkariak onartu ahal zuten handik urrea ateratzea. Bost horrek Elias Davidson Pierce hari. Urteen buruan bere helburua erdietsi behar zuen.

Ipuin antzekoa da, alegia mingotsenaren parekoa. 1860an, indiar neska batek Ni Mi Pui nazioaren Erreserbako mugarriak saihesten eta ezkutuko bideak erdiesten lagundurik, Elias Davidson Piercek eta beste zenbait gizonak, Clearwater ibaira egin zuten. Hantxe zegoen urregorria.

Urrearen aldarriak erakarrita, 1861ean jende andana sartu zen Ni Mi Pui herriaren Erreserban osterara ere. Indioek eurek ez zeukaten zer eginik, eta zurien gobernuaren ordezkariak astirik edo gogorik ez hura eragozteko. Urte hartantxe

hasia zen Guda Zibilak ez omen zien hartarako astirik uzten.

Makina bat lagun etorrita eta hamaikatxo negozio sorturik, sukartu haientzat hutsaren hurrengoa ziren Ni Mi Pui nazioaren eskubideak. Urrearen sukarraren berotan hiritxoak sortu ziren, hala nola, Oro Fino eta Pierce. Hain zuzen ere, Pierce da Idahoko lehenengo konderriaren hiriburua. Baina hau dena alegia mingotsarenaren parekoa bada, izan ere badenez, zeragatik da, azkenean Elias Davidson Pierce hark antzemandako urre-meak ez zirelako hain aberatsak. Urtebeteren buruan inguru haietara lasterka etorritako zuriak beste bazter batzuetara jo zuten, beste sukarraldi batean. Kaltea eginda zegoen, oster.

ALDE ETA KONTRA

1863an Erreserbari buruzko itun berria sinatu zuten, AEBen ordezkariak eta Ni Mi Pui herriko zenbait buruzagik; ez denek. Zuriak hizkeran esanda, indioen artean *alderdi* bi sortu ziren; itu-

naren aldekoena eta itunaren aurkakoa. Ituna sinatu zutenen artean Lawyer izeneko buruzagi kristautu eta Estatu Batuen aldekoa eta haren jarraitzaileak ziren. Sinatu ez zutenen artean, Buruzagi Joseph Zaharra ospetsua eta beste buruzagi asko. Argitu behar baita Ni Mi Pui herrian ez dagoela piramide taxuko buruzagitarik. Zein adarrak bere buruzagia du, buruzagi denak parekide dira eta, beraz, buruzagion artean da osaturik tribuaren adaburua.

Zuriek ez zuten indiarren barneko egituraketaren gakoa ulertu nahi izan. Buruzagietako 'zenbaitek' sinatuz gero 'denek' sinatu zutela iritzi gura izan zioten. Eta hortxe hasi zen gerraren xendra urratzen. Lau urteren buruan AEBetako gobernuaren armada Ni Mi Pui artean ere askeak erreserba mugatu berriari sartzen ahalegindu zen. Ni Mi Pui herriaren ibai mendi haran laku baso orotaz goza zezaketela -ezen ez jabe izan zitezkeela- uste zuten 'matxinatuek' ez zuten men egin.

Aske segitu zutenen artean zen, esan moduan, Buruzagi Joseph Zaharra. Hau hil zelarik, askoz ere ezagunago izango zen haren seme Bu-

ruzagi Joseph. 1877ko maiatzean Ni Mi Pui askeei ultimatuma helarazi zitzaien. Edo borondatetz erreserbara egin, edo bestela gerra. Ez zuten gerraren hautua egin baina, gerra hantxe etorri zitzaien gainera.

ULTIMATUMA

Maiatza zen. 1877. urtekoa. Erreserbari buruzko azken ituna sinatu gaberik aske bizi ziren Ni Mi Pui haiei ultimatuma helarazi zitzaien. Hilabeteke tarte zuten, ekainaren 14a bitartekoa hain zuzen, esparrura egiteko. Tarte laburregia, bistan zen, beren ganaduak ibai mendi haran laku baso orotan banandurik zituzten haientzat. Onartu egin zuten, hala ere.

Tamalez edo, epea amaitzear zelarik, ekainaren 13an hain zuzen, hiru Ni Mi Pui gaztek kanpamendutik alde egin zuen. Sutan ziren gazteok, lehentxeago gizon zuri batek eurotako baten aita hil baitzuen. Eta ekainaren 4an gazteok lau kolono hil zituzten. Laster beste hamazazpi

gazte bildu zitzaizkien. Egun biren buruan beste hamalau edo hamabost zuri akabatu zuten.

Hantxe ekin zion Oliver G. Howard jeneralak Ni Mi Pui haien bila. Ekainaren 17an begiztatu zituena, White Bird Canyon izenekoan. Hegazti Zurriaren Arroilan. Autobusean pasaeran ikusi genituen indiarrek ikusi genituen lekuan, hain zuzen! Indiar gerrari zenbaitek gehiago egin zion soldaduen multzo handi bati, horietako hogeita hamalaren heriotza eraginez. Ni Mi Pui bakarra ere ez zen hil.

Uztailaren 11n borrokak izan ziren Cottonwood aldean. Eta baita bataila moduko bat ere Clearwater ibaian, 12an. Ez ei ziren erabakigarriak izan. Horien ostean indiar askeek -gizon, emakume eta haur, 750 bat lagun zirenak- Montanara jo zuten, Bele -Crow- indiarren laguntza-aren bila. Bufaloaren ehizan elkarrekin ibiltzen zirenak ziren herri bietakoak. Bada, Bele tribukoak topatu bai, baina zoritxarreko orduan; lagun us-teko haiek eraso egin zieten Ni Mi Pui herrikoei.

Beste hilabete batez Ni Mi Pui herrikoek ihesean segitu zuten. Abuztuaren 9an eta 10ean AEBetako Armadak Big Hole -Zulo Handia- dela-

koan eraso zien. Hildakoak hirurogei eta laurogeita hamar artean izan ziren. Kanadako mugaldea berrogei milaren tartean zeukaten arren, amore eman zuten. Ez zela berriro borrokatuko agindu zuen geratzen ziren apur denen buru-edo egiten zuen Joseph Gaztea buruzagiak, zeina, harrezkero legendara igaro zen, militarren arloko estrategi handienen ospez igaro ere.

SEME-ALABAK HAZTEKO LEKU POLITA

Harrizko edo bestela adreiluzko eraikin gutxi dago Nez Perce erreserbako Lapwai herrixkan. Horietako bat taberna da. Ez joateko gomendatu digute turismo bulegoko emakumezko gazteek. Bada, ni neu joan egin naiz. Barraz beste aldean zerbitzari, horra emakumezko hori; alde hone-tan, hona bikote heterosexual hau. Horiexek eta laurok gara munduan hemen barruan. Garai batean gurean edozein pubetako girokoa izan zite-keen argiztapena, telebista piztuta -golf sporta ematen ari dira-, aldi berean musika ozen eta, hobe ez, tabernako hiru katuen arteko mau as-

pertuak. Hormetan dolarreko billeteak daude itsatsita; denak sinaturik. Benetan pobre direnek, nongoak ere diren, pozaldietan horixe egiten dute; dirua, sinbolikoki, errekarra bota. Munduan edonon. Edo denean. Norberak nahiago duen moduan.

Lapwaiko taberna ez da infernuko zuloa. Halakoaren irudia eman digutenei horren mamua astindu badiete ere. Edo beharbada ez da mamua, baina hain ohituta nago halako lekuetan ze, paradisiko harrera gelan bezala sentitzen naiz. Estatu Batuetako Mendebaldeko beste edozein tokitan bezala, hiru katuek ni nondik natorenen jakin nahi dute. Gure basque countryaren leku geografikoaz azalpenak eginda -egia esan gutxi balio duten azalpenok-, tabernakoek beren zereginari eutsi ahal diote.

Jendeen jarrerak jakingura da nagusi. Nora ere goazen, nondik gatozen galdetzen digute. Halaxe gertatu zaigu lagun biri herriko denda nagusian. Denda denetarikoak saltzen dituzten neurri ertaineko «begira, hauta, bil eta irteeran ordain» horietakoa da. Beraz, norberari inorekin hitz egiteko aukerari zirrikiturik apenas uzten

diotenetarikoa. Hala eta guztiz ere, azkenean derrigorrezko galdera hori egitea eta guk erantzutea, horixe lortu dute emakumezko langile bik. Nongoak garen, eta baskoak, eta eurek barre, eta tratu berezia eman. Gozatu egin dute gure joan-etorriekin, zinez, geu baikara hemen ikuskizuna.

Dendaren inpresioak indioen artean nabarmen denaz ohartarazi digu. Fast food delakoaren garrantzia handia bada ere, hemen jateko orekatsurako behar direnak erosi ahal dira. Baita ardoa ere. Gaitza beste nonbaiten dago, beraz. Agian gazteen klubean nagusi diren portaeretan. Ordenagailuan jokoan diharduten artean soda, kola, freskagarri edo dena delakoaren isuria ahoan -umeak amaren titia legez- sartuta duten gazte horien portaeran. Ur hutsa edaten duenik ez dago hemen inon.

Ez bide da erraza. Ur hutsa edatea, esan nahi da. Ezta ere -gutariko batzuentzat behintzat- kaferik gabe bizitzea. Horren premiak akuilaturik, herriko leku dotoreenetako batean sartu naiz. Hona hemen express kafea, edo kafea express, halaxe egiten duten lekua. Eta gu kafeinomano-

ok horren berri jakin gabe. Albisteak airean hegan egin du eta, hona goizero drogazale talde-txo polit bat, kafearen usain hordituaren bila. Kafea ez da dagoen gozo bakarra. Badira jateko-ak plantxan eginak, eta gustura eginak gainera. Sukaldari, yanki peto-petoa ematen duen gizon gaztea dago; ilegorria, irria haur zoriontsu hezia-rena duena, aurpegia orezta-euri goiztiar batek zipriztindua bera.

Azken goizean, agurraren tenorean, galderen txanda etorri zaio honi ere. Hitz pare bat jaurti du frantsesez, zabalera ateratzen den pilota mo-dura; jaso nik, frantsesez beste hitz batzuk esa-nez. Beroketa izan da. Orduan berak, ingelesera itzulita, niuyortarra dela esan dit. Tanto!

- New Yorketik hona, nola?
- Emaztea indiarra -esan dit.

Tanto!

- Umerik? -nik.
- Lau -diost.

Eta, bolean, pilota horrek nire baitan bote egin baino lehen, txaparen gainera jo du:

- Leku polita, berau, seme-alabak hazteko -halaxe diost.

Zer erantzun?

Berarentzat partida.

Elkarri bostekoa emanda, azken esaldi horrek sakoneko zerbait ulertarazi didalakoan joan naiz.

Autobusa zain dugu. Itzuliko ote gara inoiz berriro hona? Hemen eman ditugunak objektibotasunez hiru gau izan badira ere, niretzat, subjektibotasunez, hiru goiz izan dira. Azken goiz honetan egun argia baino goizago jaiki naiz, orain agur esan behar diegun kaleotan argiaren errugabetasuna arnastera. Inperioaren bazter leku honetan eguzkiak oraindik gizakia agertu barik balego moduan egiten du bere bidea. Horren keinuen artean herritarren etxeak ikusi ditut. Zurezkoak, duinak itxuraz, atarteak, baratzak eta parabolikoa dutenak; denak elkarren antzekoak bai baina, batzuk txukun zaindurik dituzten artean beste batzuek zabarkeriaren kalteak ageri dituzte. Goizeko pasioan porlanezko eraikinak ere hobeto ikusteko era ukan dut. Gobernuaren ordezkariarena da dotoreena.

Horren harira, ohartaraztekoa da izarrak eta barrak dituen bandera zuri-gorri-azul harroa ez dela eraikin horretan izan ezik beste inon ageri.

Hemendik kanpora, berriz, haizea nekatu egiten da zuri-gorri-azuleko hainbeste bandera, banderatzatxo eta banderatzar astintzen. Abertzaletasunaren uhina! Trapuzkoa ote da horren arima?

IZERDI ETXEAN KANTUAN

Agurra gogor egiten zaigu. Azken dantza Kriskitin taldekoek, eta azkenak izango ez diren malakoak denon begietan. Autobusa abiatu denean Ni Mi Pui herri Lapwai honetako lider espiritualahor dugu, autoan, negarrez. Hitz madarikatu, liderra! Baina hitzen esklabo gara denok. Bart gauekoa datorkit gogora.

Bart gauean hitz horixe erabili zuen Brooklyn izeneko gizonak, berak herrian orain duen lekua definitzearren: liderra. Espirituala. Eta hori esan ondoren oparia eskaini zigun. Opari xumea, eta bere xumean ederrena. Bere etxe ondoko Sweat House -Izerdi Etxea- delakoaz gozatu ahal izatea. Batzuek onartu egin genuen.

Saunaren antzekoa da Sweat House delakoa. Etxolatxo itxia, barruan, behe-gainaren erdi-er-

dian, harri goriak uzteko lekutxo bat baduena. Harrion goritasunean zenbait landareren hondarrak uzten direlarik, sortzen den lurrunak horditu egiten du. Sweat Housean luzaroagoan sartuta egon ahala hordi sentrazioa areagotu baino ezin da egin, dena ilun dagoelako ez ezik egonaldia zuzentzen duen Brooklynek hitz egin ostean harekin diren beste indiar bik kantuari ekin diotelako ere. Kantuek diotenaz tutik ere ulertu ez arren, alarauak -halaxe baitirudi ari direla, alarautan- bihotzeko barrunbeetaraino sartzen zaizkigu. Gero -ala lehenago izan da?- desio bana eska dezagun eta errituzko hitz batzuk esan ditzagun eskatu digu, eta ezer eskatzeko gogorik izan ezean errituzkoak berdin esateko. Eskaera biak bete nituen.

Lapwai herrixkan abuztuko gaua agorrileko gau heze eta kasik hotz horietakoa bilakaturik zen Sweat Housean -zorieko izerdia!- bitan sartu ostean gazteen klubera itzuli nintzenean. Nire artean argi neukan; herrian halako lekua izatea, Ameslarien Kultuak bizirik dagoen adierazgarri.

ERRATU EGIN ZIREN

Orain, hiru gau eta hiru goizen buruan, autobusak Ni Mi Pui jatorren Erreserbatik aterako gaitu. Gorputzez, arimaz ez.

Justin Gouldek eman didan azken altxorrari begiratu bat egiteko irrikaz noa. Joseph buruzagiaren leinukoa dela, eta Arrano Beltza buruzagiaren leinukoa ere badela, bertan halaxe esan zidan azken momentuan Justinek. Nik hori kontatzeko eskatu-eta genealogi zuhaitza eginga duela esan berak. «Ala nire seme-alabei nondik datozen argituko ez niola pentsatu duzu?».

Goizean paperik gabe etorri da, ostera. Eta paperak?, galdetu diot. Bila joan da. Paperotan idatzitakoa eskuz kopiatzen hasi naizenean, nire interesaren neurria neurtu du; paperak hartu, nonbaitera joan eta fotokopiatu ekarri dizkit. Bai, Justin munduan den inperio nagusiari aurre egin zioten buruzagi haien ondorengoa da. Garrantzirik badu horrek, ostera? Joseph hura hain militar trebea ez zela esan zuela gogoratu zait. Sinesten diot.

Hona hemeretzigarren mendean etorri ziren zuriak erratu egin ziren -halaxe dio gomendatu didaten liburu hainbatean aipatuak-, hemengoen buruzagitzak-eta beren buruzagitzen eta halakoen berdinak zirela uste izan baitzuten. Baita gerraren arloan ere. Guk, turista antzeko euskaldun harrituok, zerbaitetan susmatu dugu hori ez dela zuzena. Hiru egunez ikusi ditugu elkarren begiak eta begiradak, eta inon idatzi ezin diren sentrazio isilak bizi. Hau idaztean sentrazio horien parte bat airean joaten uzten ari ote naizen sentitzen dut.

Ezin esan izango dut inoiz Idahora egindako bidaia zoriontsua izan denik. Honelako herri bat bere azkenetan ikustean gure herria gogoratu zait eta, bihotzean sentitu dudana haginkada. Ez nukeen bidaia honetaz ezer idatziko, orrialde inprimatu hauek Lapwai herrira helaraztea promes egin izan ez banu.

Pow Wow

Idaho estatua Ameriketako Estatu Batuetako hamahirugarrena da azaleraz, kasik 300.000 kilometro karro baitu. Hain leku zabalean, miloi eta erdi biztanle dira, gehienak zuriak. Eta hala xe esan behar da, zuriak!, estatubatuar mugetan bete behar izaten diren paperetan hitz horixe erabiltzen baitute. Era berean, paperotan «bertoko jatorria» duena legez itzul daitekeena erabiltzen dute. Hirurehun mila kilometro karro horietan bertokoek lau erreserba-gune dituzte. Beste dena zuriena da. Beraz, kolorea versus jatorria jokoan, kolorea nagusi. Arraza, alegia.

Arraza! Inork guri gure burua zuri arrazakotzat dugunentz galdetuz gero, erantzuna ezetz. Ziur. Haatik, hemen erabiltzen diren kontzeptuak ez dira europarrak. Beraz, onar dezagun 'zuri' hitza, hitz egin dezagun argi. Autobusean, Nez Perce erreserbaren mugetatik irten orduko bozketa egin dugu, gure hurrengo destinora jo orduko nora joan goiza pasatzera. Aho batez erabaki dugu Justin Gould lagunak erakutsi zigun

Salmon River-eko bazter hartara joatea. Orain-
goan bera gurekin ez badator ere. Hiru egunean
indiartu egin gara. Estatu hau zuriena da, ostera.
Honen froga, gure hurrengo geralekuan. Coeur
d'Alene deritzon eskualde eta hirigune zabalean.

Salmon River horretatik itzuli eta berriro bu-
sean sartuta lau ordu egin ondoren, iluntzean
Coeur d'Alene herrira iritsi gara. Dantza taldeko-
ek, eta baita nik neuk ere, euren etxeetan hartu-
ko gaituzten familiak ditugu zain. Zuriak dira
denak, eta erlijioz gehienak mormoiak edo bes-
tela baptistak dira, egunak igaro ahala jakingo
dugunez. Familiek hona ekarri gaituen Nazioar-
teko Dantza Jaialdia izango den lekuan hartu gai-
tuzte, hots, Jolas Parkean. Silverwood du izena
parkeak. Zilarraren basoa!

Izena berarekin batera ezin esanguratsuagoa
da Jolas Parkearen taxua. Zuriak mendebaldera-
ko bidean eraiki zituzten zurezko herrixka haie-
tako edozeinen imitazioz egina delarik, «bertoko
jatorriko» ezer ez dago irudikaturik parkean.
Ezta ere Idaho estatuaren ordezkari jardungo

duen dantza taldearen erreperatorioan. Non dira hemengo indiarrek? Erreserbetan, noski. Coeur d'Aleneko Erreserban. Zorionez, asteburu batez indiar multzo zabala biltzekotan da inguruotan. Pow Wow delako baten kariaz, hain zuzen. Dantzatu beharrik ez dugunok horra joatea erabaki dugu. Coeur d'Alene honetara iritsi osteko hirugarren egunean.

Harrigarria bada ere, ez dirudi Pow Wow izena jatorrizkoa denik. Hona iritsi eta bertokoak euron dantzetan eta errituetan ikusi zituzten lehenengo europarrek aditu uste izan zuten izenetik, 'pau wau', eratorria da Pow Wow. Ingelesa ikasi ahala bertokoak onartuz joan diren izena da, beraz, hori.

Izena gora-behera, izatez dantzatzea baino konplexuagoak ziren aspaldiko Pow Wow -onar dezagun hitza- haiek. Batzar askoz konplexuagoak ziren, beren mundu ikuskerari lotua. Hori horrela izanik ere, egungo Pow Wow deritzenak indiarren elkarteratzeak izaten segitzen badute ere, irudi du ardatza dantzak eta musikak direla. Halaxe ikusi dugu Greyhound Park delakora iritsi bezain laster. Guk turistok. Azaletik.

Norbaiti hemengoa zertan den irudi baten bidez *azaldu* beharko banio -*azaldu* aditza *azal* hitzetik eratorria dela gogoan-, hasteko eta behin Aste Nagusia aipatuko nioke. Nahiz eta Greyhound Park izeneko hau kirol-gunea izan. Gurean ohikoak diren holakoen aldean bereizgarri bat behintzat baduen kirol-gunea; ikusleentzako harmailak eraikin estali eta ondo itxi batean daude. Eraikinak, noski, kanpoko joko-zelaira begira du alde nagusia, horrexetarako da-eta goitik behera. Kanpoko ondo ikusteko, baina epeletan egonda. Bada, kanpo horretan atondurik dutenari hartzen zaio Aste Nagusiko txosnetan izaten den giroaren kutsua.

Lehen inpresio horren eraginez kanpora egin dugu, gure lehenengo inpresio arina baino harago joan nahi. Halaxe ikusi ditugu joko-zelaian dantzariak, eta musikariak zelaiko aldeetako batean; ikusleak ostera inguruko harmailetan, eta harmailon atzealdean muino biribil antzekoa; muinoa eta harmailen artean jatekoen eta beste-lakoen saltokiak, eta muinoan bertan luze-zabal barreiatuak tipiak eta karabanak, ene! Kanpin-

leku itzela dute atondurik. Mendebaldeko Pow Wow handienaren neurrikoa.

Honelakoetan lehen sekula egon gabekooi dantzarien jantziak zaizkigu deigarri. Dirdira-tsuak, gehienak ez dira jatorrizko gaiez eginak, plastikoez eta halakoez baino. Koloreak eurak ez dira zuriak kontinentearen alderdi hau zapaldu aurretik zirenak. Menderatua eta bere historiaz gabetua izan den beste orok bezala, hauek ere iragan eta iraganekoak berrasmatu beharra ukan dutela nabaritzen da. Jatorrena, agian, danborrak dira.

Dantzarietako doinua horiexek ematen diete. Taldeka jotzen diren pandero taxuko danbor itzelek. Larruzkoak direnak, jakina. Larrua astintzen dutenek kantatu ere egiten dute-eta, western filmen kultura hazi garenok duda izpirik gabe indiar irizten diogun doinuak betetzen du giroa. Bada, etikaren arloko heziketaren atal nagusietako bat film horietan izan dut-eta, moka-dua lagunekin belartzan jesarrita egin ondoren, urdaila pozik baina bihotza kuzkurturik, tipiek bere goialdea erakusten diguteneko aldera goaz Ina -taldeko kideetako bat- eta biok. Berak ar-

gazkiak atera, nik hara eta hona egin, elkarri mutu begiratzen diogun arren, argi dugu batak eta besteak pentsatzen duguna: indio herrion sufrimendua, ene bada!

Tarteka argazkiak ateratzen goaz, inori argazkiak atera baino lehen baimena eskatuz. Hitz ere egiten dut batarekin edo bestearekin. Oin Beltzen nazioko kide Sooney Little Plane berrogeita hamar urteko gizonak diosdanez, honelako Pow Wow jaialdiak «gero eta hobeak dira, musikari gero eta hobeekin ari direlako».

Guk, bihotzean antropologo bana daroagun euskaldunok, ezin horrekin konformatu. Dantza eta musika ez dira ikuskizun bakarra. Esan bezala, saltoki ugari dago. Batean nahiz bestean, ia denean sarrien ikusten direnak indiarren gaineko irudi estereotipatuez sorturiko gauzatxoak dira, hala nola, belarrikoak eta idunak, orotariko bitxi merkeak, oihal margotuak eta zapi koloretsoak, indioen egunsenti erromantikotartuak, gezien imitazioak, luma benetakoak eta sasikoak, aiztoak, ezertarako ez diren armak, zerrenda hutsal bezain infinituan. Eta infinituan argi izpi bi.

Lehena, saltoki bat, saltzen dituen gauzak ingelesa ez den hizkuntzan idatzirik dituen. Indiar hizkuntzetako batean, jakina. Baina, zenbat dira hizkuntzok? Ez da galdera erantzuten erraza. Zorionez, bigarren argi izpiak horren erantzuna dakar. Izan ere, bigarren argi izpia George Russell eta Saginaw Chippewa jaun-andreen saltokia topatzea izan da. Bikoteak sinaturiko liburua erosi dut *-American Indian Facts of Life*, edo «Amerikar indiarren bizimoduaz», non nire galderentzako erantzun zehatz eta argiak baitira. Adibidez, hortxe dio 1942an, Ipar, Hego eta Ertain Amerika harturik, 500 zirela hemengo hizkuntzak; 150 dira bizirik egun, horietariko 20 Estatu Batuetan.

Liburua erosi diot Russell jaunari, eta baita poster taxuko mapa handia, zeinetan indiarren datuak ageri diren. Gero elkar besarkatu dugu, luzaz, pozez begiak elkarren begietan tinko. Pow Wow hau zein besteak, oraingo merkatu eta folklore hutsa barik, egunen batean beste zerbait izan daitezen badu zereginik Russell jaunak. Jakina, eraldatu beharreko folk merkatuaren horretan gu bezalakook, turistek oro har, badugu

zerikusia. Indioen kitxa erosten dugun heinean. Haatik, indioak eurak dira kitx horren erosle nagusiak, denean ikusten den moduan. Euskaldunok gure Gernikako Arbola edo Picassoren koa-droa kitx bihurtu dugun sindrome berberak jota ote dauden nago.

Baina zer esan, oster, busaren bila kanpora irtenda ikusi dugunaren aurrean. Indiar poliziarren auto bat etorri, gelditu, poliziaz jantzitako gizona batek autotik irten eta, hara!, geure aurrean ekin dio indiar tradizionalaren ohiko lumak eta halakoak janzteari. Hitzordua bide du barruko Pow Wow luzean, haraxe egin baitu.

Pow Wow delakoaren lekutik irtenda busak daude. Ordurik ordu, doan. Hortxe igo gara etorri den lehenengoan Coeur d'Alene hirira doalakoan, erraturik. Ohartu garenerako tribuaren kasinorako bidean goaz. Berrogei bat kilometro dira, baso eta mendi bakartu isiletan barna. Alde ederra Zurién Coeur d'Alene inguruarekin. Kasinoa bera ere ez da Nevadakoak bezain handia, ezta hurrik eman ere. Hala eta guztiz ere, hala-

koren batean inoiz egon gabe daudenak aho zabalik geratu dira. Gaitz zaigu hemen zenbat makina txanpon irensele ote dagoen jotzea. Ehunka, milaka beharbada.

Kasinoetan egin daitekeen osasuntsuena egin dugu; afaldu. Damurik gabe. Gero Idahon dagoenik-eta zerarik atseginenaz gozatu dugu; langile jende arrunten jarrera abegikor eta zabalaz, alegia. Buseko gidariak lo-lekuraino eroan gaitu, bere ohiko bidetik irtenda. Gure berri jakin nahi duelarik, europarrok kontatu ahal izan dizkigunekin ordaindutzat ematen du bere burua, pozik. Gu berriz, are pozago, bestela taxia bilatu beharko baikenuke.

Afaria Idaho Fallsen

Uztailak 25. Azken gaua Coeur d'Alene eskualde honetan. Post Falls herrian hain zuzen. Afaria. Jatekoaren parte bat geuk prestatua, hau da, etxe honetan hiru egunez izan garen hiru euskaldunok. Jantokia, etxean hiru egunez abegikor, zabal, euren burua guk nahi izan dugun edozer-tarako ukan gaituzten Debbie eta Mike senar-emazteen etxeko atzealdea, izatez etxeari erantsitako oholtza dena, zurezkoa, behea baino metro eta erdi gorago eraikia. Hor behean lora-tegia, zenbait zuhaitz tantai eta hesia; dena inguruko beste holakoen berdintsua. Afaltiar, esandako bostak gehi etxejabeen lagun bikotea. Azken hau anfitrioiien adin bertsukoa, alegia, laster mende erdia betetzekotan direnak. Etxeko txakur biak ere inguruan dabilta.

Giroa epel dago. Ikusten da inguruotan laster hozten duena. Berogailuak dituzte hemen kanpoan, zutoinetan jarrita. Eltxoen hondamendi, goian eskegitako lanpara antzekoak, zeinetara intsektuak erremediorik gabe sartzen diren, eta

bertan hil. Horiei begira goizean etxeko jaunak galdetu didana etorri zait.

Merkatu handi solairu bakarreko zabal dene-tarikoak dituen horietako batean izan da.

- Bada hemen European ez den ezer? -galde-tu dit, harrotasun puntu batez, autoko giltzak euron eraztunean atzamar batez jira eta bira da-rabiltzala, Mikek.

Dendari erreparatu diot, gurean ez dugun zerbaiti antzeman nahirik. Gizonari poztasun bat ematearren.

- Ez dut holako deus ikusi. Ezer ez -erantzun diot.

Izan ere, supermerkatuan argazkiak errebe-latzeko izan gara eta, horretan ere denda-eredu globala. Gustura esango niokeen, aizu, begira horri, horrelakorik ez dugu ba gurean.

Globalaren zabala, supermerkatu horretan ere aukerako liburuak. Mikek bat seinlatu dit. Indioei buruzko liburu mardula da; *500 nations*. 14,99 dolar. Erosi egin dut, hari plazer egiteaga-tik gehienbat. Bitartean emaztea argazkien ar-dura hartuta ibili da. Egunean zehar egindakoak dira.

Emaztea etorri denean Mikek beste galdera bat luzatu dit.

- Drogarik bai zuenean?

Baietz esan diot, ohikoak direla han ere.

- Kokaina?

Baietz.

- Eta poliziak harrapatzen al du trafikatzaile-rik?

Noizean behin, nik.

- Eta kokainaren parte bat ez al da beti desagertzen?

Baietz berriro nik, 'Navajas kasua' iritzi zitzaiena gogoan. Alegia, Irunen Poliziak koka errekiatu, eta parte bat desagertu zenekoa; Poliziaren beraren eskuen artetik desagertu ere.

Irri egin dute biek.

Halakoxea da Debbie, halakoxea Mike, lehen-goan euroaz galde egin zidan gizona. Ea billeteak ala txanponak diren zorioneko euroak, jakin nahi zuen. Bietarik direla esan nik eta, hemen bezala!, papera ez duk dirua!, irmo esan zidan. Diskurtsoa aditu nion; urregorriaz, zibilen esku-bideez, bankuen jarreraz eta bidean datorren crack ikaragarriaz; ez daukagun dirua dira mo-

neta-paperak, finean. Azken hori halaxe esan zidan. Biribil-biribil.

Galde egin zidan baita non egonak ginen, eta nik otsoen zaintza lekuan egonak ginela esan, eta hangoa kontatu nion, alegia, animalioek ezer egiten ez dutela, gizakiontzat arriskurik gabeak direla eta, batez bestekoan, han egin ziguten diskurtso ekologiko.

- Hara, kalterik ez otsoek! -barre egin zuen.

Ehizarako grina du gizonak. Halaxe esan zidan urtean hamabostaldi bat egiten duela baso-mendietan ehizan, eta erakutsiko zizkidala lekuak, hurrengo batean, jakina, eta emazteak onartu egin behar diola hamabost egun urtean libre hartzea. Nago hona bizitzera etorri den askok erabaki horretan akuilu ez ote duen ehiza izan.

Lo egiteko utzi didaten gela, etxepean dena, ehizako oroigarriez josita dago. Piztien adarrak, buruak, larruak, argazkiak, den-dena Hemingway style edo ereduakoa. Isil nadin baina. Hartz-hortz pareak erosi nuen Pow Wow jaialdian.

Bestela, zaletasun eta xehetasun halakoetan jakiten da bakoitzaren ideiez, gai sakonetara

zertan jo eduki barik. Beraz, hobe halakoetara ez jo. Ez gara enbor bereko adarrak. Alabaina, sortu da gai sakona, sortu denez. Hori ardoak bere zain-bidea egin ostean izan da. Bestela afarian ganorazko gairik ez eta, horixe aipatzeko gogoia izan dut. Eltxoan harrapatzeko zera horiek. Ez dut egin.

Afaria ez da bereziki alai joaten ari izan. Gogaiturik denak. Ahalegina egin dute, dena dela. Goizean gure dantza taldearen ikuskizunera joan gara, orain eurokin afaltzen ari garen bikote biak, antolatzaile etorri den Michelle eta ni neu, seiok. Gurekin afaltzen dagoen seigarrena, Kris-Kitin taldeko zuzendaria, Egoitz, dantzariekin jardunean ibili da.

Joan gara, bai, Silverwood jolas-parkera, hantxe izaten ari baita nazioarteko dantza jaialdia. Egia esan ez diote jaramon handirik egin dantzaldiari. Egin dituzte argazki batzuk, jo dituzte txaloak eta banatu dituzte irriak eta zorionak. Gero jolasera joan gara denok. Roller irristamendi mekaniko itzel bi horietan ibiltzera. Umeen pare ibili gara. Egundokoa izan da, bai. Jolasa ez da horretan amaitu, osterara. Izan da

beste entretenigarririk ere. Bada, horietako hurrengoan egin zait argitasuna hemen dagoen puritanismoaz.

Roller horien ostean benetako ibaiarena egiten duen ur-laster artifizial batera joan gara, pneumatiko biribiletan ibilbidea egitera. Busti egin gara, busti egin garenez. Bada, gustura erantziko nukeen kamiseta, inguruan beste ino gerritik gora biluzirik ikusi izan banu. Baina ez. Kamiseta ez dute ezergatik ere erantzten. Bai zera erantzi. Nahiago mela-mela eginda barraken artean ibili. Arraioa! Neska-mutil gazteak, umeak, haurrak, jantzita zelan doazen-eta, mormoi doaz. Soin osoa estalirik, bero sargoria egon arren. *La casa de la pradera* telesail hartan bezalaxe.

Hori arrastian izan da. Gero argazkiak errebelatzera, eta afaria prestatzeko bakailaoaren antzeko zerbaiten bila joan gara. Jatekoaz Michelle eta Egoitz arduratu dira, ni neu begirale izan nautela. Ondo prestatu dute, nahiz eta gurean erabiltzen ditugun osagarriren bat faltan izan. Ikusten da amerikarrek gogoko dutena afaltzekoa. Baina badiot. Hemen gaudela hiru egun ho-

nezkerok, anfitrioniak gogaiturik direla esango nuke. Hori bai, ez dute kexarik ageri. Lehenengo egunean bertan zirika-zirika izan genuen galde-
ra -nondik nora jakin dute taldea datorrena, eta etxeetan leku egin?- gaur argitu ahal izan dugu.

Gizarte-klub moduko baten iragarkiari erantzunez hartu gaituzte, hala eurak gu, nola Kriskitin taldekoak ez ezik jaialdira etorri diren beste taldeetakoak ere beste familia batzuek. Iragar-
kiari erantzun dioten gehienak, mormoiak. Per-
tsegitu izan gaituen bautista fanatizatua etorri zait gogora. Aldea dago, aldea dagoenez. Hauek abegitsuak dira-eta, horrelakoak izatea fede-he-
ziketaz ei datorkien arren, dohainak dohain dira, jainkoaren eskutik etorriak zein berez sortuak izan. Gu hartu gaituztenak ere mormoiak direla-
koan gaude baina, ez dakit nik. Benetan mormoi direla dakigunik bada etxe honetan, dena dela.

Etxean garen hiru euskaldunez gainera badi-
ra apopilo hartuta beste senar-emazte gazte bi. Hain gazteak ze, nerabezaroaren kaiolatik irten gabeak dirudite. Neska Dantza Jaialdiko argazki-
lari ofiziala da; mutila antolamenduan dabil, tra-
fiko kontuetan eta. Hain zuzen ere, mutil horre-

xeke eroran eta ekarri izaten gaitu etxetik parkera eta parketik etxera; etxekoan 4x4 auto berri-berrian (aparailuan Sugarland country taldearen *Twice the Speed of Life* izeneko cd-a sartuta). Horretaz gain, etxean diren artean gazte biek Colari ematen diote, izozkiak irensten dituzte -ubarroiak arraintxoak zelan, ba halaxe- eta irria zabaltzen dute goizetik gauera zorionaren bandera ezpainetan eroatera beharturik baleude bezala. Kaferik ez dute hartzen, ostera. Toxikoa! Era berean, ezta alkoholik ere. Ba, *toxikoekiko* portaeran igarri du Michellek gazteok mormoiak direna. Etxekoek ostera denetariko pattarrak, garagardoak eta mahats-ardoak dituzte. Tarteka-tarteka jo izan dugu xurrutadaxoren bat. Halako bateko lagun giroan izan da gizonak euro diruarena galdetu duela. Txanpon bat eman diot, oroigarritzat. Tori, Ameriketara halako askorik ez duk izango eta. Lagunei erakusteko, esan dit, erabat pozik. Toxikoen harira, afaltzeko dugun ardoa ona da. Etxekoa barik beste bikoteko neska txolinduta dago. Hain gutxi edanda. Ez du ohiturarik. Etxeko andreak hobeto eusten dio.

Hona iritsi ginenean ostirala zen eta, etxeko andreak gau hartarako plana proposatu zigun. Ezinbestez joan behar genuela dantza egitera.

- Halakoxeeekin! -bota kanperak erakutsi zizkigun.

- Ez dugu holakorik ekarri -esan genion.

- Lasai, bigarren eskukoen dendan erosi ahal izango dizkizuet, merke-merke.

Denda hori karitate erakundea ei da.

Iritsi zen dantzara joateko gaua eta, hara, botarik ez baina, bost horrek emakumeari. Dantza egitera ezinbestez joan beharko dugu.

Etxetik irten orduko entsegu modukoa egina-razi zigun. Ilaran jarri, besoak elkarren lepoan leun jarri eta dantzak dituen hamaika pausoak -ez da ironia- erakutsi dizkigu. Kriskitin taldekoak behingoan harrapatu du, Michellek beste erakustaldi pareta behar izan du eta nik, elbarritu honek, ez dut behin ere pauso denak segidan egiterik lortu.

Bo, saioa eginda hantxe abiatu gara, etxeko gizona gidari. Hiritik kanpora. Lekua ondo ezagutu barik sekula santan iritsiko ez ginatekeen lekura. Hortxe ei dira taldeko besteak, alegia, an-

tolatzaile taldeko bigarrena, Errenteriako gizona eta Zumaiako irakaslea. Hiru. Ez uste hiru lagunak horrela izendatzeak dantzarekin zerikusirik ez duenik. Honaino bidaia antolatzekeo dantzarako baino ausardia handiagoa behar da, Errenteriakoa izateak kasik berez dakar jaietarako gaitasuna eta, azkenik, gure irakaskuntza sistemak ez dago irakaslerik udako ikastaroren batean dantzan ikasi ez duenik. Erraz daukate hamaika pausoak ikastea.

Eta lekua, oi lekua. Etxe bakarra; zurezkoa; teilatua isurialde bikoia; atea hain zabala ze garajea ematen du, horren gainean lekuaren izena: *Big Al's*. Ataurrean aparkaleku zabala. Autoa hortxe utzita sartu gara.

Oso *big* da, zinez, lekuaren barrua. Errektangelu perfektua. Han atzean eszenatokia, eta musika banda honezkero jardunean; erdi-erdian dantzarako leku zabala, oraingoz dantzaririk gabe; hori mugarriz albo luze bietan mahaiak, antzina gurean tabernetan izaten ziren egurrezko luze-luze haiek baino luzeagoak. Mahaiotako batean, hara. Neska bat hara igorik dantzan. Eta

Errenteriakoa harexekin, erotismo puntu batekin eusten neskaren ipurdi dantzari.

Debbiek zer nahi dugun galdetu eta, garagar-doak denontzat. Horretarako ez dago eragozpenik, barra bi dira eta. Nirea ekarri didatenean erreparatu diot lekuari zehatzago.

Han atzean, atetik gertu bada plastikozko igerilekua. Inoiz hor bainatzen ote diren da kontua. Baiezkoan nago. Ikusi besterik ez dago zein zoro dabilen mahaiaren gainean neska dantzan, eta haren ipurdiaren inguruan gure espediziokidea. Horiek hor izan dira, denentzat jolasgarri. Harik eta benetako dantzaldia hasi den arte.

Ene!, dantzaldia hasteko abisua eman denekoa. Mahaiaren gaineko neskak behera egin du, ziztuan -astiroago gure lagunak, zeinaren ausardia miretsi egiten dudana-, eta neska bera bezalaxe hortxe agertu dira gizonezkoak eta emakumezkoak erdi-erdira, hortxe eratu dituzte ilarak, hortxe itxaron dute bandak nota egokia jo arte eta hortxe ekin diote.

Gizonek denek sonbreirua, alkandora bake-roa, praka estuak eta kanperak; emakumezkoak berdin antzean, salbu eta gona jantzirik etorri di-

renak. Etxeko andreak berariaz ekiten dio, irakasleak ez dio tregoarik ematen, antolatzaileek honetarako besteko bularra badutela erakusten dute, dantza taldearen buruak bere antzea erakusten du eta nik garagardoari ekiten diot. Antropologoa ilargian.

Dantza eta garagardoa, garagardoa eta dantza, halaxe doa gaua denentzat, etxeko gizonarentzat eta niretzat izan ezik. Hark ez du edaten. Gidatu beharra, badakik, esan dit. Eta nik ez dut dantzarik egiten, ikusi nau berak etxean entseazten, beraz, galderarik ez. Noizean behin ostera dantza egiteko eskatzen didate, nahiz dela etxeko andreak, nahiz dela antolatzailetakoren batek. Denei ezetz nik. Eta halako batean mahaiaren gainean dantzan berriro lehengo neska bera.

Nabarmen txoa da. Garagardo botila eskuan, ipurmamiak biribilean dantzan, bere buruarentzat ari da. Haatik, Errenteriakoak ipurmamien biribilari jarraitu nahi eta, gora doa. Ingelesez tutik ere dakien arren, dantzara. Ez baita ahozko hizkuntzarik behar horretarako. Ez da behar hitzik, ez, liketan txoria harrapatzeko. Bai ostera

neskak esan nahi duena aditzeko. Eta ezin errenteriarak. Beraz, neuregana etorri da, eta atzetik neska. Honek zer diotson jakin nahi du.

Neskari ulertu diodanez, hiru gauza ditu gure lagunari esateko.

Lehena, bera ez dela inorekin oheratzen; bigarrena, mutil-lagunak eta biak utzi egin diotela euren aferari baina, hona hirugarrena, mutila, hala ere, inguruan dabilela eta, bo, ez da hor amaitzen kontua, mutila edonor hiltzeko kapaz dela, eta bitan, hirutan, hamaika alditan errepikatu dit mutila edonor hiltzeko kapaza dela. Gero alde egin du.

- Zer? -galde egin dit lagunak.

Azaldu diot.

- Arraioa! -esan du.

Antropologo sentitu naiz. Ilargian, bai.

Garagardoekin segitu dugu eta, halako batean neure txanda izan da. Etxeko gizonari, Mike, zer hartuko duen galdetu diot.

- Ura, gidatu egin behar diat.

Debbiek dantzan segitzen du. Erotismoaren country bertsioa, erakutsiz bizitzako bosgarren hamarkadaren bezperetan zer izan daitekeen

emakumearen dohaina; janzkiak estu, titiak tente eta behean sendo zapalduz.

Barrara joan naiz, eta hortxe ikusi ditut. Kule-roak eta sujetadoreak gakoan eskegita. Garaikurrak. Koloretakoak. Zorroek erakusten duten tamaina! Bular mamiena, ipurmamiena.

Garagardoekin eta urarekin itzuli naiz. Antropologo izatez gogaiturik nago, Mike hemen lehorreran egoteaz bezainbeste. Bitartean, non dago mahaiaren gainean izan den neska?, horixe galdetu dit errenteriarak. Laster deskubritu dut. Ohartu naizenean badela Big Al's honetako atzealdean ate handi bat, zabalik, eta jakingurak zirikatuta haraxe joan naizenean.

Atean dago neska. Gorputzaren erdia kanpogan, beste erdia barruan, bizkarrezurraz eusten dio ate-bornuan. Ea aire berriak mozkorraldia piltin bat arintzen dion.

Atetik itzuli naizenean ikusmina dantzalekuan. Al's honetako langile gizonezko batek cd-ak ipini ditu behearen gainean han eta hemen barreiatuak, dantzariak multzoa osatu dute horietatik metro parera eta, ulertzen hasi naizenez,

musika taldeak seinale egokia egitean cd-en bila oldartzeko unea izango da.

Egin du seinalea.

Oldartu dira dantzariak.

Denak behera diskoren bat harrapatzera.

Sugarland taldearena eman didate. Preziatuenaren omen da. Country musikaren azken hit-a. Horixe entzuten eroan izan gaitu txoferrak autoan. Mutil gazte mormoi gizon ezkondu bihurtu berriak. Orain gurekin afaltzen ez dagoena. Baina zelan amaitu zen gau hura?

Cd-ak banatzearena gauaren azken ekitaldia zela igarri ahal zen. Zeremonia modukoa. Azkenaurrekoa izan zen, osterara. Dantzan ibilitako batzuek plastikozko igerilekura egin zuten. Bularrak bustita titiburuak sujeritzera. Erantzaren beharra barik. Silverwood jolas-parkean bezala.

Gau hartan erakutsi zuen. Zein ondo eusten dion alkoholari. Debbiek. Afaltzen ari den beste bikoteko parte femeninoak ez bezala. Hori txolinduta dago. Ez nadin harroa izan, osterara. Besteoi ere eragingo zigun edan dugunak. Mikeri, adibidez.

- Zer uste duzue Irakeko gerraz? -galdetu digu.

Gu hiru euskaldunen artean begiak mezu isilen hegal arin izan dira. Erantzun ala ez. Isiltzeko unea ote den.

- Ez nago ados -esan dut.

- Ezta ni ere -Egoitzek.

Hurrengo hitzak nahastuak izan dira. Nik neuk ez dut lar ulertu. Michellek daki edozertaz eztabaidatzeko adina ingeles, sortzez eta hezkuntzaz niuyortarra denez gero. Baina ez du gogorik. Hasiera-hasieran esan zigun; hau beste herri bat da eta, entzun, aditu, errespetatu, ikasi.

Orduan txolindu egin den emakumeak esan du. Ulertu egin diodan kasik bakarra. Iraken emakumeak gizonak baino bost maila -five steps- beherago daude.

Ez du horrezkero luzaz iraun afariak. Tragoak ekarri dizkigute, baina *five steps* kontu hori aipatu duena ez dago kontua lar luzatzeko moduan. Alkoholaren eskaileretan gora *step* gehiegi igo-tzea litzateke beste trago bat jotzea. Gabon.

Afariaren biharamunean etxekoek eta beste denok argazkiak egin ditugu. Lehenago, etxeko gizonak orein, orkatz edo halakoren baten haragi ehizatuez egindako saltxitxoi pareak oparitu dit. Busera goaz. Ni neu Debbiek gidatzen duen autoan. Bera eta biok bakarrik goaz.

- Mormoia naiz -esan dit-, baina ez naiz elizara joaten; gehiegi gustatzen zait-eta garagar-doa.

Elkarri begiratu diogu. Azalpena ez zen ezinbestekoa. Eman nahi izan dit, osterara. Uler dezadan. Zer ulertu behar dudan, ez dago esan beharrik. Dena, eta ezer ere ez. Horixe.

Urtea bete da han izan ginenetik, eta ez dut izan Idahoko bikote haren berririk. Gogoan ahaztezin dut etxearen ondoko lakua, eta han Mikek erakutsi zigun kanoa, gurekin eguraldiagatik ezin erabili izan zuena. Gogoan, piztia handiak ikusteko gogoz nengoela esan banio berak erango nindukeela esan zidala, bihotzez esan ere. Gogoan, Idahoko ortzia, zerutik hain hur, eta haren argitasuna. Gogoan, auto gehienetan ikus-

ten ziren *support our troups* esloganak. Gogoan, Debbiek eta Mikek, bietako bakoitzak bazuela edo semea edo alaba, eta horietako bat, ez dut gogoan zeinen zein, hau da, noren alaba edo noren semea, Renoko Unibertsitatean ikasten ari zela. Gogoan, autobuseko txoferra lehenengo egunetako berbera izan zela; mormoia, berak esan zigun. Gogoan, autobusak Silverwood jolas-parketik eroan gintuela, eta han izan zirela malakoak, besarkadak, adioak eta ikusiarteak. Gogoan, hantxe utzi genuela bautista fanatikoa bere *italian charme* delako estiloko parpaileriekin proselitismoa egiten. Gogoan, gero Boisera joan ginela, kantuan autobus barruan, aldats behera jokatzearen sentsazioa gorputzean sartuta. Eta gogoan, Boiserako bidean geldialdia eginda Coeur d'Alene tribua bisitatzen izan ginela.

Coeur d'Alene tribua

Bidaiako denok gara busean. Boise dugu eguneko helmuga. Haatik, bidean Coeur d'Alene tribua ezagutzeko aukera eskaini zaigunez, geldialdia egin behar dugu. Quanah Mathegon antropologo gaztea dugu zain.

Quanah Mathegonek hogeita zortzi urte du. Washingtongo estatuko unibertsitatean antropologian lizentziatua, kasinoetako diruek eman duten jokoaren adibide erakusgarria da. Hain zuzen ere, lehengo batean afaritan hizpide izan genuen gaiaz gutariko batek galde egin dionean, alegia, kasinoek indiarren eragin negatiboa izan dezaketenez, baietz erantzun du, izan dezaketela, baina joko-zaletasun patologikoan harrapatuak diren herrikideei zuzenduriko ekimena abiatuak dutela argitu ondoren, kasinoak ematen dituen diruei esker beren historian lehenengo aldiz nahi duen tribuko orok nahi dituen ikasketak egiteko era duela argitu digu, harro. Hori baino lehen, eta gai horretan baino harroago nire ustetan, XIX. mendean zuriakin izan zuten

gerraz hitz egin digu. Orain gauden lekua seinatuz. Eta nik Quannah-ren eskuen mugimenduei begiekin jarraituz, haren antzinakoak ikusi uste izan ditut, zaldi gainean hara eta hona, zuriei segadaka, eta zuriak eurei segika, eta zuriekin gorriak ikusten, eta halaxe hiru urtez. Errenditu behar izan zuten arte. Berton. Bertan behera hutsik utziak diren zurezko etxeak dituen leku zoragarri honetan.

Gerrarien herritzat definitzen dute euren burua Quannah Mathegonek-eta, nahiz dela hone-la zuzenean hitz egitean, nahiz dela bestela ere, euron web orrialdean ikus daitekeenaren arabera. Hori horrela, harrigarri egin zait antropologo gazteak aspaldiko gerra hura aipatzea beste ezer baino lehen. Gogoia Bigarren Karlistadara joan zait. Aldi bertsuan izan baitziren hemengoa eta hura. Orduan, orain bezalaxe. Munduaren ardatza, gerra. Han zein hemen. Gero, gure galderi erantzunez, tribuaren jatorrizko izena -Aurkituak-esan digu Quannah Mathegonek, eta orain dela hamar bat mila urte hona egun Kanada dertizan aldetik etorriak direla. Hizkuntzaz ere galde egin diogu. Bere aitaita omen da ondo hitz

egiten duen bakarra. Laurogeita bi urteko zaharra. Azkena?

Quannah-k gidaturik tribuaren herritxo berrira joan garenean, hantxe ezagutu dugu tribuko zaharrena. Felix Aripa, Bigarren Mundu Gerran D-Day hartan izan zen gizona, oraino harro, zeren eta Eisenhower jenerala Frantziara eroan zuen harako itsasontzi hartan izan baitzen. Kriskitin taldekoek omen egin diote, aureskua dantzatzuz. Inoiz ezagutu dudan aureskurik sentiberena. Hori baino lehen tribuaren bulegoetan hartu gaituzte-eta, horra ni mira eginda utzi nauena. Beren hizkuntza ikasteko testu-liburuak badituztela. Justin Gould etorri zait gogora.

«Gure hizkuntza eskolan derrigorrez sartzea? Ez!», esan izan digu behin baino gehiagotan Justinek. Ehun eta berrogeita hamar hiztun dituzte Ni Mi Pui herrian. Eta hona hemen beste hauek, hiztun on bakar batekin beren hizkuntza irakasteko liburu ederrekin. Kasinoek ematen dutena, gero! Uste hau indartu egin zait erreserbako dendara oroigarri bila joan garenean. Coeur d'Aleneko 'Aurkituek' zuriekin sinaturiko tratatu, itun, lege eta halakoen bilduma osoa liburu poli-

to apailatuetan saltzen dute. Inork inoiz esan ez dezan «herri bat izan zen Coeur d'Alenen!». Agian horrexetarako.

Denda bestela engainagarria da. Saltzen diren gaietako gehienak bezperako Pow Wow jaian ikusitako artelanen ildoan daude baina, gutxi batzuk baino ez dira indiar eskuek landuak. Nahiz eta indiarren artisautza babesteko arautan esan adi begiratzeko salgaiei, benetakoak direnek etiketa behar baitute ekarri; jatorrizko artisautzakoek nork noiz non egina den dakarte. Zorionez, engainua horretara mugatzen da. Salgarrietara. Quannah-k eta Felixek euron eremuetan duten ederrena erakutsi gura izan digute. Salgai ez dutena. Lakua.

Aurreko egunetako batean egonak izan garen laku berbera da. Coeur d'Alene deritzona. Erdia zuriak dute harturik, beste erdiaren jagotza dute indiarrek. Zurien aldean dena da hotela, dena turismoari buruz zuzenduriko zerbitzuak, dena uretako kirolak eta tramankuluak, lehengoa ikusi genuenarekin bat. Indiarren ardurapean dagoen aldea ukitu barik bezala dago. Eta ardurapean diot, zeren eta lakua ez baita inorena.

Eta inorena izatekotan, beste inorena ez sortzailarena berarena baino. Halaxe diote indiarrek eurek. Lakuaren inguruan bizi direnen zeregin nagusia bera jagotea eta iraunaraztea da. Ezin hemendik gorputza hor busti barik joan ni. Zurien aldean busti nuen legez.

Uretan sartu naiz, zurezko atrakaleku baten parean. Lakuaren azalean loreak dira. Loreon zuztarrak hondoraino luzatzen dira-eta, horiexetan leku eginez egiten dut igerian. Dardaraz. Berriz ere taburen bat urratzen banengo bezala sentituz, Pyramid Lake hartan bezala. Hemen ostera bernatan traba eginez sentitzen ditudan landare urtarrek eragiten didaten sentsazioaren eraginez sorturiko izu lañoa da nirea.

Alde bietan laku bera izan bazen ere, emozioak guztiz dira ezberdinak hango aldean eta hemengoan. Beste denbora batean bainatu naiz. Oraingo denbora kronologikoari ez dagokion denbora paralelo batean, esango nuke.

Uretatik irtetean Felix eta Quannah ikusi ditut, lakura begira, hizketan. Antropologoak tribuko zaharrenaren ahotik entzuten du. Zer diotson galdeturik, denetarik, erantzun dit. Eszena tele-

bistan ematen izan zuten *Northern Exposure* (*Doctor en Alaska*, Espainiako telebistan) hartakoa ematen du. Barkamena eskatu behar diot nire buruari, baina halaxe da. Berriro ere filmak erreferentzia nagusi.

Bidaia bere azken egunetara doanez, norberak nahi gabe ere balantzea egin beharra zitzadaka sentitzen da bihotzeko zokoetan. Boisera bidean goaz, Idahon behera. Beste mundu batera. Zuriena dena, gehienbat. Zurion artean euskaldunak dira. Eta beste mundu bat zelan izan litekeen espazio-koordinada hauetan galderari erantzun beharko banio, bada, laugarren koordinada, denborarena, ez dela mundu bietan bera esango nuke, oraindino ere Albert Einsteinen jaiotzaren mendeurrenaren kariaz irakurri ditudanen mende nagoelarik, jakina. Areago esango nuke; zurien erlojuak zein aztoraturik dabilzan, banderetan igartzen dela. Ameriketako Estatu Batuen banderarik -erreserbetan- ez da bakan bat edo beste baino ikusten. Zurien aldean etxe ia denek dute bana ateetan. Bande-

rak. Haizea hortxe dela banderaren bidez jakin beharra balute moduan. Eta ez da hori bakarrik. Oso maiz ikusten da autoetan xingola zuri edo berdea -hiesaren aurkako borrokaren ikur denaren kopia kolorea galdua!-, eta xingolaren azpian esaldia; *support our troups*. Hots, eutsi gure tropei!

Lapwai herriko ostatuan kafe hartzen izan ginen azken goizean ohartu nintzen. Iraken badi-tuzte herrikideak indiarrek. Horren lotsarik ez dute, itxuraz. Baina banderarik ez.

Justinen hitz egiteko modua datorkit beti go-gora. Ameriketako Estatu Batuak aipatzean berea ez den entitate bat -politikoa, filosofikoa, nik dakit ba zein- aipatu moduan egiten izan digu. Baina hark ere gerra aipatu digu. Kexaz. Estatu Batuek kanpoan egin dituzten gerretan indiarrek lubakietako haragia izan direla, erraz-erraz sarraski bihurtzeko gaia. Eta hori ez dago-ela inongo liburu ofizialetan bildua.

Ikusi eta ikasi, ikusteko eta ikasteko asko geratu zaigu. Bidaideak denok bat gatoz honetan. Itzultzeko asmoa egin zaigu, gu baitako zerbait utzi baitugu hain abegikor hartu gaituzten Ni Mi

Puien eta Aurkituen artean. Horrexen bila itzuli beharko genuke, bada. Eta geu itzultzen ez bagara ere, gure izpiritua itzuliko da, hor zehar utzi ditugun bilo edo ileen bila. Nik neuk nenufarren artean baten bat galdu izana, hona nire esperantza. Hil ondoren nire izpirituak behintzat lakua berriz ikusi ahal izan dezan.

Sun Valley Express

Gaitz sendaezina gurea. Txikitan ikusitako filmen eraginarena. Halaxe, *Sun Valley Express* izenekoak ikustean *Poney Express* etorri zait behingoan gogora. Hura, zaldien bidezko posta zerbitzua zen; oraingoa furgonetaz egiten den posta eta bidaiari zerbitzua da. Biak ere biak ingurumen berean, ehun urteko aldeaz. Far West izan zen honetan, Idahon.

Sun Valley Express izenekoak Boiseko Aireportuan du abiaburua eta helmuga. Bada, horraixe ekarri naute, goizean goiz, 2005eko Basko Jaialdiaren azkenaurreko eguna den honetan, uztailak 29 dituela. Bidaia honetan ekarri dudana helburua ez baita horretan egotea. Hala izan balez, ostera, damaturik nengoke hona etorri izanaz. Ustezko baserri-giro idealeko trikitixak eta kirolak, txorizoak eta taloak, halakoak eta beste-lakoak, niretzat mamirik gabeko oskolak. Haatik, New Yorken jaioa eta hazia den Michellek beste ikuspuntu bat du honetaz guztiaz. Haren ustez hemengoek beharrezkoa dute hau dena, nahiz

eta ni bezalakoek horren sakoneko zergatia uler-
tu ez. Zabalasunez hartu behar dugu elkarrena,
bai.

Boisen nago, nolana ere, Idahon, eta
hemen nagoela-eta, baskoak hain maite ei zi-
tuen Ernest Hemingwayren hezurak dautzan hi-
lobia bisitatu nahi nuke, bidaian abiatzeko moti-
boetako bat horixe izan bainuen. Jaialdia amai-
tzekotan da, ostera, eta orain arte ezin izan dut
hilobia bisitatzeko plana biribildu. Bill, email bi-
dezko laguna, gaur iluntzean da Sun Valleyra
itzultzekoa.

Billekin harremana Nevadako basko baten
bidez egin nuen. Antza, euskal artzainen ospaki-
zunen batean ezagutu zuten elkar lagun basko-
ak eta Billek, izen osoz William L. Smallwood, ar-
tzainon artean *Egurtxiki* izenaz ezagutua ei-
dena. Datu hori bere horretan geratuko zate-
keen nire basko lagunaren oroimenean, halako
batean nire lagunari Billek berak Hemingway
ezagutu zuela eta *Idaho Hemingway* liburuan
parte hartu zuela esan ez balio. Laguna nitaz go-
goratu, emaila eskatu, niri bidali eta hona orain
ni Boiseko Aireportuan, Sun Valleyra Heming-

wayren laguna eta hilobia ezagutzera joateko orduaren zain.

Diodan moduan, posta bidezko harremana egin genuen Bill *Egurtxikik* eta biok. Emailez. Hemingwayren harira idatzi nion, elkarri liburuak igorri genizkion eta, halaxe gonbita egin hark niri; egunen batean ahalko banu zalantzarik gabe etortzeko bere etxeetako edozeinetara, hala Arizonara -neguan- nola Idahokora -udan-, urtea halaxe banatzen duela eta. Hala bada, esan egin niolarik udan hona etortzekoa nintzela etxeko telefonoa eman zidan. Egunotan hortxe jardun dut deika eta deika, eta hartu ez gizonak. Halako batean mail zaharretan begiratu dut eta, ene! Nire ohiko despisteak. Ez zidan ba esan as- tean zehar kanpoan izango zela, baina gaur ilun- tzerako etxean?

Mezua berreskuratu bitartean hortxe izan naiz, zalantza betean, Sun Valleyra goizean abia- tu eta gauerako itzulita egon nintekeen ala ez. Galdetu, eta ezetz. Denbora eta lekuaren kalku- luak okerretara egin ditut. Ameriketako Estatu Batuetako mapak begiratzean ez gara hemengo neurrien benetako tamainaz jabetzen. Sun Va-

Iley Express furgonetak goizean hona etorri eta eguerdi ostean hara itzuli egiten du. Bigarren hori 14:50ean. Horrexetan abiatzea eta bihar itzultzeko arriskua hartzea erabaki dut. Arriskua, ez baitakit ni hara iristean Bill etxera itzulia izango ote den. Eta ez daukat bestela non lo egin aginduta. Nolanahi ere Expressek hiru orduko ibilbidea duenez, seietan Sun Valleyn egongo naiz, diot nire artean. Ez litzateke lar berandu ostaturen bat bilatzeko.

Aireportuan bertan erosi dut bidaia txartela, izenduna dena. Ordutegia galdetu ostean, jakina. Eta denbora eman alde liburu-dendara jo dut.

Hortxe ikusi dut Bruce Springsteen adoratuaren irudia aldizkari bateko azalean. «*The Boss*, urteetan eman duen elkarrizketa bakarrean». Alabari opari eroateko erosi dut aldizkaria, beronen izenari begiratu barik. Beste bat ikusi dut, Antonio Banderas azalean dakarrena; hori ere erosi dut, oparitzako baita. Eta Idahoko historiaz liburu mardula ere, hau neuretzat. Denak zaku-toan sartuta irteerara noa.

Sun Valley Express, letra handietan du idatzirik izena furgoneta beltzak. Horixe da. Aspaldiko diligentzien ondorengo peto-petoa. Kendu haiei zaldiak, gehitu motorra, jantzi kanpoaldea metalez, eta hortxe emaria. Diligentzia modernoa. Ilarran jarri naiz.

Nire burutazioak topikoak direla uste izan badut ere, are topikoagoa da txoferra. Kasik ezin sinesterainokoa. Ez ditu ba aldarri ozen batean denon izenak banan-banan esan, eta baita gutariko bakoitza nondik datorren erantsi?

Berak izen bat esan eta izen horri hemen barruan garenetako nork erantzuten dion adi geratu naiz. Esan bezain fite ahaztu zaizkit izenak. Bidaia asko ez bagara ere.

Sarreran bere irribarrea eman didan neska blonda, hogeita hamar bat urte jo dizkiodana bera, eskuinaldean jesarri da.

Eskuinaldean baita ere, eta neska blondaren atzean, mutiko blonda, hamar-hamaika urtekoa, aingerua ematen duena.

- How are you doing, zer moduz? -galdetu dit, halako aingeru ahotsaz.

- Fine, ederto -erantzun diot.

Horren ostean mutikoak lo egotearen itxurak egin ditu. Tarte labur batez. Minutu bat igaro, eta sakelako telefonoa atera du. Hizketan tarte batez jardun ostean lo itxurak berriro. Ez dakit ez ote dion amari deitu; lehenago express honetan sartzen lagundu dion gizona aita duelakoan lotu naiz.

Ezkerraldean, balizko elbarrituren batentzat egokituriko lekuaren eta nire jesarlekuaren artean, beste neska bat dago; horri ere hogeita hamar urte jo dizkiot. Besteari alderatu diot. Ez hain liraina. Normala, ze besteak zinez ematen du miss lehiaketaren batetik etorria. Kaliforniatik dator -hori behintzat gorde dut gogoan-, surf aldizkaria irakurtzen.

Azkenik neu nago. Mutikoaren parean, baina ezkerraldean. Txoferrak nire izena esan duelarik galdera erantsi du:

- Mister Jimenez, from Mexico or from Spain?
- From Basque Country -esan dut, ozen, lotsa gaindituz.

- OK, hona hemen basko horietako bat! -txoferrak hala esatean egin duen keinua adierazgarria izan da; badaki zerbait baskoaz.

Beste aulkiak, guztira hamar jesarleku eta elbarrituentzako tokia dira, hutsik daude. Ez dakit irteteko beste inoren begira gauden. Leihoak zabalik diren arren, bero sapa dago barruan. Boisen gaur dagoena, gehi eguzkitan geldi egotearen egoteaz diligentziari erantsi zaiona.

Ez gara inoren zain egon. Erlojuak agintzen du, horra, ze hirurak izateko hamar minuturen faltan txoferrak atearak itxi eta aldarri batean esan du: «Welcome to the wonderful Sun Valley Express!», western haietan ohi zuten modu bereberetan, horren ostean bideak dituen miliak aipatu ditu -156,5 dira- eta azkenik diligentziako zaldia xaxatzen bezala hitz egin dio ibilgailuari. Yeah!

Abiatu bezain laster aire girotuaren eragina nabaritu dut. Eta berriz ere aldats goran joatearen sentipena. Bill etxean ote den ez ote den zalantzaren harrari zirrikiturik ez uztearren ahaleginean paisaiari begiratzeari ekin diot. Halaxe, aireportuaren inguruak atzean utzi bezain laster aingeruak Bruce *The Boss* horren elkarrizketa dakarren aldizkaria eskatu dit. Itzuli didanean

konturatu naiz. Nire buru eskasa!, aldizkariaren izena ikusi dut; *Squire*.

Squire! Ernest Hemingwayk hortxe idatzi ohi zuela gogoratu zait. Txori bi tiro bakarraz. Taxua hartu behar diot, azkenean ere, idazlearen sositurri gogokoenetakoa zen aldizkariari. Bruce Springsteen zertan dabilen irakurriz, gainera. Tarteka, ostera, Idahoren historiaren liburuari begiratzen diot. Halaxe dakit Idahok *territory* estatua 1863an izan zuela eta, 1890ean, populazioa 88.548 lagunekoa zelarik, Batuetako 43. Estatua bilakatu zela. Uztailaren 3an, hain zuzen. Ondo.

Geldialdia egin dugu. Jatetxe arrunt ohiko horietako batean. Fast food. Zerbitzariak mexikarrak dira. Aditz bitxiak erabiltzen dituzte. Hala nola, parquear. Interesgarriena, Big Brother delakoaren garaiotan, zaintza-kamerak direla eta kutxaren aldean dagoen oharra: SMILE you're on CAMERA. Ea irribarre hori, mesedez, kameraren begian hago eta!

Expressera itzuli naizenean horra geldialdiaren zergatia. Adinez hogeita hamarretik behera urte behar duen neska elbarritua autoan sartzen

dihardute txoferrak eta gaixoaren laguntzaileak, biek, ahalegin betean baina alai. Hauei irribarrea ez zaie ezergatik ere zimeltzen. Diligentziako pasaiari amerikarren artean lagun-giroa dago.

Berriro abiatu garenerako hamar minutu falta dira laurak izateko. Neska blondak nire aztorarena igarririk, The wind, haizea, esan dit. Nahikoa atzeraturik goazen sentsazioa daukat.

Sentsazioa areagotu besterik ez da egingo bidean aurrera egin ahala. Pasaiariek igarri egiten didatelakoan nago, halako batean neska blondak hitz egiten baitit, nora noan, eta ea inor badudan itxaroten, eta nik esan ba helbidea eta telefono zenbakia baditudala, eta orduan neskak bere telefono aparailua eskaini Billi deitzeko. Operazioa behin eta berriro errepikatu behar izan dugu, hari birtualaren beste aldean ez baitu inork hartzen izan. Eta hona eragozpena, txoferrak nora noan galdetu dit, eta nik azaldu gutxi gorabehera, eta berak jakin ez nik diodan helbidea zehatz-mehatz non den. Beraz, kosta ahala kosta jakin behar dugu nora eramango nauen, ze iristen ari gara, eta hemengo lekuak, lagun, begira elkarren zein antzekoak diren denak.

Nire artean hotelen bat bilatu beharko dudala diot. Haatik, nire aztoramena hain bide da nabarmenezkoa ze, neska blondak txoferrari ematen dio telefonoa, ea horrek markatzeko lana hobeto egiten duen edo, ze arraio, informazio guzteren batera ere deitzen dutelakoan nago, eta halako batean geldialdia; mutikoaren etxearen aurrean gara. Halaxe funtzionatzen du Sun Valley Express honek; express modura, bidazti bakoitza bere etxeraino eramaten du, espres-espres ate-ateraino.

Mutikoaren bila irten dira, eta hark agurra egin digu, eta etxean sartu da. Dibortziatuen semea. Diligentziaren barruan geratu garenok irribarre egin dugu eta, zera, berriz ere nire helbidea zein den galdetu, eta ea oraingoan Bill telefonoz harrapatzen dugun, eta ez, ezetz, ez duela erantzuten, eta honetan elbarritua ere bere etxe aurrera eraman dugu, eta hantxe utzi; Sun Valley omen da hau, baina zein handia, zein zabala, eta etxe aurretako argiak zein horiak! Gaua dator.

Neska beltzarana ere utzi dugu halako batean etxe bateko atarian, eta Sun Valley Expres-

sek neska blonda eroan behar du norabait, eta horren ostean ni. Nora, ez dakigu. Kanpoan gaua azul kolorean datorrela dirudi. Astiro. Landareei erreparatzen diet; sagebrush-a? Kaktusak? Zer dira? Eta gero berriz ere urbanizazioak. Gaitz egiten da antzematen idazleak ezagutu zuen harako Sun Valley bakarti hura oraingo hau beraudenik. Ez nago zapuzturik, ostera. Horretarako aztoratuegi nago. Okei. Aztoramena arindu alde-
ra buruz dakidana gogoratzeari ekin diot.

Hemen sortu zuten Estatu Batuetako lehenengo eski-leku handia, 1936an, munduan lehen-
na izan zen teleferiko sistema eta guzti. Sortzai-
lea Union Pacific Railroad izan zen. Enpresak, le-
kuari izena emateko, izarrak gonbidatzen zituen,
etor zitezene hona, munduari dirdira eta hemen-
dik egin ziezaioten. Hemingway, ordurako izarrak
handienetakoa medioetan, 1940an gonbidatu
zuten. Halaxe hasi izen etortzen, lagun eta guzti.
Lagunon artean, Robert Capa eta Juan Duñabai-
tia *Sinsky* Bilboko kapitaina. Robert Capak idaz-
learen argazki ezagunenetakoak egin zituen,
hala Madrilen 1937-38an, nola gero hemen. He-
mengoetako batzuetan *Sinsky* ageri da.

Neska blondak eta txoferrak txandaka segitu dute Billen etxera deika. Erantzunik ez. Neska-
ren etxea hurbil dugula igartzen dut-eta, akabo.
Hurrengoa ni neu. Eta txoferrak non utzi behar
nauen ez dakienez, berari galdetu behar izango
diot hotelaz. Nori bestela. Baina ez. Halako ba-
tean Billek erantzun egin du. Helbide zehatza
eman die. Eureka.

Neska bere etxearen aurrera eroan *dugu*,
pluralean, honezkero txoferra eta biok pozak
egiten baikaitu talde. Neskaren etxea egundo-
koa da. Maletak ere ugari eta dotoreak dakartza
berak. Aberatsa da, hain ziur. Haatik, hain zabal,
jentil, lagunkoirik, gutxitan ezagutu dut. Elkarri
beste irribarre bana eman diogu, adiorako.

Gaua azul dator, bai. Izarrek laster ñir-ñir.
Ziur. Txoferrak Billen etxea bilatzen du. Hortxe
da. Eskerrak deitu egin dugun, bestela ez ei zuen
sekula santan topatuko. Horixe dio txoferrak.
Ulergarria, zeren eta hemengoa mundu txiki bat
bada ere, mundua den aldetik oso konplikatua
baita. Mendi malda guztietan dira etxe ilarak eta
kale labirintoak, eta ilarok eta labirintook hain
dira elkarren antzekoak ze, zoramena litzakete

hemen etxe zehatz bat helbide abstraktu bat ez den beste argibiderik jakin gabe topatzea.

Bill, hortxe da Bill! Etxe aurrean. Ez handia eta ez txikia, egunetako bizar hazia, koadrodun alkandorak ematen dion gazte itxurak ezin dit zahartxo delat aiantzarazi. Elkarri bostekoa.

- Bihar bertan zazpitan! -esan digu txoferrak.

Ondo den galdetu dit Billek. Kontuak atera ditut. Edo biharko ordu horrexetan hartu edo bestela etzi arte itxaron. Eta etzi hegaldia. Ez. Bihar derrigorrez.

- Bai, bihar arte.

Etxe barrura gonbidatu nau Billek. Etxolatxoa da, blondaren etxearen aldean apala. Etxolaren barruan Billen emaztea dago. Elkarren aurkezpenak eginda -Patricia du izena emazteak- mendian astebete egitetik etorri berriak direla diost; dutxatu barik. Ibaietan kanoaz eta basoetan kanpinean eman ei dute astea. Hemingwayren estiloan, diot nire artean. Garagardoa atera didate, eta nik bihotzez eskertu.

- Zein plan duzu? -galdetu dit Billek.

- Hemingwayren hilobia bisitatzea joan eta han argazkiak atera.

- Ba, oraintxe, bestela ezingo dugu ezer ikusi.

Autoan sartu gara. 4x4 horietakoa, hemengo neguetan ezinbestekoa dena. Euskaraz hitz pare bat esan dit, eta barkamena eskaturik ingelesez argitu dit:

- *Euskerea* ia dena ahaztu zait.

Billek astiro gidatzen du. Eta aldi berean hitz egiten dit. Lanpetuta dabilela dio. Dolar piloa du aldez aurretik jasorik -100.000 esan dituelakoan nago-, izena gogoratzen ez zaidan senatariaren biografia idazteko. Atzeratuta dabilela, eta ea ba nik senatariaren izena ezagutzen dudan, eta ezetz nik; bizirik dagoela, eta errepublikanoa dela, baina ospe onekoa dela, desenkusatzuz bezala esan dit.

Desenkusatzuz, diot nire artean, ze Hemingwayri buruz behinena baino ez dakienak ere badaki hura Kennedy demokrataren aldekoa izan zena. Hain zuzen ere, idazlearen laugarren emazte Mary Welshek, alargundu ostean, Bostongo John F. Kennedy Library delakoari eman

zior senar defuntuaren legatua, horretara izen biak -Kennedy, Hemingway- betiko elkarri loturik gera zitezten. Demokrata kennedyanoa Ernest Hemingway, eta hona orain haren lagunetakoa izan zen Bill, senatari errepublikano baten biografia idazten. Ehizarako zaletasunean ote diren denak kide.

Ketchumgo hilerri katolikora iritsi gara. Behingoan jabetu naiz. Hesi nabarmenik gabe-koa baita, AEBetan ikusi ditudan gehienak beza-
la. Billek arin topatu du hilobia.

Hortxe dago. Marmol gorrixkaz egindako hobi-estaldura apala. Txanponak daude horren gainean. Gu biok argazkia ateratzeko eskatu diogu inguruan dabilen bati. Egin egin digu, eta bide batez txanponen zergatiaz galdetu digu. Xentimoak dira, ez besterik. Billek zer esan dion ez dut aditu; niri gogora etorri zaidan erantzun bakarra, Europako zenbait lekutan iturrietan, ibietan eta halako leku uste magiazkoetan uzten diren txanponen erritualaren antzekoa ote den. Hemingway gurea, zeruetan zarena!

Horren ostean Billek argazkia neuri bakarrik egiteko paratu naiz hilobiaren goialdean. Hori

eginda, ingurukoak begiratzeari ekin diot, ea ba egia den idazlearen anaia Leicester-ek dioena, alegia, euskal artzain baten alboan lurperaturik dela idazle suizidatua. Ez dut halakorik ikusi. Inguruetan ostera badira euskaldun aireko izenak. Argazkiak egin dizkiet, izenak apuntatu beharrean (filma errebelaturik, argazkiok ez dira ageri; beraz, agur izenok).

Nire moduan hilerrian hara eta hona badira beste turista batzuk, dozena erdi bat edo, idazlearen harriaren bila gehienak. Autoan sartu garenean horrexeri buruz hitz egin dit Billek; turismoaz.

Idazlearen etxearen ingurukoek ez ei dute nahi etxe hori museo bihur dezaten. Jendetzarik maite ez, antza. Egia. Ameriketako Estatu Batuek ordezkari estraofizial baten bidez Kubatik alde egin behar zuela jakinarazi ziotenean -halaxe dio Valery Hemingwayk *Mi vida con los Hemingway* liburuan- Ernest Hemingwayk leku hau hautatu zuen. Meyyers biografoak dioenez, berriz, lekuaren hautaketan eragileetako bat hemen euskal artzainak bazirela izan zen. Orain, ez ardirik ez artzainik. Billek etxea non den era-

kutsi dit, pasaeran. Ez da ia ezer ikusten. Azula da, bai, gaua, Idahoko bazter honetan.

Etxera iritsi garenerako Billen emaztea, Patricia, dutxaturik dago. Gizonak gauza bera egingo duela dio, baina lehenago ardoa eskaini dit, eta bere liburuetako bat. *Warhot: A-10 in the gulf war*. Alegia, Golkoko Gerran parte hartu zuen A-10 hegazkin orduantxe jaio berriaren historia. Arma erabakigarria izan zela dio liburuak sarrean.

Dutxatu da Bill. Liburua irakurtzen ikusi naue-larik bere beste batzuen bila hasi da. Badu beste hegazkin bati buruzko liburua. *Strike Eagle: Flying the F-15E in The Gulf War*.

Pilotua izan da Bill. Eta oraintxe agertu den emaztea baita. Halaxe diost, berak Billek; hegazkinak eduki zituela baina orain hegan egiteko ezindurik dabilela gehituz. Liburuok idazteko Estatu Batuetako hegazkinen baserik base ibili zela, hitzaurrean irakurri dut. Bo, Bill Koreako Guduan pilotu ibili zen, hegan hantxe ikasi zuen. Gerra 1950a eta 1953a bitartean izan zelarik, gizonaren adinaren kontua hortixe egin daiteke.

Afaltzera jesarri gara. Patriciak Billen liburua aipatzen ditu. Lehenengoetan eskoletarako liburua idazten zituela dio; zientzien arlokoak; geroago berriz militarren gaietakoak. Halaxe erakutsi dizkit afalostean batzuk (Han idatzitako lehenak errepasatzean hona izenak: *The Air Force Academy Candidate Book / The Naval Academy Candidate Book / The West Point Academy Candidate Book*).

Afalostean -italiar erako jatekoa izan dugu, aurrez prestatua, ardoz ondo bustia- Billek bere historiaren parte bat kontatu dit. Hain zuzen ere, Gernikan izan zela bizi izaten 1972 eta 1973an; Arrien jatetxearen goian, hango hotelean; jakin-gurak bultzatuta joan zela hara, bonbardaketaren testiguak elkarrizketatzeko asmoz, eta zein gaitz egin zitzaion horietakorik erdieste, eta erdietsi bazuen euskara ikasteari ekin ziolako izan zela, eta bitartekari egin zuen gizonaren izena eman dit, eta baita itzultzailea izan zuen emakumearena, Mundakakoa berau, eta horrekin guztiarekin liburua idatzi zuela.

Liburuaz galdetu diot.

- Ez dut argitaratu.

- Zergatik?

- Mekanografiaturik neukana berriz mekano-grafiatuz zuzentzeko nagi sentitzen nintzelako. Astirik ez azken idazketari ekiteko. Eta gero baliarik ez zuela iritzi. Bizibeharra!

Bada, bizibeharraren harira, ezin izan dut ondo ulertu zer egin zuen Gernikan. Han ere bizibeharra izango zuen eta, gero ez bazuen liburua argitaratu, nondik nora beharra asetu?

Une batez elkarren garunetan sartu garela uste dut.

Biotariko bata ere ez da besteak aurretiaz uste izan duena.

Galdera airera irten barik geratu da.

- Eta Hemingway eta euskaldunak? -galde egin diot.

- Basques are the greatest people in the World, Baskoak munduko jenderik bikainenak dira, esaten zidan Hemingwayk.

Bide batez bezala, Pete Cenarruzaren lagun mina dela diost.

Ez dugu afalostea lar luzatu. Niretzako lo egi-teko lekua beste etxolatxo batean dela diost, eta haraxe naroa.

Telefonoak jo du. Bill da. Ez daki zer jazo den, baina abiatzeko ordua da kasik, eta ez naiz haien etxolara etorri! Bart ez genuen elkar ondo ulertu, edo ez genuen iratzargailua egokiro jarri, edo auskalo zer. Nire bila datorrela dio. Leihotik sartzen den argia urrezkoa da.

Kanpora irten dut, Billen zain. Egurats zoragarria, etxolen arteko pinu oraindik lar berotu gabeen abaroan. Hor dator gizona.

Gosari arina egin behar dut, laster baita etortzekoa Sun Valley Express gurea. Txoferrak deitu ei du, eta halaxe jakin etxekeok badatorrena.

Kafea hartzen dudan artean Billek Euskal Herrira itzultzeko asmoa duela diost, eta nahiko lukeela hango musika korala grabatu. Egon bada-goela diotsot, bidaliko diodala. Berak besterik nahi duela dio; modu estandarrean grabaturikoa barik, soziedade, txoko eta halakoetan berak grabatua, horra. Zuzeneko kantu haien akordua ei du, eta ea nik zerbait prestatu ahal diodan. Tira, ahaleginduko naizela. Noizko?, eta urrirako, diost. Ea ba. Azken agurrak. Eta oparia. Patricia

eta beraren arteko ezkontzaren oroigarritzat agindu zituzten edalontzietako bi. Bostekoak. Agur, euskaraz.

Goizeon Sun Valley Expresseko txoferra beste aldarte batean etorri da. Frantsesez hitz egin dit, eta frantsesez erantzun diot. Behingoan aldatu da ingelesera.

- Ikusi al dituzu Hemingwayren zerak?

Baietz nik, txoferrarena bera baino pitin bat atzerago dagoen jesarlekutik. Goizak bizkortu egin nau, itxuraz, hortxe jesartzeko adorea izan baitut.

- Egunen batean su emango diote idazlearen etxeari, inguruko etxeetakoek, su, turistak autobuskadatan datoz-eta; samaraino daude -diost.

Geldialdi bat, eta horra gizon gazte bat. Sartu, billetea erakutsi eta, atze-atzeraino joanda, jesarleku biren espazioan luze etzan da. Berdintsu egin du hartu dugun bigarrenak, baina bestea baino ilara bat aurrerago. Bigarren honek eskuko poltsan rotaflex delako bat dakar eta, badirudi txapuzaren bat egiten egona dela. Ez naiz

sartuko horretan. Loak hartu ditu biak, begi er-tzaz ohartu ahal izan naiz. Bidaia txoferrak eta biok egin behar dugu, bada.

Lehenengoetan tentuz ekin diogu, kontu bat aipatu berak eta erantzun egin nik, galdera bat nire aldetik eta erantzun xume bat berak, nire inge-lesez erdipurdikoak ez baitu lar ematen. Saia-tu egiten da bera, bai, ahalik eta modurik erraze-nean kontuak azaltzen. Nik, ostera, tarteka-tar-teka Idahoren historia azaltzen duen liburu mar-dulean begiratzen dut. Gero berriz ekiten diogu, eta halaxe goaz aurrera, ingurumen harrigarriaz hizketan, berak, txoferrak, lantzean hegaztiren bat, edo zokondoren bat, edo halako beste kon-turen bat aipatzen didalarik. Harik eta halako ba-tean *The Mountains of the Moon* diostan arte.

Ilargiko mendiak! Holakorik! Inguru honen nondik norakoaz esan beharrekoak izenak berak dio beste ezein azalpenek baino hobeto. Nire bu-ruarekin pozik sentitzen naiz. Batez ere txoferra entziklopedia delako. Hain zuzen ere, nik zer egi-ten dudan galdetu eta idatzi egiten dudala esan diodalarik, adorea izan dut neuk ere galdetzeko; ea dakien guztia liburuetatik hartu duen. Ezetz;

telebistan dokumentalak ikusiz ikasi duela eta, horra! That's it.

Lipar batez txoferra imajinatu dut, gaua Sun Valley ematen, zertan eta dokumentalak ikusten. Bakarrik? Itxurari erreparatu diot. Larru ilunekoa da eta, izerdi mehe batek aurpegia bustitzen diolarik, kasik morea dela esan liteke. India-rra? Zilborraren inguruan potolo, ez da ni baino askoa altuagoa. Zenbat urte? Berrogeita hamar? Horren kalkulua halako batean eman didan datuaren arabera egin liteke.

- Alemanian egona naiz -diost halako batean-. In the Army.

Datu hori ez dit kasualitatez eman. Lehenik galdera zuzena egin dit:

- Zer gertatu behar da Europako Konstituzio-arekin?

Mutu utzi nau.

Berak ekin dio berriro. Datuak aletuz. Non egin den erreferenduma, non ez, non nagusitu den baiezkoa, non ezezkoa, datuak gora eta datuak behera. Irri finen artean. Ironiatsu.

Nire artean gizonaren adinaren kalkulua berriro egin nahi dut, eta ezin. Noiz arte egon dira yankiak Alemanian?

- Frantzia ere ezagutzen dut -diost.

Horra goizeko lehen agurraren zergatia. Beharbada hor ere in the army egona da. Haatik, ez dut horretan galtzeko gogorik.

Boisera hurreratzen ari gara. Atzekoek lo segitzen dute. Tartean guk biok elkarrekin orain hitz egin, gero biok isildu, ondoren batak edo besteak berriz ekin, holaxe goaz. Boisetik hurbi-lago eta gizona ausartago, Ameriketako Estatu Batuen krisi egoera, oraingo gobernu honen bigabekeriak, gizartearen babes sistemaren eraispena, langileen behin behinekotasuna eta halako kontuak aipatzen dizkit. Aipamenotan dabilen ezkertiar kutsua begi bistakoa da.

And now, diost, ezin hobeto ulertzen diodan diskurtsoari ekinez, eta orain Basko Jaialdia, eta Idahoko parlamentua Euskal Herriaren autode-terminazioaren alde, eta hemen txalo jendeek, noiz ikusi da hain eskumakoa den parlamenturik, ze hemengoa halakoxea da, eskumakoa, Europan ezta ezkertiarrek eurek ere aipatu nahi ez

duten kontu horren alde egiten, ETAk berak aldarrikatzen duen horixe aldarrikatzen, eta bitartean hemengo jendeak krisian, zergatik egiten dute horren alde hemengo Idahoko parlamentuan, my god!

Lehen mutu, orain mutuago noa. K.O. teknikoan. Eskerrak Boise hortxe dagoena. Eta eskerrek txoferrak K.O. nagoela oharturik egunerokokeriak aipatu dituela aireportura iritsi bitartean.

Iritsi gara, ba. Eta egin dute gora atzeko pasaiariak. Eta ni neu ere haiekin kanpora joatekotan izan naiz. Baina txoferrak egoteko esan:

- Zein da zure hotela? Eramango zaitut.

Esan diot, jesarri naiz berriro eta hortxe goaz, Boise inguruetan barrena hotelerantz, hizketa lasaian. Bo, ni neu barrua ez hain lasai, ordaindu beharko diodanaz zalantzan.

- Munduko denbora guztia daukat -esan dit-, arratsaldean berriro abiatu arte.

Tartean zer egiten duen galdetu diot, eta erantzun berak gogoko izaten duela batzuetan otordua kanpoan egitea, parajeren batean, edo bestela leku bakarturen bat topatzen duela, irratia entzuten duela, eta abar.

Hoteleko teilatua non den igarri dudanerako eguerdia da Boisen. Kanpoan dabilen beroa airean dabilen hauts antzeko lurrun horikaran igartzzen da.

Hotelaren aurrean lotu da Sun Valley Express.

Furgonetatik kanpora egin dugu txoferrak eta biok.

- Zenbat da? -galdetu diot, eskua poltsikoan.
- Hirezat ezer ez -esan dit lehenik, eta argiago gero-: basko bati ez diot ezer kobratzen.

Hirugarrenez mutu ni. Elkarri begiratu diogu. Kaiera zabaldu du.

- Zein da zure izena? Egunen batean ezer idazten badut ere, badaezpada.

- Mickie.
- Mickie? Besterik gabe?
- Bai. Jarri Mickie.

See you. See you. Ikusi arte.

Sun Valley Express hor joan da. Tarte batez begira geratu naiz. Gero hotelera egin dut. Eta konturatu egin naiz. Idahoko historiaz Sun Valleyra eroan dudan liburu mardula, bezperan aireportuan erositia, jesarlekuan utzi dut. Ahaztuta.

Ziur naiz Mickiek ez duela oparitzat hartu. Are ziurrago nago liburua niri itzultzeko ahalegina egin zuena. Alferrik, gu handik alde egiteko orduak baino ez baitziren falta.

Itxaropena dut Mickiek tarteka liburuari begiradatxo bat egingo diola. Agian bada hor berak ez dakien zerbait Idahoz. Azaldu ahalko dio nire moduan Sun Valley Express kutunean datorkeen nire legezko hurrengoari. Horrekin ere, ez dut uste niri eskaini zidana baino goiz ederragorik inori eskaini ahal dionik. Billen helbidea bilatzearen egin zuen ahaztu barik.

POST SCRIPTUM:

Billek eman zizkidan edalontziak etxean ditud; musika grabaketena ez dakit inoiz egin duen, ezta etorri ere etorri zen; emailen bidezko gure harremana etenda dago, ez berak niri ez nik berari idatzi izan diogulako; Mickieren berririk ere ez dut harrezkero izan; Sun Valley Express diligentziaren irudia sarean dago.

Colorado Springs aireportuan

Denver, Colorado Springs Aireportuko kanpoaldea. Une batez kontinentearen neurria sumatzen dut. Han urrunean mendi itzel handiak, gailurrak elurretan; mendiotaraino, itsaso beteko lautada. Lautada, mendiak, egurats errean dena ageri da lauso, hemen ere murgoa balego legez. *Rocky Mountains*. Walt Whitman sentitu naiz.

Lipartxo batez nire arimak harengana transmigratu duelako edo bestela zineman hainbatean ikusitakoaren oroimenagatik izan ez bada, geografiaz dakidan apurrak oihartzun egin didalako izan behar da mendiok derrigorrez *Rocky Mountains* izenekoak direla otu izana. Eta egia. *Rocky Mountains* dira hangoak. Aireportuko mapetako batean ziurtatu ahal izan dut datua.

Aireportu itzela, barruz, Colorado Springs honetakoa. Funtzionaltasunarekin uztartutik, horma handietan indioen bizimoduaren eta arte-lanen erakusketa dago paraturik. Finkoa da,

itxuraz. Buztinezko irudiak nongura. Zinez ederrak begitandu zaizkit.

Estatuaren nortasunaren agiria bide dira indioak, otu zait. Sarrera zaintzen duten polizien artean itxura eta taiu askotarikoak dira. Bakarrek ere ez dit indioa eman. Bide eman digute.

Aireportuan barrurago eta ugariagoak indioen gaia duten artelanak, nahinon. Batzuei astiroago begiratzen diet, ordu pareta dugu-eta hegazkin-aldaketa egiteko. Artisten arteko izen bakarra ere ez zait ezaguna egiten. Hobe zerbait edan. Taldeko besteak elkarrekin utzita edatekoaren bila noa.

Itxaron-gunean dendak, jateko arinen lekuak eta taberna bakarra, kitsch hutsa dena. Cowboy tabernen irudiko barra, inguruan gizonak eta emakumeak aulki luzeetan jesarrita, garagardoa hartzen gehienak, lau zokondoetan jarritako telebista pantailei begira. Amerikar futbola da ikuskizuna.

Denak ere halaxe jantzita; gizonezkoek praka estuak, emakumezko gehienek gona are estuagoak, beste dena berdintsua dute hala batzuek nola besteek; botak, gerriko astunak, koadrodun

alkandorak, uhalezko gorbatak, hegal zabaleko sonbreirua. John Denver kantariaren disko-azaletan bizi dira.

Garagardoa eskatu dut, eta baita edan ere. Astiro. Sekula turista egon nintekeenik uste izan ez dudan lekuan nagoela gozatuz. Gero aireportuan osteratxo bat egitera jo dut. Eta hortxe ikusi dut halakoetan ohikoa den liburu-denda. Ezin eutsi. Sartu egin naiz. Nire jakin egarria asetzekoaren bila.

Apalategietan bibliak ikustean ezin izan diot eutsi. Bat hartu dut esku artean. Aurreko azalaren barruko aldean alearen jabearen datuak idazteko fitxa dakar. *King James New Bible* deritzona da. Ale bat erosi behar izan dut, Idahoko Coeur d'Aleneko pasadizoak gogoan.

Coeur d'Alenera ailegatu ginen. Beti aldats goran eginez bezalaxe. Barru-barruan lurralde guztia zerura bidean igo eta igo doala sentituz. Sentsazioa, agian, buruan mapa daukadalako sortu zitzaidan. Zein goi dagoen mapan Idaho.

Edo bestela ortzia han inon baino ukigarriago antzematen delakoa. Eskueran ia-ia.

Heldu ginenerako iluntzea zenez ez ginen lekuaren ezaugarriez ondo jabetu. Ikusi ahal izan genuen, bai, irrista-mendi edo *roller* itzel handi bi bazirela han inguruan. Beraz, guk gehienok ordura arte ikusitako jolas-parke handieneko aurrean ginen. Silverwood. Hantxe egitekoa zen Nazioarteko Dantza Jaialdia, zeinetara zetorren Durangoko Kriskitin taldea, eta gu besteok harekin batera ibilbidea egin arren aske gure kasa ibiltzeko. Bada, hortxe, Silverwooden hasi zen ipuina.

Iritsi eta egun bi geroago izan zen. Eguerdian. Ordurako batzuk Silverwood jolas parkeko giroaz oka egiteko punturaino gogaiturik ginen. Ordu erdiro igarotzen zen trenaren txistua eta itxurazko keak, roller bakoitzaren txirristaren hotsa eta pasaiarien alarauak minuturo, saloon itxurako hartako musika errepikakorra etengabean eta denean gorrotagarriena zena, barre grabatuak kasik segundo oro. Edan barik ere horditzeko modukoa. Zilarraren Sukarraldian Ameriketako ingurua haietan sortu, hazi, ugaldtu,

endekatu eta hil egin ziren meatzari-herrien *kitsch*-a da Silverwood, Zilar Basoa. Bodie bezalaxe mamu bihurturiko herriek eurek ez, honezkerok; baina haiekiko lilurak eta oroitzapenak zilarraren miraria berpizten dute, Silverwood leku-ko.

Silverwood! Maskotatzat harako *Garfield* hura daukana, jainko laztana. Dantza taldekoak ez ginenok Coeur d'Alene laku ospetsua bisitatzearabaki genuen.

Biltzeko ordua eta lekuaren koordenadak mekanika sinple baten arabera jarri genituen. Gutxi batzuk lakuaren gertuko hoteltxo batean zeuden artean besteok boluntarioen etxeetan apopilo geundenez, eta holakook etxeok egunero Silverwood parkera ekarri eta eraman egiten gintuztenez, errazena hotelekoak hotelean gertzea eta besteok hara agertzea zela erabaki genuen. Eta halaxe izan ginen larunbat goiz eder hartan *Garfield* itzelaren gerizpean, hotelera nola joan bilatzen genbiltzala. Taxiari deitu alarorbaiti eramateko eskatu? Erabakia antolatzaileetako Jasonek egin zuen.

Autoa topatzea, hori berarentzat oztopoa ez dela erabat ziur, bilatzeari ekin dio Jasonek. Topatu duenean kasu egin digu. Arin! Bizkor!

Autoa begiztatu nuen. Trucka, hots, kamioneta. Ze kamioneta, ostera. Hain berri eta aratz ze, iragarkiren baterako prest zegoela ematen zuen.

- Ikusten zein erraza izan den? Ez duzue bidaiatu, ez duzue mundurik egin. Honexek eroango gaitu -Jasonek, bere eme-edertasuna ahalguztiduna dela ikasita daukanaren garaile irri zabal aurpegian.

- Hi! -eskua luzatu zidan autoaren jabeak.

Begira geratu nintzaion. Argala, kasik metro bi luze, ilea labur, betaurreko ilunak, ipurdia estu-estu kaka egiteko moduari eusten balego moduan, goitik behera zurrun, nire artean esan nuen: gay! Gay erreprimitua, zehatzago. Begitazioa ziurtasun bilakatu zitzaidan gizonaren beraren taxuko gazte bat hantxe agertu zenean.

- My son; semea.

Semea egin ondoren emazteak utzitako gaya, pentsatu nuen, ipurdiari estu eusteko modu hark ezinbestez nora-eta haraxe, ipurdira begiratzera behartzen zuen eta. Urduri moduan

aita-semeak hantxe ekin zioten autoaren barrualdea txukuntzeari. Eta guk berdin zigula. Eta eurak, ondo!, sartzeko. Aurrean neuri egokitu zitzaidan. Jasonek halaxe nahi izan zuelako.

- Hobeto dakizu ingelesez nik baino.

Hobe izan nukeen nekien ingelesa ez jakitea. Eta Jasonek berak zekien apurra ahaztu hantxe ahaztu izan balu, hobe. Egia, aita-semeen arteko lehenengo hitzetatik bata ere ez nuen ulertu, ez bainien jaramonik egin. Lakura joateko lehenik eta behin taldeko besteak zain genituen hotelera joan behar genuen eta, harainoko tartekak kendu behar zigun denbora kalkulatzeko ahalegindu nintzen. Hitz askorik esan beharra eduki barik joan ote nintekeen, horren kontuak ateratzearen.

Diodan moduan, aita-semeen arteko hitzak ulertu ez baina, autoaren barrualdea azken teknologi uhineko aparailuz josita dagoela ohartu naiz, horiexekin gora eta behera hasi baita aita. Halako batean autoa hantxe abiarazi ahal izan duen arte.

- Lasai -diost.

Astiro irten zen. Auto dotorea bere hobere-
nean irauraztearren egin zuela begitandu zi-
tzaidan. Azken batean Silverwood jolas parkea-
ren aurre-aurrean dagoen aireportutxoko belar-
tza geneukan gurpilen azpian. Neguko hotzek zi-
gortua. Sartu-irtenez josia. Bide nagusira iristean
ezberdin izango zela pentsatu dut. Hots, bizko-
rrago joango garela. Ez nion usain onik hartzen,
ez, kontuari. Semeari hitz egiten zion guztietan
aginkor egiten zion. Estu. Zorrotz.

Bidean goazela, ez dakit zein puntutan, ba-
diost italian zerak, *italian charme* izenekoak sal-
tzen dituztela, hortixe bizi direla bera eta be-
reak, halaxe diost-eta, nik, zer arraio, halako
autoa salmenta horrekin!, pentsatu.

Well, bo, ea Idaho ikusi dugun.

Eta nik ba horixe, Silverwood ikusi dugula,
eta lakua ikustera goazela, eta berak ba hobe
genukeela airez ikusi, Idaho airez 175 dolar, eta
semeak baietz dio, aitarena berretsiz, zoragarria
Idaho airez.

- Bo, well, oso ondo, baina hau ez da hotele-
rako bidea -nik.

- Ez, lehenago etxera goaz, gauza batzuk uztera, hortxe bertan da etxea.

Bai zera hortxe! Kilometroak eginez goaz, nabarmen aldendurik zibilizazio iritzi ahal zaien inguruetatik; etxerik gabeko gune zabala, errepide egin berriez gurutzatua, bete gabeko gurutzegraman baten antzekoa, horixe begitantzen zait dena. Jakina, azkenean iritsi egin gara, nonbaite-ra goazen ez baitut zalantzarik egin. Nora iritsi gara baina?

Zurezko den eta amaitu gabea ematen duen baten aurrean lotu gara. Inguruan badira antzeko beste batzuk, eraiki bidean aurreratuak zein amaitu berriak. Auto barruan segitu nahi dugularik berak ezetz diosku, sartzeko etxean, zerbait edateko, eta halaxe joan gara etxea ikustera.

Sartu baino ez, deigarria egin zait ate ondolan atrila dagoela, eta atrilean bibliako orrialde bat zabalik; 35. salmoa dakarrena. Hori atrilean ondo paraturik, etxea bera anabasa da. Hara, beste bi neska eta mutiko bat ditu gizonak. Mutikoa hamaika urtekoa, adinaz galdetuta erantzun digunez.

- Bost israeldar izan ditugu lo egiten egun batzuez -diosku gizonak, han eta hemen diren ohekoak biltzen dituen artean.

Gero satora gidatu gaitu. Ordenagailuak eta telebista aparailuak. Eskola on line egiten eite dute seme-alabek.

Ameriketari ohikoa dena ezin izan da falta, alegia, gizonak esatea Kalifornian etxe honek miloi eta erdi dolar balioko lukeela eta hemen berriz miloi laurdenagatik egin duela. Nolanahi ere dirutza da eta, zer egiten duen galdetzen auzartu naiz, nire freskagarria eskuetan, halakoak ateratu baitizkigu.

- Polizia izan naiz Kalifornian.

Hara!, esan dut nire artean, bere azalpenei adi. Indar berezietakoa izan dela dio; Kalifornian, bai, eta orain bi asterik behin lekuz aldatzen dabilela. *Italian charme* horiexek saltzen. Eta berriro ekin dio. Hobe genukeela Idaho airez ikusi, dio gizonak, aitak, airez mundua zelan ikusten den berak dakiela, inork dakienez, ze *aireko* polizia izan nauzue!

Bo, well, indar berezietan aireko polizia eta lau seme-alabaren aita, ama non den galdetzen

ez naiz ausartu, nire artean gizona gay erreprimetua dela berretsi baitut. Nire garunetan dabilena igarrita legez ekin dio emaztearen aurka, abandonatu egin zuela, han Kalifornian, eta sexu promiskuitatea izan zela arrazoia, eta bo, well, halakoak. Okei, tira, kanpora goaz denok, alegia, lau seme-alabak, gizona, jasone, taldeko beste kide Lierni, Errenteriakoa eta ni neu.

Hamaika urteko mutikoari galdera gaiztoa egin dio Jasonek:

- Non hobeto, hemen ala Kalifornian?
- Kalifornian -dio mutikoak.

Ez da telepatiarik behar elkar ulertzeko; hementxo honi ez deritzogu hamaika urteko mutikoarentzat bizimodu egokia.

Sartu gara autoan. Mundu bat gara-eta, ahal izan dugun moduan egokitu gara. Seme nagusia izan ezik besteak aingeru itxura betekoak dira. Errubioak, errugabeak, *errogabeak*. Baina, ene! Nora goaz?

- Parkera itzuli behar dugu, seme-alabak han uztera -dio gizonak.

Eta parkera iritsi gara. Gizonak seme nagusiaren menpe uzten ditu beste hirurak, eta han

doaz laurak. Abiatzekotan garela, telefonoa. Geldi!

Hara non datorren berriz seme nagusia, eta zerbait esan aitari. Honek momentu batez itxa-roteko, guri. Eta hor doaz berriro biak. Nik neuk, moskeaturik erabat, autoa bertan utziko nuke, baina lasai, diost jasonek, iritsiko gara eta.

Nire aurrean hortxe bolantearen eskuinaldean paraturiko objektuei erreparatzen diet. Liburu azal beltzeko hori biblia da, eta hortxe da baita ere gizonaren izena dakarren gutuna, bankuarena. Begiratu nahi ez baina, ni baitan zerbaitek izena gogoan gordetzeko zioetan.

Gizonak autora itzultzean zekarren haserreak moduko abiaduran joan izan bagina bai, ziztuan ailegatuko ginatekeen.

- Zaindari horiek! -dio-, ez dakite beren lana taxuz egiten, ez dute trebakuntzarik, polizia izana naiz, badakit zer diodan, holakoetan entrenatua naiz ni.

- Eta zaindari izateko -ausartu naiz-, zer entrenamendu behar da?

- Luzea, oso luzea. Eta horiek, zaindariok, ezta egun batekoa ere -berak.

Beraz, ulertua da. Seme nagusiak arazoren bat izan du anaia-arrebekin Silverwooden sartzeko. Susmagarriak edo? Tira, konpondu da eta, iritsiko gara, lasai.

Joder lasai! Abiatu bezain laster galdera zuzena egin dit gizonak:

- Biblia irakurtzen duzu?

Hara, diot nire artean, diplomaziaz jokatu behar dut; bai, zintzo diot, *Sukar ustelaren urtea* nobelarako hortxe ibili baitut esku artean dela-koa liburua.

- Maiz? -berak.

- Oso -nik.

- Zein eratako biblia?

- Zera, Elizen Artekoa -nik.

Orduan, zizt, hantxe hartu zuen bolanteren eskuinaldean nire aurre-aurrean zegoen liburu beltza.

- Berau da ona dena, bakarra, That's the good one, King James -gidatzen duen artean lehenengo orrialdean zabaldu du. Hor dakarren izena ez dator bat bankuko gutunean ageri denarekin.

- Zure countrya katolikoa da?

Baietz ni, ez lehenago gogora ekarri gabe behin irlandar lagun hark esan zidana, Katolikoa naiz, errepublikanoa zela ulertzeko moduan esanda. Euskal Herria katolikoa da, ezta?, nire artean diot. Ba ni neu ere katoliko, zer arraio.

Berak errespetua digula katolikoei -ez dut atea naizela esateko ausardiarik izan, hori tamala-, baina gogoan hartzeko bekatuak barkatu ahal dituen bakarra Jesukristo dela, Jesukristo gure artera etorri zela gure bekatuak barkatzera, berak ahal du, ez beste inork, eta errespetua diela katolikoei, baina zelako bekatuak ageri diren katolikoek apaizen artean, zelako bekatuak, ahotsa gorago eta larruazala gorriago dio.

Atzean datozenen artean aztoramena. Jasonek diosdana, gizon hau burutik dago, eta nire artean berak lehenago esandakoa mamurtzen dut, mundua ibili gabeak garela; begira orain, nora garamatza honek, hau ez da hotelerako bidea, diotsat Jasoneri.

- Zein hotel esan didazue?

Eta Jasonek berriro diotso izena. Eta berak okei dio, baina ez dirudi bide nagusira doanik, ez

horixe, horraino iristen gara. Bahiturik sentitzen gara.

- Well, apaiz katolikoan artean hemen Ameriketako egiten diren sexu bekatuak gaztetxoekin, zer diostazue? Ez ditut katolikoak ingudean jarri eta mailuz ekin nahi baina, ez ahaztu barkamena Kristok beste inork eman ezin duena.

Hoteleraino falta behar diren kilometroen kontua egin nahi dut, eta ezin.

- Non dago zuen countrya -halaxe egin zuen gaiaren aldaketa.

Erantzun zaila daukan galdera. Ez dit halakorik bilatzeko astirik eman.

- Eta zein poliziak zaintzen du zuen countrya, zeuen Poliziak edo?

Baietz nik, Ertzaintza gogoan eta sakonago joan nahirik gabe, hotelera zuzenean behintzat ez goazela oharturik, eusten-eusten, eta atzean ingelesez badakiten Lierni eta Jasone dardakadan.

- Nolakoa da zuen Polizia hori?

- Beste edozein bezalakoa -nik-, bere lana egiten duena.

Eta Liernik atzetik niri, ondo erantzunda dagoela.

Tartetxo baten ostean galdera zorrotza:

- Talde berezirik bai zuen Polizian?

- Bai, txikia -nik.

- Ondo entrenatua?

- Bo, well, normal.

Atzekoek erlojuari begiratzeko esateko gizonari, halaxe diostate, urduri. Egin egiten dut.

Eta galderarik lehergarriena:

- Zein armadak babesten du zuen countrya?

Lehen erantzuteko astia izan ez dudana orain diotsot zeharkako bidez:

- Espainiakoak eta Frantziakoak.

Olé!, voila! Tarte baterako mutu utzi dut gizona. Baina bai zera.

- Zer egin behar duzue bihar goizean?

Amua irenstekotan nagoelako uste betean, baina amu hori galderaren zein erantzunean dagoen gorderik antzeman ezinik, bo, well, ez dakit, diot, lakura joan agian. Gure benetako plana gaur lakura eta bihar Pow Wow ikustera joatea dela ez diot esan nahi. Zerbaitek diost hobe

dudala indioen ikuskizunera joateko asmoa dugunik ez esatea.

- Gure iganderoko ofiziora etorri behar duzue, etorri behar duzue, ezin didazue ezetz esan, ikusi beharra daukazue gure eliza, church. Begira, oraintxe eramango zaituztet gure apaiza ezagutzera, egon.

Gizonak telefonoa hartu zuen. Neure erantzun epelen katean harrapaturik sentitu nintzen. Zorionez edo zoritxarrez, telefonoaren beste aldetik ez dator erantzunik.

- Minutu bat izango da, eliza ikustera eroango zaituztet.

- Lotuta gaude ostera...

- Ez da luzea izango, gure apaizari kuku bat egiteko beste, bihar hona zatoztela esateko, agurtzeko.

- Presa dugu baina.

Baina ze baina eta ze bainaondo. Guk presa eta berak bolantea, lekutan galduta dagoen gune batera goaz.

- Hementxe da -dio.

Urbanizazio berria, gizonaren etxearen ingurukoaren berdintsua. Egoera leundu nahiz ea

lekua populatzen ari diren galdetu diot, eta baietz, pozik berak, jendea hona erakartzen ari direla, eta horra eliza, egon! Autoa lotu du.

Gurea zoriona, apaiza ez dagoela esaten dator eta, bagoaz.

- Well, zera, baduzue non idatzi? Apunta ezazue elizaren zenbakia, eta nirea.

Okei, halaxe egin dut.

- Eta emadazue zuen zenbakia. Ez duzue zenbakirik?

Jasonek berea emateko diost, eta esan egin dio, eta gizonak hartu, eta nik nire artean, izorra zaitez, ea orain zer egiten duzun gizonak deitzen dizunean!

- Apunta ezazue helbidea, baina nahi izanez gero bihar hemen izango naiz zuek elizara eroateko, deitu besterik ez duzue egin behar.

- Arren -nik-, ez zaitez honaino etorri bestekin ere hitz egin behar dugu, ez da erabat segurua joango garenik.

- Etorri egingo naiz, lasai.

Zein ordutan etorriko den esanda, joan da gizona.

Eta Jasone pozik:

- Ez diot benetako telefonoa eman, ez duzu beldurrik pasatu behar.

Beldurrik pasatu, hobe ez!

- Goazen lakura, eta bihar goiz irten beharko dugu, ze zoro hori hona agertzeko gai da.

Ez zen agertu, ala bai, biharamunean? Nahita oker emandako zenbakira deika ibili zen-eta, halako batean hotelera hots egin, polizia berezia ez baitzen alferrik polizia berezi. Eta neu hoteleko telefonora, eta neuri kontuak eskatu gizonak, zergatik ez garen mezatara agertu, eta ze zenbaki eman nion. Bo, well, besteek, zera, ez nekien zer esan.

Eta okerrago, harrezkero Silverwood jolas parkean zeukan italian charme saltokia, eta hara joan izan nintzen guztietan gizona ikusi nuen, eta semea, eta alabak, jendearekiko abegitsu huskeria haiek saltzen, eta guri osteria beti begi zemaikorrez begiratzen, eta gu ihesean legez, benetan gure kontra zerbait egin zezakeela sine-tsirik, gu, txoriburu halakoak, beti hari ihesean, harik eta halako batean Silverwoodeko Saloon hartan taldean garagardoak jotzen eta jotzen

-bekatutan bustiz!- genbiltzala niregana etorri zen arte. Komunerako bidean bera.

Izua. Izu metalikoa. Bere begi metalezkoak, bere kasik bi metroko gorputz metalikoa, bere metal eskua luzatu zidan. Bostekoa emateko. Komunera bidean bera. Zorionez. Puxikak ez baitu zeremonia luzeekin ezer jakin nahi izaten.

Akaberako eguna zen, hori ere zorionez azken. Dantzaldiko azken zeremonian hortxe dira dantzari mexikarrak, biluzirik egoteko trapu bana kentzearen faltan denak. Emakumezkoak nahiz gizonezkoak. Eta puritanoak, mormoi zein bautista, ikuskizunari eusten. Eta ni tabernan gogoetan. Gizonaren ipurdiaren estuaz, eta esfinterrak askatzeaz, ze esfinterrak lasaiago bizi eta gureago izaten da mundua. Gogoetan, hitzak ere askatzeaz, ze gure hitzak askeagoak eta zabala-go gure mundua. Gogoetan, gizonak izan behar duen fedez. Gorputz kasik biluzi horiek aurrean izanik hala eusteko halakoren bat behar delakotan. Fedea edo, jainkoaren hitza aditurik edo, gorrotoa edo.

Colorado Springs aireportuan halaxe erosi dut King James New Biblia. Irakurri ahal izateko 35. salmoak dioena. PLEAD my cause, O LORD, with those who strive with me; fight against those who fight against me. Salatu, Jauna, salatzen nautenak; borrokatu, borrokatzen nautenak.

Beste garagardo bati ekin artean begiratu dut hori. Gerrara joateko behar diren motiboez gogoetan. Country honek gerran dihardu-eta.

Jainkoaren hitza, King Jamesen biblia, jainkoak esandako beste hitz batzuen simetrian. Horri kasu egiten diotenak Al Koran liburuan bilatzen dutenen simetrikoak dira. Elkarren premia dute.

Garagardotik gogoetara, eta viceversa, biblia erosi berrian Edengo aingeruaren kontua zelan ageri den begiratzen dut.

So He drove out the man; and He placed cherubim at the east of the garden of Eden, and a flaming sword wich turned every way, to guard the way to the tree of life.

Beraz Hark gizona kanpora eraman zuen; eta Hark kerubina paratu zuen Edengo baratzearen ekialdean, eta alde guztietara egiten duen suzko ezpata, bizi-arbolarako pasabidea zaintzeko.

Etxera itzulita pasarte hori Elizen Arteko Bibliak zelan dakarren begiratu behar, diot nire artean. Begiraturik, horretan kerubina barik «izaki hegadun batzuk, suzko ezpatak zituztela» dio baina, harira.

Denverko aireportuan, King James haren bibliako pasarte hori irakurtzean aspaldiko gogoe-ta huraxe datorkit; munduko lehenengo ofizioa, poliziarena. Edozein bibliaren arabera. Beste bizibide guztiak, lurra lantzea eta, geroagoko kontua dira.

Aingerua, eta aldi berean polizia. Edo aingeruak, eta aldi berean poliziak. Bat ala batzuk, bertsioaren arabera. Bat izan nahiz gehiago izan, Paradisura itzul ez gaitezen jainkoak haren ekialdean suzko ezpata eta guzti hantxe egoteko agindua hartuta. Beraz, ez dugu Paradisura itzul-terik izango, suzko ezpataduna han deino, suzko ezpatadunak han direino. Bertsioaren arabera.

Non den paradisia, ez dakit. Ezpataduna, ezpatadunak non, bai.